

**Min lunbarra pertsona nagusien zaintzaile profesionaletan:  
Arrisku faktoreen identifikazioa eta bideokonferentzia bidezko  
ariketa fisikoko esku-hartze baten eragina**



**Ander Espin Elorza**

Zuzendariak:

**Ana Rodriguez Larrad**

**Jon Irazusta Astiazaran**

## **Esker onak**

Tesi honen prozesuan pertsona asko izan dira garrantzitsuak. Hurrengo lerroetan gustatuko litzaidakeena baino gehiago luzatuko naiz, baina beharko nukeena baino pertsona gutxiago aipatuko ditut.

Hasteko nire zuzendariak, Jon eta Ana, eskertu behar ditut. Izugarri ikasi dut zuengandik, eta primeran zaindu nauzue. Beti erakutsi duzue konfiantza eta ardura nigan, eta aukera guztiak eman dizkidazue profesional moduan garatzeko. Plazer hutsa da zuekin batera lan egitea, eta oso motibatuta nago aurretik datorrenari begira.

Eusko Jaurlaritzak nire doktoretza-aurreko kontraturako eta Danimarkan egindako ikerketa egonaldiako baliabide ekonomikoak jarri ditu. Euskal Herriko Unibertsitateari bereziki eskertu behar diot irakasle karguan egon bitartean doktore titulua lortzeko bidea erraztu didan lizentzia eman izana. Ibilbide honetan Fisiologia sailaren partez babestua eta lagundua sentitu naiz uneoro, eta beti erraztasunak jaso ditut zentzu guztietan.

Saileko kideak eskertu behar ditut ere. Bereziki Unibertsitatean lan egitera heldu nintzenean zaintzaileekin egindako lehenengo proiektuan lagundu nindutenak: Iraia, Miriam, Iratxe, Izaro... Egunsentia baino aurretik Gipuzkoara bidean jartzeko “madrugoi” horiek gogoratzen ditut, gero tesiaren abiapuntu izan zen nire Master Amaierako Lanean erabili nituen datuak jasotzeko. Zorte bat da ere Bego, Torres, Javi, Susana... moduko pertsonekin lan egitea, lehenengo unetik ezin hobe jaso nindutenak.

Eskerrak eman behar dizkiet ere tesian parte hartu duten erakunde guztiei: Caser Residencial Betharram, Fundación Aspaldiko, Grupo Servicios Sociales Integrados, Colisée San Antonio, eta IMQ Igorco Orue eta José María Azkuna. Bereziki, proiektuan erne eta tinko mantendu diren pertsonak eskertu behar ditut: Vanesa, Álvaro, Idoia, Itziar, Amaia, Galder... zuen laguntzarik gabe ezinezkoa izango litzateke tesi hau aurrera eramatea. Noski, tesiko partaide guztiei ere eskerrik asko. Bereziki egindako lana zintzotasunez eskertzeko eskuzabaltasuna izan duzuenoi. “Ha sido la única vez en mi vida en la que no me ha dolido la espalda” moduko gauzak entzuteak zentzua ematen dio jarritako esfortzu guztiari.

I should also thank the National Research Centre for the Working Environment, where I always felt at home. I must especially thank Lars, who from the first minute gave me the opportunity to do the stay and allowed me to get involved in his research. You have shown me that being a world-renowned researcher is not incompatible with being a humble,

hospitable and close person. During my period in Denmark I also met people like Rodrigo, Christian or Sebastian, who ended up being more than co-workers and with whom I have had the opportunity to share great moments beyond work.

Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiet tesian zehar balorazioak egiten eta ariketa saioak ematen lagundu duten kideei, edo besterik gabe tesiko ibilbidea atsegina egin duten bidelagunei: Maialen, Chloe, Iñaki, Aida, Leire, Itxaso... Eta bereziki Unai eta Julia eskertu behar ditut. Más que compañeros, os habéis convertido en verdaderos amigos. Las experiencias compartidas fuera del trabajo han hecho el camino infinitamente más bonito, y es una suerte teneros cerca. ¡Por mucho tiempo, chicos!

Kuadrillari ere eskerrik asko. Agian gutxi ulertu eta “frikadatzat” hartu arren, “¿Cómo va la tesis?” galdetzeaz gogoratzeagatik. Zuetako zenbait tesia bukatu aurretik “Doctor” deitu nauzuen bakarrak izan zarete, batek daki zer ezizen bilatuko duzuen hemendik aurrera...

Lagun ezin hobeak diren fisioterapiako ikaskide ohiek ere tesiaren inguruan galdetzen didate noizean behin, eta horietako batzuk unibertsitateko lankide bezala edukitzeko zortea izan dut urte hauetan: Maider eta Julen, noizko zuen tesiak?

Noski, familia osoari ere eskerrak eman behar dizkiet. Hasteko, urte hauetan zehar fisikoki presente egoteari utzi diozuenoi. Osaba Carlos, esango nuke zu izan zinela nire Master Amaierako Lana lehenengo hitzetik azkenekora irakurri zuen pertsona bakarra. Txikieria bat iruditu daitekeen arren, horrelako gauzek norberaren lanari balioa eman eta jarraitzeko gogoak sortzen dituzte. Amuma Mila, elkarrekin ariketak egiten genitueneko zure gogoek nire “ariketa monitore” bokazioa nolabait piztu zutela esango nuke. Esker bereziak ere izeko Kristiri, nire lorpen zientifikoei beti adi egoteagatik eta dibulgazio lanean nik baino esfortzu handiagoa jartzeagatik. Eta eskerrik asko izeko Kontxa, zu izan zinen nire hitzaldi akademiko bateko lehenengo entzulea, Gradu Amaierako Lanaren aurkezpenean, eta zugandik ikasi ditut Unibertsitateko funtzionamenduaren inguruko gauza asko. Pilo bat zarete tesian zehar lagundu nauzuen eta niregatik arduratu zareten senide eta lagunak, eta zuetako asko “laborategiko arratoi” (barkatu esamoldeagatik) bezala ere parte hartzeko prest egon zarete behar izan denean. Eskerrik asko bihotzez.

Bukatzeko, nola ez, Aita, Ama, Aitana eta Aitor aipatu behar ditut. Zuekin hitzak soberan daude. Zuek izan zarete eta izango zarete beti nire sostengurik sendoena eta aholkurik zintzoena. Eskerrik asko momentu zailenetan ulertu eta nire arrakastak zuenak balira bezala disfrutatzeagatik.

# Aurkibidea

---

<b>Laburpena</b>	<b>8</b>
<b>Laburdurak</b>	<b>13</b>
<b>1. Aurrekari nagusiak</b>	<b>16</b>
<b>1.1. Biztanleriaren zahartzea eta zainketen beharren gorakada</b>	<b>17</b>
<b>1.2. Pertsona nagusien zaintzaile profesionalak</b>	<b>21</b>
1.2.1. Langileen ezaugarriak	21
1.2.2. Zainketen arloko inbertsioa eta langileen aldarrikapenak	22
1.2.3. Zainketen eskaera fisikoak	23
1.2.4. Zainketen eskaera psikologikoak	24
1.2.5. Zaintzaileen garrantzia zaintzen dituzten pertsonen ongizatean	26
<b>1.3. Min lunbarra</b>	<b>27</b>
1.3.1. Definizioa eta prebalentzia	27
1.3.2. Etiologia	28
1.3.3. Prognosia	28
1.3.4. Tratamendua	29
<b>1.4. Min lunbarra zaintzaileetan</b>	<b>30</b>
1.4.1. Prebalentzia	30
1.4.2. Arrisku faktoreak	30
1.4.3. Ondorioak	32
<b>1.5. Min lunbarraz gain zaintzaileetan gertatzen diren beste arazo ohikoak</b>	<b>33</b>
1.5.1. Bestelako min muskuloeskeletikoak zaintzaileetan	33
1.5.2. Arazo psikoafektiboak zaintzaileetan	35
<b>1.6. Ariketa fisikoa</b>	<b>36</b>
1.6.1. Ariketa fisikoaren onura orokorrak osasunean	36
1.6.2. Ariketa fisikoa min lunbarraren maneiurako	38
1.6.3. Ariketa fisikoa bestelako min muskuloeskeletikoentzako	39
1.6.4. Ariketa fisikoa arazo psikoafektiboentzako	40
1.6.5. Ariketa fisikoaren eragina lanarekin eta ekonomiarekin lotutako aldagaietan	41
1.6.6. Ariketa fisikoa online modalitatean	42
<b>1.7. Gaitasun fisikoa online ebaluatzeko tresnak</b>	<b>43</b>
<b>1.8. Aurkezten den tesiaren testuingurua</b>	<b>44</b>

<b>2. Helburuak</b>	<b>46</b>
<b>3. Metodoak</b>	<b>48</b>
<b>3.1. Lehenengo helburuari erantzuteko metodoak</b>	<b>49</b>
3.1.1. Ikerketaren testuingurua	49
3.1.2. Ikerketaren garapena	50
3.1.2.1. Diseinua	50
3.1.2.2. Partaideak	50
3.1.2.3. Aldagaiak	51
3.1.2.4. Estatistika	54
3.1.2.5. Etika	54
3.1.2.6. Finantzazioa	54
<b>3.2. Bigarren helburuari erantzuteko metodoak</b>	<b>55</b>
3.2.1. Ikerketaren testuingurua	55
3.2.2. Proben aukeraketa eta prozeduren finkatzea	55
3.2.3. Proben fidagarritasun eta bideragarritasunaren analisisa	59
3.2.3.1. Partaideak	59
3.2.3.2. Hasierako galdetegiak	60
3.2.3.3. Balorazio prozedurak	62
3.2.3.4. Bideragarritasun aldagaiak	66
3.2.3.5. Estatistika	67
3.2.3.6. Etika	68
3.2.3.7. Finantzazioa	68
<b>3.3. Hirugarren eta laugarren helburuei erantzuteko metodoak</b>	<b>69</b>
3.3.1. Ikerketaren testuingurua	69
3.3.2. Ikerketaren garapena	72
3.3.2.1. Diseinua	72
3.3.2.2. Partaideak	75
3.3.2.3. Balorazioak	76
3.3.2.4. Kontrol taldea	81
3.3.2.5. Talde esperimentala	82
3.3.2.6. Estatistika	96
3.3.2.7. Etika	97
3.3.2.8. Finantzazioa	98

<b>4. Emaidzak</b>	<b>99</b>
4.1. Lehenengo artikulua (lehenengo helburuari lotuta)	101
4.2. Bigarren artikulua (bigarren helburuari lotuta)	116
4.3. Hirugarren artikulua (hirugarren helburuari lotuta)	137
4.4. Laugarren artikulua (laugarren helburuari lotuta)	159
<b>5. Tesiaren eztabaida orokorra</b>	<b>180</b>
<b>6. Ondorioak</b>	<b>200</b>
<b>7. Bibliografia</b>	<b>203</b>
<b>8. Eranskinak</b>	<b>227</b>
8.1. Funtzio muskularreko proben aurretik egindako online galdetegia	228
8.2. Funtzio muskularreko probetako partaideei bidalitako argibideak	233
8.3. Funtzio muskularreko proba eta bideragarritasun aldagaiak jasotzeko orria	236
8.4. Funtzio muskularreko proben baliozkotzerako etika batzordearen oniritzia	238
8.5. Entsegu klinikoaren protokoloarekin argitaratutako artikulua	239
8.6. Entsegu klinikoaren bilera informatiboan parte hartzeko gonbidapena	250
8.7. Entsegu klinikoko galdetegia	251
8.8. Ariketa fisikoko esku-hartzearen kronograma	261
8.9. Ariketaren jarraipen autonomorako argibideak	262
8.10. Ariketen teknika eta progresioen inguruko argibideak	264
8.11. Ariketa eta atsedeen denbora tarteak kontrolatzeko argibideak	273
8.12. Entsegu klinikorako etika batzordearen oniritzia	274
8.13. Entsegu klinikoan aldaketak egiteko etika batzordearen oniritziak	275

# Laburpena

---



## **Aurrekari nagusiak**

Biztanleriaren zahartzea dela eta, desgaitasuna duten pertsona nagusien zainketa profesionalen beharrak nabarmen hazten ari dira. Erronka honen aurrean, protagonista nagusiak zainzaileak dira, epe luzeko egoitzetan edo etxeko zainketa zerbitzuetan lan egiten dutenak. Zaintzaileetan min lunbarraren prebalentzia altua da, eta honek kalte pertsonal eta ekonomikoak eragiten ditu langile, pertsona nagusi, enpresa eta gizartean. Gainera, min lunbarra beste zenbait min muskuloeskeletiko eta arazo psikoafektibo gehigarriekin batera gertatzen da sarritan. Hortaz, garrantzitsua da min lunbarraren prebentzio eta tratamendu ahalik eta eraginkorrenak burutzen saiatzea. Prebentzioari begira, zaintzaileen lanaren eskaera fisikoekin lotutako arrisku faktore batzuk identifikatu diren arren, beste zenbait faktore ikertzeaz daude oraindik, batez ere esparru psikoafektiboari dagokionez. Min lunbarraren tratamenduari begira, ariketa fisikoa dago eraginkortasun handieneko esku-hartzeen artean. Azken urteetan, eta batez ere COVID-19ko pandemiaren ondoren, online modalitatean burututako ariketa fisikoaren gorakada gertatzen ari da. Hala ere, oraindik ez da bideokonferentzia bitartez gainbegiratutako taldeko ariketa fisikoko esku-hartzerik ikertu min lunbarraren maneiorako. Bestalde, ariketa fisikoaren eraginkortasuna neurtzeko funtzio muskularreko probak garrantzitsuak dira. Horregatik, ezinbestekoa dirudi online esku-hartzeetan funtzio muskularra urrunetik baloratu ahal izateko probak baliozkotzea.

## **Helburuak**

Tesi honen helburu orokorra zaintzaileen min lunbarrari aurre egiteko ezagutza eta baliabideak sortzea da, hurrengo helburu espezifikoaren bitartez:

1. Zaintzaileetan bizkarreko mina garatzeko arrisku faktore psikologikoak identifikatu, osasun mentala eta bizitasuna aldagai iragarle bezala erabiliz.
2. Goiko eta beheko gorputz-adarretako eta enborreko funtzio muskularra online modalitatean eta gainbegiratze sinkronoarekin baloratzeko probak baliozkotu.
3. Zaintzaileetan bideokonferentzia bitartez gainbegiratutako 12 asteko taldeko ariketa fisikoko esku-hartze baten eraginak aztertu min lunbarrean, bigarren mailako aldagai bezala beste gorputz-ataletako mina, parametro psikoafektiboak eta funtzio muskularra ezarriz.
4. 12 asteko esku-hartzearen epe luzeko eraginak aztertu min lunbarrean 48 astera egindako balorazioen bitartez, bigarren mailako aldagai bezala beste gorputz-

ataletako mina, parametro psikoafektiboak, funtzio muskularra, eta lanarekin lotutako aldagaiak ezarriz.

## Metodoak

Ezarritako helburuei erantzuna emateko, hurrengo ikerketak burutu genituen:

- Lehenengo helburuari erantzuteko, Kopengheko *National Research Centre for the Working Environment* (NFA) zentroak kudeatzen dituen datuak erabili genituen. Zaintzaileen daturik ez zegoenez aztertzeke eskuragarri, Danimarkako 1,950 osasun langilerekin egindako behaketa-ikerketak prospektibo bateko datuak erabili genituen. Neurketak hasieran eta urte betera egin ziren. Osasun mentala eta bizitasuna *Short Form-36 Health Survey* (SF-36) galdetegiko domeinu espezifikoen bitartez jaso ziren, eta bizkarreko mina 11-puntuko minaren eskala numerikoaren bitartez jaso zen maila lunbar, toraziko eta zerbikalean era independentean. Mina handitzeko arriskua kalkulatzeko erregresio logistikoko metagarriak erabili genituen.
- Bigarren helburuari erantzuteko, *5-repetition sit-to-stand* (5RSTS), *kneeling push-up* (KPU) eta *Shirado-Ito trunk flexor endurance* (SIF) probek (beheko gorputz-adarretako, goiko gorputz-adarretako, eta enborreko funtzio muskularra baloratzen dutenak, hurrenez hurren) bideokonferentzia bitartez egiterakoan zuten fidagarritasun eta bideragarritasuna aztertu genituen 96 pertsona heldu osasuntsuetan. *Test-retest* fidagarritasunerako probak birritan egin genituen (zazpi egunera errepikatuz) aztertzaile bakarrarekin, eta *inter-rater* fidagarritasunerako probak behin egin genituen lau aztertzaileekin. Fidagarritasun erlatibo eta absolutuak *intra-class correlation coefficient* (ICC) eta *standard error of measurement* (SEM) bitartez aztertu genituen, hurrenez hurren. Bideragarritasuna neurtzeko aldagaietan ebaluazioen iraupena, partaideen onargarritasuna eta kontrako gertakariak barneratu genituen.
- Hirugarren eta laugarren helburuei erantzuteko, ausazko entsegu kontrolatua egin genuen, zeinetan 130 zaintzailek hartu zuten parte. Zaintzaileak kontrol (n=65) edo experimental (n=65) taldeetan banatu ziren zoriz. Bi taldeetako partaideek haien lantokietan erregulartasunez garatutako prebentzio programetan hartu zuten parte, eta talde experimentalak bideokonferentzia bitartez gainbegiratutako 12 asteko ariketa fisikoko esku-hartze gehigarria jaso zuen. Esku-hartze gainbegiratua bukatzean, talde experimentaleko partaideei ariketa fisikoa egiten jarraitzea gomendatu zitzaizkien 48. astera arte. Balorazioak hasieran, 12 astera eta 48 astera

egin ziren. Aldagai nagusia batez besteko min lunbarra izan zen, 11-puntuko minaren eskala numerikoaren bitartez jasoa. Bigarren mailako aldagaiak beste gorputz-ataletako mina, parametro psikoafektiboak, lanarekin lotutakoak eta funtzio muskularra izan ziren. Esku-hartzearen eraginak “talde x denbora” diseinuko ANCOVA eta erregresio logistiko bitarraren bitartez aztertu genituen aldagai jarraitu eta kategorikoetan, hurrenez hurren.

## **Emaitzak**

Tesi honetako emaitzak lau artikulu zientifikoaren bitartez aurkeztu dira, helburu bakoitzeko artikulu bana garatuz:

1. Hasieran osasun mental ona eta bizitasun altua zuten osasun langileekin alderatuz, osasun mental ertaina eta bizitasun baxu/ertaina zutenek, hurrenez hurren, urte betera bizkarreko minaren intentsitatea handitzeko arrisku altuagoa zuten maila lunbar, toraziko zein zerbikalean.
2. 5RSTS, KPU eta SIF probek *test-retest* eta *inter-rater* fidagarritasun erlatibo eta absolutu egokiak ( $>0.9$ ko ICC eta  $\leq 16.21\%$ ko SEM balioetan oinarrituta, hurrenez hurren) eta bideragarritasun ona (ebaluazioen iraupen labur, partaideen onargarritasun altu eta kontrako gertakari kopuru murriztean oinarrituta) adierazi zituzten bideokonferentzia bitartez egiterakoan.
3. 12 asteko esku-hartzeak batez besteko min lunbarra murriztu zuen, eta lunbarretako eta esku/eskumuturretako min muskuloeskeletikoarekin lotutako beste zenbait aldagaietan eta goiko gorputz-adarretako funtzio muskularrean hobekuntzak behatu ziren ere. Gainera, esku-hartzearekiko  $\geq 50\%$ ko atxikipena izan zuten partaideetan, onura gehigarriak behatu ziren zerbikaletako minaren maiztasunean, depresioan, bizi kalitatean, sendagai hipnotiko/antsiolitikoaren kontsumoan, eta beheko gorputz-adarretako eta enborreko funtzio muskularrean.
4. 12 astera behatutako min lunbarraren murrizketa ez zen 48. asteko balorazioetan mantendu. Hala ere, 48 astera zerbikaletako minaren lanarekiko interferentzian eta sendagai hipnotiko/antsiolitikoaren kontsumoan onurak behatu ziren. Ordea, eragin kaltegarria behatu zen lanarekin lotutako errealizazio pertsonalean. Bestalde, 12 asteko esku-hartzearekiko  $\geq 50\%$ ko atxikipena izan zuten zaintzaileetan, laneko baja egunak murriztu ziren 48 asteko epean.

## Ondorioak

Emaitzetan oinarrituta, helburu bakoitzeko hurrengo ondorioak atera daitezke:

1. Arrisku faktore direla frogatu den heinean, osasun mental eta bizitasuna osasun langileen bizkarreko minaren prebentzioan kontuan eduki beharreko faktoreak izan daitezke. Hala ere, hau aztertzeke dago oraindik zaintzaileetan.
2. 5RSTS, KPU eta SIF probak bideokonferentzia bitartez egitea fidagarria eta bideragarria da. Honek funtzio muskularra urrunetik baloratu ahal izateko tresna eskaintzen du, logistiko eta ekonomikoki abantailatsua eta distantzia fisiko interpersonalarekin bateragarria izan daitekeena.
3. Bideokonferentzia bidezko ariketa fisikoko esku-hartzea zaintzaileen min lunbarra murrizteko eraginkorra izan zen. Gainera, esku/eskumuturretako mina eta goiko gorputz-adarretako funtzio muskularra ere hobetu ziren, eta atxikipen altuagoko partaideetan onura gehigarriak behatu ziren, batez ere parametro psikoafektiboetan eta funtzio muskularrean. Hortaz, garrantzitsua dirudi zaintzaileei mota honetako esku-hartzeak eskaintzea, partaidetza eta atxikipen altuenak bilatuz.
4. Esku-hartzearen min lunbarraren gaineko onurak ez ziren 48 astera mantendu. Bestalde, 48. astean zerbikaletako minaren lanarekiko interferentzian eta sendagai hipnotiko/antsiolitikoaren kontsumoan onurak eta errealizazio pertsonalean eragin kaltegarria behatu ziren. Gainera, atxikipen altuagoko partaideetan baja egunak murriztu ziren. Emaitza hauek epe luzean bideragarriak izan daitezkeen esku-hartzeak identifikatu eta zaintzaileei era iraunkorrean eskaintzearen garrantzia iradokitzen dute.

# Laburdurak

---

<b>30SCS</b>	30-Second Chair Stand test
<b>5RSTS</b>	5-Repetition Sit-To-Stand test
<b>ACSM</b>	American College of Sports Medicine
<b>ANCOVA</b>	Analysis of Covariance
<b>ANOVA</b>	Analysis of Variance
<b>BLS</b>	Bureau of Labor Statistics of the United States
<b>CG</b>	Control Group
<b>CI</b>	Confidence interval
<b>cm</b>	Centimeters
<b>DC</b>	District of Columbia
<b>DOMS</b>	Delayed Onset Muscle Soreness
<b>EEBB</b>	Estatu Batuak
<b>EG</b>	Experimental Group
<b>GBD</b>	Global Burden of Diseases, Injuries, and Risk Factors Study
<b>Gbps</b>	Gigabit per second
<b>GIEB</b>	Gizakiekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordea
<b>IBM</b>	International Business Machines Corporation
<b>ICC</b>	Intraclass Correlation Coefficient
<b>IFIS</b>	International Fitness Scale
<b>IL</b>	Illinois
<b>ILO</b>	International Labour Organization
<b>IMPACT</b>	Initiative on Methods, Measurement, and Pain Assessment in Clinical Trials
<b>IMQ</b>	Igualatorio Médico Quirúrgico
<b>INSST</b>	Instituto Nacional de Seguridad y Salud en el Trabajo
<b>ITT</b>	Intention-To-Treat
<b>kg</b>	Kilogramo
<b>KPU</b>	Kneeling Push-Up test
<b>KT</b>	Kontrol Taldea
<b>LBP</b>	Low Back Pain
<b>m</b>	Metro
<b>MSK</b>	Musculoskeletal
<b>NC</b>	North Carolina
<b>NFA</b>	Nationale Forskningscenter for Arbejdsmiljø
<b>NRS</b>	Numerical Rating Scale
<b>NY</b>	New York

<b>OECD</b>	Organization for Economic Co-operation and Development
<b>PA8</b>	Physical Activity 8-response item
<b>PP</b>	Per-Protocol
<b>RCT</b>	Randomised Controlled Trial
<b>ReViEEW</b>	Real-time Videoconference-based Exercise in Eldercare Workers
<b>RM</b>	Repetition Maximum
<b>ROM</b>	Range Of Motion
<b>s</b>	Seconds
<b>SAS</b>	Statistical Analysis Software
<b>SD</b>	Standard Deviation
<b>SEM</b>	Standard Error of Measurement
<b>SF-36</b>	Short Form-36 Health Survey
<b>SIF</b>	Shirado-Ito trunk Flexor endurance test
<b>SPIRIT</b>	Standard Protocol Items: Recommendations for Interventional Trials
<b>SPSS</b>	Statistical Package for the Social Sciences
<b>SSI</b>	Servicios Sociales Integrados
<b>TE</b>	Talde Esperimentala
<b>TENS</b>	Transcutaneous Electrical Nerve Stimulation
<b>TIDieR</b>	Template for Intervention Description and Replication
<b>UN</b>	United Nations
<b>UPV/EHU</b>	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
<b>USA</b>	United States of America
<b>WHO</b>	World Health Organization
<b>wk</b>	Week

# 1. Aurrekari nagusiak


---

1.1. Biztanleriaren zahartzea eta zaintzen beharren gorakada	17
1.2. Pertsona nagusien zaintzaile profesionalak	21
1.3. Min lunbarra	27
1.4. Min lunbarra zaintzaileetan	30
1.5. Min lunbarraz gain zaintzaileetan gertatzen diren beste arazo ohikoak	33
1.6. Ariketa fisikoa	36
1.7. Gaitasun fisikoa online ebaluatzeko tresnak	43
1.8. Aurkezten den tesiaren testuingurua	44



## 1.1. Biztanleriaren zahartzea eta zainketen beharren gorakada

Bizi-itxaropena nabarmen hazten ari da mundu mailan, batez ere heriotza-tasaren jaitsiera eta biziraupenaren hazkuntzaren ondorioz (UN, 2022). Mundu osoko emakume eta gizonen datu bateratuen arabera, 1990. urtean jaiotako gero 64 urte bizitzea espero zitekeen. Ordea, 2021. urtean jaiotako pertsona batek 71 urteko biziraupena aurreikus dezake batez beste. Joera honek hurrengo hamarkadetan antzera jarraituko du, eta 2050. urtean jaiotako den pertsona bat 77 urte inguru biziko dela kalkulatu da (UN, 2022) (1. Irudia).




1. Irudia Bizi-itxaropenaren eboluzioa munduan. Iturria: UN, 2022.

Osasun zerbitzuen garapenari esker, nagusiki, bizi-itxaropena luzeagoa da herrialde garatuenetan. Europa eta Ipar-Amerikan, esaterako, 1990, 2021 eta 2050. urteetan jaiotako gero, 74, 77 eta 84 urte bizitzea espero daiteke, hurrenez hurren (UN, 2022). Zehazki, Espainiak bizi-itxaropen altuenetarikoa dauka munduan, 83 urtekoa hain zuzen ere. Euskal Autonomia Erkidegoan are luzeagoa da, eta 84 urterekin munduko bizi-itxaropen luzeenetarikoa duten herrialdeen artean dago (INE, 2023a).

Heriotza-tasaren jaitsierarekin batera, ugalkortasun-tasaren jaitsiera nabarmena ere gertatzen ari da. Munduan, 1950. urtean emakume batek batez beste 5 seme-alaba edukitzea espero zitekeen bitartean, 2021. urtean 2.3koa izan zen ugalkortasun-tasa, eta 2050. urterako 2.1koa izatea aurreikusten da (UN, 2022) (2. Irudia). Herrialde garatuetan ugalkortasun-tasa munduko batez besteko tasa baino askoz baxuagoa da. Hain zuzen ere, 2021. urtean Espainian 1.2koa (INE 2023b) eta Euskal Autonomia Erkidegoan 1.3koa (EUSTAT, 2023a) izan zen. Gauzak horrela, mundu osoko biztanleriaren bi heren 2.1tik

beherako ugalkortasun tasadun herrialdeetan bizi dira, epe luzean biztanle kopurua egonkor mantentzeko behar den mailatik behera, alegia (UN, 2022).




*2. Irudia Ugalkortasun-tasaren eboluzioa munduan. Iturria: UN, 2022.*


Aldibereko heriotza eta ugalkortasun tasen jaitsierak, biztanleriaren zahartze orokorra eragiten du eta adineko biztanleen ehunekoa gero eta altuagoa da. Adibidez, 2022. urtean mundu osoko biztanleriaren %10ak 65 urte edo gehiago zituen jada, eta 2050. urterako ehuneko hori %16koa izatea espero da (UN, 2022). Mundu mailako joera hau agerian geratzen da 2015. urtean Munduko Osasun Erakundeak argitaratutako zahartze eta osasunaren inguruko txostenean (WHO, 2015) (3.Irudia).

65 urtetik gorako pertsonen ehunekoa biztanleria osoarekiko herrialde garatuenetan altuagoa da munduko batezbestekoa baino. Horrela, Europa eta Ipar Amerikan %19koa zen 2022. urtean, eta 2050. urterako %27koa izatea espero da. Zehazki Espainia eta Euskal Autonomia Erkidegoan, 65 urtetik gorakoen ehunekoa bereziki altua da: %20 (INE, 2022) eta %24 (EUSTAT, 2023b), hurrenez hurren, 2022. urtean.

Proportion of population aged 60 years or older, by country, 2015



Proportion of population aged 60 years or older, by country, 2050 projections



3. *Irudia* Munduko biztanleriaren zahartzearen adierazpen grafikoa. Iturria: WHO, 2015.

Gero eta denbora luzeagoz bizi garela argi dagoen arren, gizarte bezala irabazi ditugun urte gehigarri horiek ez dira beti osasun egoera onean bizitzen. Kooperazio eta Garapen Ekonomikorako Erakundearen barruan (ingelesez, OECD) dauden herrialdeetan adibidez, 65 urte betetzean 20 urte inguruko bizi-itxaropen gehigarria espero daiteke. 20 urte horietatik kalkulatu da soilik 10 biziko direla osasun egoera onean, desgaitasunik gabe (OECD, 2021). 2019. urtean, 65 urtetik gorako pertsonen erdiak baino gehiagok sentitzen zuten osasun egoera kaskar edo oso kaskarrean bizi zirela. Ildo berean, %50ak zioen eguneroko eginkizunak aurrera eramateko mugak zituela. Hain zuzen ere, %36ak muga “batzuk” eta %14ak muga “larriak” pairatzen zituen (OECD, 2021).

Begi bistakoa da biztanleriaren zahartzeak desgaitasun edo/eta menpekotasun egoeran bizi diren pertsonen kopuruaren igoera sortzen duela. Horregatik, pertsona nagusientzako zainketen beharra nabarmen hazi da azken hamarkadetan, eta etorkizunean joera bera mantentzea aurreikusten da. Honek erronka eta aukera ekonomiko garrantzitsuak ekarriko ditu, eta zenbait lanpostu berri sortuko direla espero da (ILO eta OECD, 2019). Munduko Osasun Erakundeak 2015. urtean egindako aurreikuspenen arabera, esaterako, 2050. urterako pertsona nagusien zaintzaile profesionalen beharra bikoiztu egingo da (WHO, 2015).

Zainketen beharra duten pertsona gazteak ere dauden arren, 65 urtetik gorakoetan epe luzeko zainketa zerbitzu guztien hiru laurden pilatzen dira (OECD, 2021). Gaur egun, 65 urtetik gorako pertsonen %11 inguruk jasotzen dituzte epe luzeko zainketak. Hala ere, zenbait pertsona nagusik ez dituzte beharrezko zaintzak jasotzen. Adibidez, etxean nolabaiteko desgaitasunarekin bizi diren 65 urtetik gorakoen erdiak ez dute zainketa nahikoa jasotzen (OECD, 2021).

Duela gutxi arte, epe luzeko zainketen iturri nagusia senide eta lagunak izan dira, hau da, zaintzaile informal edo ez-profesionalak. 2019. urtean, zaintzaileen bi heren inguru desgaitasuna duen pertsonaren bikotekide edo seme-alabak ziren, eta gehienetan emakumeak. Zentzu horretan Espainia da OECD osatzen duten herrialdeen artean genero desorekarik handiena duena, zaintzaile informalen %76 emakumeak baitira (OECDko herrialdeetan gertatzen den batez besteko %62aren aldean). Hala ere, zenbait arrazoi dela medio, zainketa informalak eskaintzeko baldintzak edo aukerak gero eta urriagoak dira; besteak beste: familia tamaina gero eta txikiagoa, gero eta mugikortasun geografiko handiagoa, eta emakumeen lan merkatuaz gero eta ohikoagoa. Honen ondorioz, eta aurretik aipatutako biztanleriaren zahartzearekin batera, epe luzeko zaintzaile profesionalen beharra geroz eta handiagoa da (OECD, 2021). Mundu osoko gizartearentzat izugarritzko erronka da hau, zainketa zerbitzuen eskari gero eta handiagora egokitu beharko baita, horien kalitatea bermatuz. Zainketen eskaera eta eskaintzaren arteko desorekaren garrantziaren eztabaida presente egon da denbora luzez herrialde garatuetan (Bragg, 2010). Munduko Osasun Erakundeak, nazioarteko zahartze eta osasunerako estrategia eta akzio planaren barruan, 2017an ezarri zuen zainketen erronka honen aurrean epe luzeko zainketen sistema jasangarria garatzeko beharra (WHO, 2017). Erronka honen aurrean, eragile nagusiak langileak izango dira, pertsona nagusien zaintzaile profesionalak.

## 1.2. Pertsona nagusien zaintzaile profesionalak

### 1.2.1. Langileen ezaugarriak

Pertsona nagusien zaintzaile profesionalak (hemendik aurrera, “zaintzaileak”), soldatapeko langileak dira, eguneroko jarduerak aurrera eramateko mugak dituzten pertsona nagusiak laguntzen dituztenak, epe luzeko egoitzetan edota etxeko laguntzaren bitartez (OECD, 2021). OECD barruko herrialdeetan, 65 urtetik gorako 100 pertsona bakoitzeko 5 zaintzaile dago.

Zaintzaile informalekin alderatuz, zaintzaile profesionalen artean emakumeen presentzia are altuagoa da. OECDko herrialdeetan, zaintzaileen %90 inguru emakumeak dira. Espainian ere antzeko banaketa dago; adibidez, 2020. urtean pertsona nagusientzako egoitzetan lan egiten zuten zaintzaileen %88 emakumeak ziren (INSST, 2022). Aipagarria da ere zaintzaileen artean atzerritarren presentzia handia dagoela, Espainiako langileria orokorrarekin alderatuz. Zehazki, 35-54 urte artean gertatzen da zaintzaile atzerritarren pilaketarik handiena. Izan ere, adin tarte horretan 2020. urtean Espainiako langileria orokorraren %16 atzerritarrak ziren bitartean, pertsona nagusien egoitzetan %23koa zen ehuneko hori (INSST, 2022).

Adinari dagokionez, esan daiteke orokorrean zaintzaileen sektorea nahiko zaharkitua dagoela. Espainian, 2020. urtean aktibo zeuden zaintzaileak bosturtekotan banatuz gero, talderik handiena 55 eta 59 urte artekoa zen, eta 45 eta 59 urte bitarteko zaintzaileek sektore osoaren %42 osatzen zuten. Zainketen sektorearen zaharkitzea agerian geratzen da Espainiako langileria orokorrarekin alderatuz gero. 2020. urteko langileria aktibo osoa kontuan hartuta %19k 55 urtetik gorako adina zuten bitartean, ehuneko hori %36ra heltzen zen egoitzetako zaintzaileetan (INSST, 2022).

Ikasketa mailari dagokionez, OECDko herrialdeetan zaintzaileen laurden bat baino gutxiagok ditu hirugarren mailako ikasketak (OECD, 2021). Espainian ere antzeko datuak ikus daitezke. 2020. urtean, esaterako, egoitzetako zaintzaileen %26k baino ez zituen hirugarren mailako ikasketak, %51k bigarren mailako ikasketa edo parekideak eta %23k bigarren mailako ikasketak osatu gabe zituen bitartean (INSST, 2022). Orokorrean zainketen sektorean lan egiteko gutxieneko ikasketa maila herrialde gutxi eskatzen duten arren, zaintzaileen eguneroko lanak oinarritzko zainketetatik haratago doazen eginkizun konplexuagoak barneratzen ditu (OECD, 2021). Horregatik, ikasketa maila alde batera utzita, funtsezkoa da langileek zainketen inguruko formakuntza espezifikoa jasotzea.

Zentzu honetan, Espainian, 2008. urtean hasi zen zainketen sektorean lan egiteko beharrezko formakuntzaren inguruko arauketa (BOE, 2008). Zenbait luzapenen ondoren, 2022ko abenduaren 31tik aurrera derrigorrezkoa da formakuntza espezifikoak edukitzea zaintzaile moduan lan egiteko. Zehazki, legeak hurrengo kualifikazio profesionala eskatzen du: mendekotasuna duten pertsonen arreta soziosanitariarako profesionaltasun ziurtagiria (sei hilabeteko ikasketak dira, eta erakunde sozialetan edo etxean zaintzeko ziurtagiriak bereizten dira) edo lanbide-heziketa bidezko teknikari titulua (bi urteko ikasketak dira, eta erizaintzako zainketa osagarrietako edo mendekotasun egoeran dauden pertsonen arretako tituluak bereizten dira) (BOE, 2022).

### **1.2.2. Zainketen arloko inbertsioa eta langileen aldarrikapenak**

OECD osatzen duten herrialdeetan, osasun arloko beste sektore batzuekin konparatuz, epe luzeko zainketan gertatu da gastu ekonomikoaren hazkuntza handiena azken urteetan (OECD, 2021). Aipatzekoa da gastu horren %80 erakunde publikoetatik datorrela, eta erdia pertsona nagusien egoitzetara bideratzen dela. Batez beste, OECDko herrialdeek Barne Produktu Gordinaren %1.5 bideratu zuten epe luzeko zainketara 2019. urtean (OECD, 2021).

Datu honen arabera inbertsioa handia dirudien arren, epe luzeko zainketan aritzen diren profesionalen lan baldintza eta soldatak zenbaitetan ez dira onenak (OECD, 2019). Hori dela eta, zaintzaileek aspalditik aldarrikatu izan dute haien lanbideak ez duela merezi duen errespetu, autonomia eta errekonozimendu soziala (Super, 2002). Euskal Autonomia Erkidegoan, esaterako, ugariak izan dira azken urteetan pertsona nagusien egoitzetako langileek lan baldintza hobekien eskatuz burututako protesta eta grebak. Bizkaian, 2023ko maiatzean sinatu zen, 68 eguneko grebaren ondoren, nagusien egoitzetako langileen hitzarmen berrirako aurreakordioa. Honetan, soldatak igotzeaz gain, ordezkapen sistemari eta antzintasun, asteburu, edo gaueko txanden plus ekonomikoei lotutako lan baldintzak ere hobetzea adostu zen, besteak beste (EITB, 2023).

Biztanleriaren zahartzearen ondorioz eratorritako erronkaren aurrean, gero eta garrantzitsuagoak eta ohikoagoak dira zainketen sistemaren kalitatea hobetzeko plan estrategiko eta ekintzak. Euskal Autonomia Erkidegoan, adibidez, zaintzaileen lanbidea profesionalizatzeko nahia dago, langileen kualifikazio maila handitu eta formakuntza jarraia jasotzeko aukerak hobetuz (Grupo SSI, 2023). Bizkaiko nagusien egoitzetan, esaterako, zenbait langile liberatu dituzte, liberazioak irauten duen bitartean langabezia

dauden pertsonak kontratatuz, haien formakuntza maila hobetzeko (Bizkaiko Foru Aldundia, 2022). Orokorrean, estrategia hauen bitartez etorkizunean lanpostu berriak sortzea eta langileek espezializatu eta lan arloan promozionatzeko aukera gehiago izatea espero da. Horri esker, lanbidearen duintasuna handitu, langile berriak erakarri, eta zaintzaile zein pertsona nagusien ongizatea hobetzea lortu liteke. Bestalde, zaintzaileetan fokotutako ekimen publikoen garrantzia are eta nabariagoa dirudi langile hauen eguneroko eskaerei erreparatzen badiegu.

### **1.2.3. Zaintzen eskaera fisikoak**

Zaintzaileen eguneroko zereginek eskaera fisiko handiak eragiten dituzte. Adibidez, Hui eta lankideen (2001) ikasketaren arabera, zaintzaileek lan-jardunaldiaren %20 >110 taupada/minutuko bihotz maiztasunarekin igarotzen dute, eta jardunaldian zehar gihar neke nabarmenaren pilaketa adierazten duten aldaketa elektromiografikoak gertatzen dira. Eskari fisiologiko handiena sortzen duten zereginak menpeko pertsona nagusien altxaketa eta transferentziak dira, 130 taupada/minutu inguruko bihotz maiztasuna eragiten dutenak eta, aldi berean, langileek era subjektiboan eskari handieneko jarduera bezala hautematen dituztenak (Hui eta lank., 2001).

Gizartean eta baita ere literatura zientifikoan sarritan pertsona nagusi/pazienteen altxaketa eta transferentzietan soilik garrantzia ematen zaien arren, zeregin hauek zaintzaileen jardunaldi osoaren %4a baino ez dute osatzen (Hodder eta lank., 2010). Gainerako lanorduetan ere, nahiz eta eskaera fisiko hain altukoak ez izan, neketsuak diren jarduerak burutzen dituzte zaintzaileek. Hodder eta lankideen (2010) arabera, zaintzaileek lanorduen 85% pertsona nagusien oinarritzko zaintzak egiten (adibidez: dutxatu, jantzi, jaten eman), leku batetik bestera mugitzen edo denbora luzez zutunik mantentzen, eta bestelako zereginak aurrera eramaten (adibidez ohea egin) betetzen dute, jardunaldiaren eskaera fisiko osoan nabariki eraginez.

Zaintzaileen eguneroko jarduera ugariaren bereizgarri dira ere gorputz jarrera behartuak. Adibidez, zaintzaileek jardunaldiaren %25a >30°ko enbor flexioa eskatzen duten eginkizunetan igarotzen dute, eta zeregin askotan 75°ko enbor flexioko maximoetara heltzen dira (Hodder eta lank., 2010). Enbor flexio errepikatu eta mantenduak zaintzaileen lanaren bereizgarri garrantzitsuenetarikoak dira. Adibidez, ospitaleko erizainekin alderatuz, pertsona nagusien epe luzeko egoitzetako zaintzaileen >20°ko enbor flexio kopurua %32 handiagoa da (batez besteko 1,170 vs 1,541 enbor flexio jardunaldian zehar,

hurrenez hurren) (Freitag eta lank., 2012). Ildo berean, >4 segundoz mantendutako enbor flexio kopurua, enbor flexioarekin mantendutako iraupen osoa, eta enbor flexioen maiztasuna ere handiagoak dira zaintzaileetan ospitaleko erizainetan baino. Bestalde, zaindu/tratatu beharreko pertsona nagusi/pazienteen kopurua, hauen transferentzia kopurua eta altxaketa denbora osoa, eta oinarrizko zainketen intentsitate maila ere handiagoak dira zaintzaileetan ospitaleko erizainetan baino (Freitag eta lank., 2012).

Zaintzaileen eskari fisiko hauek, lan-istripuak pairatzeko arriskua handiagotzen dute. Hain zuzen ere, Laneko Osasun eta Segurtasunerako Institutu Nazionalak (gaztelaniaz, INSST) lehentasunezko jarduera ekonomiko bezala hartzen ditu egoitzetako zaintzak, Espainian istripu-tasa handienetarikoa duen lanbidea baita (INSST, 2020). Zehazki, 2019. urtean, beste lanbide guztiekin alderatuz, laneko baja ekarri zuten lan istripuen intzidentzia indizea 65% altuagoa izan zen egoitzetako zaintzaileetan: 100,000 langile bakoitzeko 4,041 vs 2,455 istripu (INSST, 2020). Aipatzekoa da egoitzetako zaintzaileen istripu gehienak altxaketa edo garraio/transferentzia mugimenduetan gertatu zirela, erdia baino gehiago gehiegizko esfortzuei lotuta, eta ondorio ohikoenak bihurritu edo zaintiratuak izan ziren (INSST, 2022).

#### **1.2.4. Zainketen eskaera psikologikoak**

Arlo fisikoaz gain, alderdi psikologikoari dagokionez ere eskakizun handikoa izan daiteke zaintzaileen lana, eta langile asko lanbidea uztera heldu daitezke arazo psikoafektiboak direla eta (ILO eta OECD, 2019). Zaintzaileek estresaren eragile nagusi bezala hautematen dituzten arrazoen artean hurrengoak daude: lan karga handiegiak eta langile kopuru murriztuegia, eguneroko eginbeharrak kalitate handienarekin egitea eragozten dutenak; eta soldata baxuegiak, ez datozenak bat lanaren eskakizun handiekin (Lapane eta Hughes, 2007). Hauetaz gain, zainketen beste zenbait ezaugarri ere eskaera psikologikoan eragiten dute, besteak beste: narriadura fisiko zein kognitibo aurreratu eta progresiboa pairatzen duten pertsonekin harreman zuzenean lan egitea, askotan gaixo terminalak direnak, heriotzarekin harreman estua eraginez; pertsona nagusi eta haien senideen jokabide oldarkorrak jasatea, edota merezitako errespetu eta esker ona ez jasotzea; eta lanean “benetako” osasun langile bezala onartua ez izatea edo lanpostu hobeak lortzeko aukera murriztuak edukitzea. Bestalde, ohikoa da ere erizainen aldean, zaintzaileek hautematea ez dutela pertsona nagusien gaixotasun/egoeraren informazio edo ezagutza nahikorik, kalitatezko zaintzak ematea mugatzen duena eta zenbaitetan estresaren eragile garrantzitsua izan daitekeena (Lapane eta Hughes, 2007).



Ildo berean, Kennedyk (2005) aurkitu zuen zaintzaileek askotan prestakuntzarik eza adierazten dutela pertsona nagusien behar emozionalak asetzeko eta eguneroko lanak egiteko, eta gabezia hori estres maila handiagoekin lotuta dagoela. Bestalde, ikusi zuen ere zaintzaileek lan karga handiak hautematen dituztela askotan, eta lan karga handieneko eremuetako langileek estres eta *burnout* (erretako langilearen sindromea) maila altuagoak dituztela.

Izan ere, lan karga handia zaintzaileetan ohikoa izaten da, eta literaturan aztertua izan da. Nagusien egoitzetako zaintzaileetan egindako ikerketa batean, Geiger-Brown eta lankideek (2004) egoera psikologikoan eragin dezaketen lan txanda eta ordutegi antolaketak aurkitu zituzten, besteak beste: txandaka lan egitea, askotan gaueko txandak barneratuz; aste batzuetan 6-7 egunez (asteburuak barne) eta >50 orduz guztira lan egin behar izatea; zenbait egunetan >8 ordu jarraian lan egin edota txanda bikoitza egin behar izatea; eta jardunaldi partzialean lan egitea, zenbaitetan lan bat baino gehiago aldi berean edukitzera behartzen duena. Orokorrean, ohikoa izaten da zaintzaileetan lan antolaketa nahiko kaotikoak/desordenatuak edukitzea. Nagusien egoitzetan egunean 24 orduko zerbitzua eman behar denez egutegi antolaketaren konplexutasuna nolabait ulergarria izan daitekeen arren, ordutegi kaotikoek kontziliazioa oztopatu, errutina bat mantentzea ekidin, eta langileen ongizatean eragin negatiboa sortu dezakete.

Egoitzetako zaintzaileekin alderatuz etxeko zerbitzuetan lan egiten duten zaintzaileen eskaera psikologikoak hain ikertuak izan ez diren arren, kontuan eduki behar da hauek isolamendu handiagoa eta hortaz babes gutxiago dutela haien eguneroko lanean, eta horregatik arrisku handiagoa izan dezakete arlo psikologikoari dagokionez (ILO eta OECD, 2019). Etxeko langileen talde fokalen elkarrizketetan oinarritutako ikerketa batean, Franzosa eta lankideek (2019), eskaera psikologiko nagusien bilkura egin zuten, gehienetan egoitzetako langileenekin bat datozenak. Besteak beste, etxeko langileek hurrengoak aipatzen zituzten psikologikoki gehien eragin dezaketen aspektuen artean: pertsona nagusi, haien familiar edota enplegatzailearen aldetik jasotako errespetu eta errekonozimendurik eza; zaintzaile lanbideari ez dagozkion zereginak egitera behartuta ikustea eta “neskame” bezala tratatua izatea; lanetik kanpo ere zaintzak eman behar izatea, norberarentzat denborarik izan gabe; erlazio afektibo estuak sortu ondoren, denbora luzez zaindutako pertsona nagusien narriadura eta heriotza behin eta berriz bizitzea; lanean arlo psikologikoaren maneiu egokirako laguntza/formakuntzarik eza; eta demenzia edo portaeraren nahasmendua duten pertsona nagusiengandik jarrera

oldarkorrak jasotzea, segurtasun sentsazioaren eza sortzen duena (Franzosa eta lank., 2019). Aipatzekoa da azken aspektu hau ohikoa izaten dela egoitzetako zaintzaileetan ere. Adibidez, ia 1,000 langilerekin egindako ikerketa batean, Miranda eta lankideek (2010) aurkitu zuten %48k eraso fisikoa pairatu zutela gutxienez behin azken hiru hilabeteetan zehar pertsona nagusi edo haien senideengandik. Aspektu hau kontuan hartzekoa da, izan ere, jakina da lanean jarrera iraingarriak pairatzea (mehatxuak, indarkeria, *bullyinga*) desgaitasunagatiko pentsioa jasotzeko arrisku faktorea dela zaintzaileetan (Clausen eta lank., 2023).

Orokorrean, zainketetan aritzen diren pertsonen eskaera fisiko eta psikologiko handiak jasaten dituzte haien egunerokotasunean, eta eskaera horiek zein haien ondorio negatiboak prebenitu eta tratatzea ezinbestekoa da, are gehiago zaintzaileek gizartean duten garrantzia eta inpaktua kontuan edukita.

### **1.2.5. Zaintzaileen garrantzia zaintzen dituzten pertsonen ongizatean**

Aurretik aipatu den bezala, zaintzaileak ezinbestekoak dira gaur egungo eta etorkizuneko gizartearentzat, biztanleriaren zahartzea eta ondoriozko zainketen beharren gorakada dela eta. Horrez gain, kontuan eduki behar da desgaitasuna/menpekotasuna duten pertsona nagusiekin zuzeneko harremana dutela etengabe, haiekin denbora gehien pasatzen duten profesionalak baitira, eta eguneroko bizitzarako oinarrizkoak diren zainketa eta laguntzak eskaintzen baitituzte. Hortaz, logikoa dirudi ondorioztatzea zaintzaileek eragin handia izan dezaketela zaintzen dituzten pertsona nagusien osasun, ongizate eta bizi kalitatean. Honen harira, Bonin-Guillaume eta lankideek (2015) zaintzaile informaletan zuzendutako ikerketa batean aurkitu zuten zaintzailearen gainkarga psikologikoa handia denean, zaintzen duen pertsona nagusiaren planeatu gabeko ber-ospitalizazio arriskua handiagotzen dela.

Esparru profesionalean, erizainen lan karga handiegia denean, denbora faltagatik pazientearentzat funtsezkoak diren zainketa atazak mugatu, langileen neke emozionala handitu eta lanarekiko gogobetetze maila murriztu egiten dira. Hiru eragin hauen albo ondorio bezala zainketen kalitatearen jaitsiera gertatzen da, pazienteen osasun eta ongizatean eraginez (Maghsoud eta lank., 2022). Despertsonalizazioarekin batera (lanarekiko deskonexio sentsazioa, zeinetan norbera eta inguruko pertsonak “objektu” bezala hautematen diren), neke emozional altuak eta lanarekiko errealizazio pertsonal baxuak *burnout*aren sintomatologia osatzen dute, langile errearen sindrome bezala ere

ezagutzen dena (Maslach eta lank., 1997). Erizainetan, *burnout* gradu altuagoak pazienteen segurtasun maila baxuagoekin erlazionatzen dira (Montgomery eta lank., 2022). Ildo berean, sei herrialdetako 50,000 erizainetik gora barneratu zituen ikerketa batean, ondorioztatu zuten *burnout* maila altuagoak kalitate baxuagoko zainketekin erlazionatzen zirela (Poghosyan eta lank., 2010).

Alemaniko nagusien egoitzetan egindako ikerketa batean, ikusi zuten aldi berean zaintzaileei eta egoiliarrei zuzendutako osagai anitzeko esku-hartze batek (besteak beste jarduera fisikoa eta elikadura osasuntsua barneratzen zituen) bi taldeen (zaintzaile eta egoiliar) ongizatea hobetzen zituela. Zehazki, zaintzaileetan emandako hobekuntzei esker, egoiliarrek jasotako arreta eta zainketetan hobekuntzak nabaritu zituzten (Ortiz eta lank., 2014). Honek iradokitzen du zaintzaileen ongizatea hobetzeak, emandako zainketaren kalitatea hobetu dezakeela eta, ondorioz, pertsona nagusien ongizatea ere hobetu.

Etxeko zainketen testuinguruan, zaintzailearen eragina hain da handia pertsona nagusiaren gain, aldarrikatu dela zaintzailearen osasun egoeraren balorazioa pertsona nagusiaren balorazio orokorrean barneratu beharko litzatekeela (Hill, 2019).

Orokorrean, agerikoa dirudi gizarte bezala gure pertsona nagusiak zaindu nahi baditugu, lehenik eta behin haien zaintzaileak zaindu beharko genituzkeela. Horretarako ezinbestekoa da, besteak beste, zaintzaileei gehien eragiten dion osasun arazoari aurre egitea: bizkarraldeko beheko mina edota min lunbarra, hain zuzen ere.

## **1.3. Min lunbarra**

### **1.3.1. Definizioa eta prebalentzia**

Min lunbarra bizkarraren behealdean gertatzen den mina da, normalean 12. saihetsaren eta gandar iliakoaren arteko gunean kokatzen dena. Zenbaitetan mina ipurmasailetan eta hanketan zehar hedatu daiteke ere, eta batzuetan beheko gorputz-adarretako sintoma neurologikoekin batera agertu daiteke (Hartvigsen eta lank., 2018).

Pertsona gehienek bizitzan zehar min lunbarra pairatuko dute behin gutxienez (Knezevic eta lank., 2021). 2015. urtean, nolabaiteko desgaitasuna eragiten zuen min lunbarraren prebalentzia puntuala %7koa zen mundu osoan, hau da, 540 milioi pertsona inguru (GBD, 2018). 54 herrialdetako 165 ikerketa barneratu zituen berrikuspen sistematiko batek, edonolako min lunbarraren prebalentzia puntuala %12an kokatu zuen, eta hilabete bateko prebalentzia %23an (Hoy eta lank., 2012). Berrikuspen horretan bertan, ondorioztatzen

zen min lunbarra ohikoagoa zela herrialde garatuenetan, eta adin ertain-nagusiko emakumeetan (40-80 urte).

### **1.3.2. Etiologia**

Min lunbarra ez da gaixotasun edota lesio bat, sintoma bat baizik, etiologia ugari izan ditzakeena. Kasu zehatz batzuetan min lunbarraren sorburua identifikagarria den arren, gehienetan jatorria gutxi ulertua edo identifikatzeko zaila izaten da (Baxter eta lank., 2020; Buchbinder eta lank., 2018; Hartvigsen eta lank., 2018). Jatorria ezezaguna den hauetan, sintomari min lunbar “ez-espezifikoa” etiketa jartzen zaio, min lunbar kasu guztien %90-95 inguruan gertatzen dena (Bardin eta lank., 2017; Hartvigsen eta lank., 2018). Gaur egungo ezagutza mugatuan oinarrituta, orokorrean onartua dago min lunbar “ez-espezifikoa” honen multzoan sartzen diren kasuek faktore-anitzeko etiologia dutela eta normalean zenbait eragile biopsikosozialen aldibereko konbinazioa egoten dela. Eragile hauen artean mota askotarikoak aurkitu daitezke, besteak beste: biofisikoak, komorbilitateak, psikologikoak, minaren prozesamenduarekin lotutakoak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak (Baxter eta lank., 2020; Buchbinder eta lank., 2018; Hartvigsen eta lank., 2018). Jatorri identifikagarria duten min lunbarraren kasu gutxietan, askotan larriak izan daitezkeen patologia daude minaren atzean (batez ere hezur hausturak, tumoreak, eta arazo infektioso edo hanturazkoak). Hauek “bandera gorri” bezala sailkatzen dira (osasu arloan, patologia larriaren indikatzaile izan daitezkeen zeinu edo sintomak), eta medikuarenganako deribazio zuzena behar izaten dute kausa espezifikoren tratamendu optimoa jasotzeko (Baxter eta lank., 2020; Hartvigsen eta lank., 2018).

### **1.3.3. Prognosia**

Min lunbar ez-espezifikoren bilakaerari dagokionez, gertakari akutu berri bat pairatzen duten paziente gehienak epe laburrean berreskuratzen dira (Hartvigsen eta lank., 2018). Hala ere, ohikoa izaten da min lunbar errepikakorra (aldizka agertu eta desagertu egiten dena), eta paziente batzuek min lunbar kronikoa (normalean  $\geq 3$  hilabete iraupenekoa bezala definitua) garatu dezakete, zenbaitetan pronostiko okerra izan dezakeena, desgaitasun maila handia eragin baitezake (da C Menezes Costa eta lank., 2012). Esaterako, berrikuspen sistematiko batean topatu zuten min lunbarra garatzen duten pertsonen %65ak mina edota gertakari errepikakorrek pairatzen jarraitzen dutela urte betera (Itz eta lank., 2013).

#### 1.3.4. Tratamendua

Gaur egungo literatura zientifikoak zenbait aukera eraginkor ematen ditu min lunbarraren tratamendu farmakologiko eta ez-farmakologikoan. Gianola eta lankideen (2021) meta-analisan, esaterako, min lunbar ez-espezifikoko akutu eta subakuturako baliabide terapeutikoak bildu zituzten, plazebo esku-hartzearen edo tratamendurik ez jasotzearen aldean mina baretu eta desgaitasuna gutxitzeko eraginkortasun frogatua zutenak. Horien artean esku terapia, termoterapia, hezkuntza, opiazeoak, antiinflamatorio ez-esteroideoak, erlaxatzaile muskularrak eta ariketa fisikoa zeuden, eta azken honek eraginkortasun handiena erakutsi zuen. Are gehiago, egileen esanetan, ariketa fisikoa lehentasuneko aukera da, tratamendu farmakologikoekin konparatuz kontrako ondorio gutxiago eta osasunerako onura gehigarriak dituelako (Gianola eta lank., 2022).

Min lunbar ez-espezifikoko kronikoarekin ere antzera gertatzen da. Meroni eta lankideek (2021), lehen mailako arretan erabilitako min lunbar kronikoaren maneira bideratutako praktika klinikorako giden berrikuspena egin zuten, eraginkortasun handieneko esku-hartzeak biltzen dituztenak. Laburbilduz, aurkitu zuten kalitate altuko gida gutxi zegoela. Hala ere, kalitate altuko gida horietan min lunbar kronikoa tratatzeko aukera eraginkor ugari barneratzen dira, eta ariketa fisikoa da gida guztietan ebidentzia indartsuarekin gomendatzen den bakarra. Orokorrean, gero eta ebidentzia gehiago dago min lunbar ez-espezifikoko kronikoan auto-maneiuaren eraginkortasuna frogatuz, eta esku-hartze psikologikoak ere tratamendu plan orokorragoan barneratzea gomendatzen da. Ultrasoinu, laser edo TENS (ingelesez, *transcutaneous electrical nerve stimulation*) motako terapiak, ordea, ez dira gomendatzen (Meroni eta lank., 2021).

Bestalde, Steffens eta lankideen (2016) meta-analisiaren arabera, min lunbarraren agerraldi berriak prebenitzeko ere ariketa fisikoa da, hezkuntzarekin batera edo era isolatuan, esku-hartze minimoaren, esku-hartzerik ez jasotzearen eta plazeboaren aldean eraginkortasuna duen esku-hartze mota bakarra. Paxa abdominal (ingelesez, *back belt*) eta oineko plantillek, ordea, badirudi ez dutela gaitasunik min lunbarraren agerraldi berriak prebenitzeko (Steffens eta lank., 2016).

## **1.4. Min lunbarra zaintzaileetan**

### **1.4.1. Prebalentzia**

Biztanleria orokorrean min lunbarra ohikoa den bitartean, bere prebalentzia are handiagoa da zaintzaileen artean. Estatu Batuetako lan arloko estatistikako sailaren arabera, adibidez, 2016. urtean baja sortu zuten nahasmendu muskuloeskeletiko guztien kopuruarekiko, zaintzaileak izan ziren gune lunbarra ehuneko handiengan minduta zutenak. Izan ere, baja sortu zuten nahasmendu muskuloeskeletiko guztien %53 izan ziren min lunbarraren ondorioz zaintzaileetan, langileria orokorrean ehuneko hori %39koa izan zen bitartean (BLS, 2018).

Zaintzaileetan lanarekin erlazionatutako nahasmendu muskuloeskeletikoak aztertu zituen berrikuspen sistematiko batean, min lunbarra gehien gertatzen zen nahasmendu muskuloeskeletikoa zela ikusi zuten, eta bere prebalentzia puntuala %16-18 artekoa zen, biztanleria orokorrarena (%7-12, iturriaren arabera (GBD, 2018; Hoy eta lank., 2012)) baino nabarmenki altuagoa. Bestalde, 12 hilabeteko prebalentzia (hau da, zenbat zaintzailek pairatu zuten min lunbarra azken urtean zehar) %58-75 artean zegoen (Chang eta lank., 2013).

Ildo berean, zaintzaileez gain ospitaleko erizainak ere barneratu zituen beste berrikuspen sistematiko batean, ikerlariak ondorioztatu zuten min lunbarra nahasmendu muskuloeskeletikorik ohikoena zela. Zehazki, hurrengo batez besteko prebalentziak topatu zituzten min lunbarrean: %35 informazioa jasotzen zen momentuan bertan (prebalentzia puntuala), %44 aurreko 3-6 hilabeteetan zehar, %55 aurreko urtean zehar, eta %65 bizitzan zehar (Davis eta Kotowski, 2015).

Begi bistakoa da min lunbarraren prebalentzia bereziki altua dela zaintzaileen artean. Hortaz, bere eragile nagusien identifikazioa ezinbestekoa dirudi prebentzio ahalik eta eraginkorrena lortu ahal izateko.

### **1.4.2. Arrisku faktoreak**

Aurretik aipatu den bezala, gaur egungo ezagutzan oinarrituta, nahiko onartuta dago biztanleria orokorrean min lunbarrak etiologia multifaktoriala duela eta zenbait eragile biopsikosozialek eragiten dutela bere gain (Baxter eta lank., 2020; Buchbinder eta lank., 2018; Hartvigsen eta lank., 2018). Zaintzaileetan, ordea, oraindik ez da gehiegi ikertu min lunbarraren arrisku faktoreen inguruan.

Orain arte, ikerketa gehienak zaintzaileen lanaren eskaera fisiko/ergonomikoetan zentratu dira. Esaterako, zeharkako ikerketek aurkitu dute lanean hautemandako esfortzu fisiko altuagoa, lanaren eskaera fisiko handiagoa, aurrerantz makurtuta edota gorputz-jarrera behartuetan zutunik denbora luzeagoz mantentzea, eta pertsona nagusien eskuzko transferentziak sarritan egitea min lunbarraren prebalentzia altuagoarekin erlazionatzen direla zaintzaileetan (Brulin eta lank., 1998; Feng eta lank., 2007; Gold eta lank., 2017). Aldiz, pazienteak altxatzeko laguntza ergonomikoen erabilera min lunbarraren presentzia baxuagoarekin lotzen da (Gold eta lank., 2017). Hala ere, arrisku faktoreen antzemateari dagokionez ikerketa egokienak diseinu prospektiboa dutenak dira. Zentzu honetan, ugariak dira lanari lotutako faktore fisikoak aztertu dituzten ikerketak, gehienetan zaintzaileen lagin handiak, jarraipen epe luzeak eta faktore nahasgarriekiko kontrol egokia erabili izan dutenak. Gehienak Europako iparraldeko herrialdeetan burutu dira. Besteak beste, frogatuta dago hurrengo faktoreek aurreikus dezaketela zaintzaileen min lunbarra era prospektiboan: pertsona nagusien/pazienteen transferentzia, maneiua eta altxaketa ugariagoak; lanaren eskaera eta karga fisiko altuagoak; pisu txikiak bizkarra aurrerantz tolestuta dagoen bitartean sarritan altxatu eta mugitzea; eta pertsona nagusiak ohean gehiagotan kokatzea/maneiatzea (Andersen eta lank., 2014; Burdorf eta Jansen, 2006; Eriksen eta lank., 2004; Holtermann, Clausen, Aust, eta lank., 2013; Holtermann, Clausen, Jørgensen, eta lank., 2013; Januario eta lank., 2021; Jensen eta lank., 2012; Kim eta lank., 2010). Ildo berean, jakina da objektu pisutsuak sarritan maneiatzeko eta lan karga handiak edukitzea era prospektiboan lotuta daudela zaintzaileetan min lunbarragatiko absentismoarekin (Burdorf eta Jansen, 2006; Eriksen eta lank., 2004). Burdorf eta Jansenen (2006) kalkuluen arabera, 40 urteko lan ibilbide batean zehar lan karga fisiko handia duen zaintzaile batek 140 asteko min lunbarragatiko absentismoa espero dezakeen bitartean, lan karga baxuko zaintzaile batek 30 asteko absentismoa baino ez du izango, batez beste.

Arrisku faktore fisikoak sakon ikertu diren bitartean, zaintzaileen baldintzatzaile psikosozialak gutxi aztertu izan dira min lunbarraren eragile bezala. Ikerketa gutxi batzuek zeharkako erlazioak topatu dituzte: besteak beste, lanean esfortzu eta sarien arteko desoreka eta eskari psikosozial altuagoak, erabakiak hartzeko autoritate eta eragin txikiagoak, asebetetze maila baxuagoa, eta nagusi/lankideengandik sostengu urriagoa, min lunbarrarekin lotutako zenbait ondorio kaltegarriekin erlazionatzen dira (Feng eta lank., 2007; Gold eta lank., 2017; Simon eta lank., 2008). Dena den, zeharkako erlazio hauek ez dute kausalitaterik adierazten eta beraz ezin dira arrisku faktore bezala kontuan

hartu. Ildo berean, osasun arloko langileak barneratu dituzten berrikuspen sistematikoei erreparatuz, ondorioztatu daiteke orain arte min lunbarrarentzat ikertu diren “arrisku faktore” psikosozialak zeharkako diseinuekin analizatu direla ia beti, eta kalitatezko ikerketa prospektiboak ezinbestekoak direla (Al Amer, 2020; Bernal eta lank., 2015; Du eta lank., 2021; Rezaei eta lank., 2021). Erizainetan badaude bi ikerketa prospektibo, lagin txikiekin burututakoak, lanean denboraren kudeaketaren gaitasun baxua eta lankideekin erlazio kaskarrak min lunbarraren arrisku faktore direla erakusten dutenak (Elfering eta lank., 2002; Yip eta lank., 2002). Vinstrup eta lankideek (2020a, 2020b) ere, prospektiboki erakutsi zuten estresak eta loaren kalitate txarrak min lunbarra aurreikus zezaketela ospitaleko langileetan. Hala ere, zehazki zaintzaileetan diseinu prospektiboa jarraitu duen kalitatezko ikerketa bakarra Eriksen eta lankideena (2004) izan da. Nahiz eta ikerketa laginean zaintzaileez gain beste esparru batzuetako erizain laguntzaileak ere barneratu zituzten, aurkitu zuten gainbegiraleengatik sostengurik ezak eta lan giro atsegin eta lasaigarriaren faltak min lunbarra aurreikusten zutela (Eriksen eta lank., 2004). Ikerketa honek zaintzaileen min lunbarraren prebentziorako informazio oso baliagarria ematen duen arren, beste zenbait aldagai psikosozial prospektiboki ikertzeaz daude oraindik. Bestelako populazioetan egindako ikerketei erreparatuz, erizainak eta bulegoko langileak eta biztanleria orokorreko emakumeak aztertu zituzten ikerketa prospektiboetan, hurrenez hurren, ikusi zuten osasun mental kaskarragoak eta bizitasun maila baxuagoak min lunbarra aurreikusten zutela (Ng eta lank., 2018; Vargas-Prada eta lank., 2013). Interesgarria izango litzateke aztertzea ea mota honetako aldagaiak zaintzaileetan ere min lunbarraren arrisku faktore ote diren, lagin handiak, eta batez ere prospektiboki jarraipen epe luzeak erabiliz.

Dena den, min lunbarraren prebentzioari begira arrisku faktoreen antzematea oso garrantzitsua den arren, utopikoa dirudi kasu guztietan asaldua hau guztiz ekiditea lortzea. Hortaz, sarritan min lunbarra garatuko da zaintzaileetan, eta zenbait ondorio kaltegarri sor ditzake.

### **1.4.3. Ondorioak**

27 urteko epean zehar 195 herrialdetako 395 gaixotasun eta lesio aztertu zituen berrikuspen sistematiko baten arabera, min lunbarra desgaitasunaren eta produktibitatea galtzearen lehenengo arrazoa da munduan (GBD, 2018). Horrez gain, frogatuta dago min lunbarrak mota askotariko arazo fisiko eta psikosozialak eragin ditzakeela pazienteengan, eta ondorio bezala bizi kalitatearen kalte handia sor dezake (Agnus Tom eta lank., 2022).



Biztanleria orokorrean gertatzen den bezala, min lunbarraren ondorio negatiboak ugariak dira zaintzaileetan ere. Zentzu honetan kalitate altueneko ikerketak Europako iparraldeko herrialdeetan egin dira (Danimarka eta Suedia), iraupen luzeko jarraipen prospektiboen bitartez min lunbarraren eraginak aztertuz zaintzaileen lagin handietan. Esaterako, 8,000 zaintzaile baino gehiago 11 urtez jarraitu zituen ikerketa batean, eta analisi estatistikoak zenbait faktore nahasgarrirekiko kontrolatuz, ondorioztatu zen min lunbarraren intentsitate altuagoa desgaitasunagatik pentsioa jasotzeko arrisku faktorea zela (Bláfoss eta lank., 2021). Arrisku hau dosi-erantzun erlazio argi batekin gertatzen zen gainera; hau da, intentsitate altuagoek desgaitasun pentsioa jasotzeko aukera handiagoak eragiten zituzten. Ikerketa honen arabera, min lunbarraren intentsitatea  $\leq 2$  mantenduz gero (0-10 eskala batean), %16 zaintzaile gutxiagok jasoko lukete desgaitasun pentsioa. Jarraipen epe laburragoarekin izan arren zaintzaileen lagin bera aztertu zuen beste ikerketa batean, ondorioztatu zen min lunbarraren intentsitate altuagoa epe luzeko laneko baja pairatzeko arrisku faktorea zela ere (Andersen, Clausen, Burr, eta lank., 2012; Andersen, Clausen, Mortensen, eta lank., 2012). Ildo berean, ikasketak bukatu berri zituzten 6,000 zaintzaile baino gehiago bi urtez jarraitu zituen ikerketa batean, ikusi zuten min lunbarra eta min lunbarragatik desgaitasuna zainketa profesionalak uzteko edota lana aldatzeko arrisku faktoreak zirela (Faber eta lank., 2010). Zehazki etxeko zainketa zerbitzuetan lan egiten duten zaintzaileetan fokatu zen beste ikerketa batean, ondorioztatu zuten min lunbar intentsitate altuagoak desgaitasun maila larriagoekin eta osasunarekin lotutako bizi kalitate baxuagoarekin erlazionatzen zirela zortzi urtera (Lundberg eta Gerdle, 2016).

Datu hauei erreparatuz, bistakoa da min lunbarrak kontuan edukitzeko ondorio kaltegarriak dituela zaintzaileen bizi kalitate/desgaitasun eta lanarekin lotutako zenbait alderdi ekonomikotan. Horrez gain, aipatu beharra dago min lunbarra askotan beste zenbait osasun arazorekin batera gertatzen dela, batez ere min muskuloeskeletiko gehigarri edota nahasmendu psikoafektibo moduan adierazten direnak.

## **1.5. Min lunbarraz gain zaintzaileetan gertatzen diren beste arazo ohikoak**

### **1.5.1. Bestelako min muskuloeskeletikoak zaintzaileetan**

Min lunbarra duten pazienteetan ohikoa izaten da aldi berean beste gorputz atal batzuetan ere mina pairatzea. Aldibereko min gehigarri hauek funtzio okerragoarekin, osasun fisiko eta mental baxuagoarekin, prognosi txarragoarekin eta tratamenduarekiko erantzun

egokia edukitzeko aukera urriagoekin erlazionatzen dira (Hartvigsen eta lank., 2013). Kalkulatzen da min lunbarra duten pertsonen %90 inguru min muskuloeskeletiko gehigarriak dituztela gorputzeko beste atal batzuetan; hau da, min lunbarraren kasuen %10 baino ez dira min isolatuak. Gune lunbarrarekin batera minduta agertzen diren lokalizazio anatomiko ohikoenak lepoa/gune zerbikala (kasuen %64-65) eta sorbaldak (%62-67) izaten dira (Øverås eta lank., 2023).

Zaintzaileei dagokienez, egile batzuen esanetan ikertzaileak min lunbarrean gehiegi fokatu izan dira, bizkarraren behealdeko min honen inguruan soilik galdetuz gainerako gorputz atalak kontuan eduki gabe (Chang eta lank., 2013). Ondorioz, populazio honetan min lunbarra zalantzarik gabe ohikoena dela pentsatzen dugun arren, kontuan izan behar da minaren prebalentzia oso altua dela beste lokalizazio anatomiko batzuetan ere (Chang eta lank., 2013; Cheung eta lank., 2018; Davis eta Kotowski, 2015). Izan ere, behatu da zaintzaileetan aldibereko gorputz atal desberdinetako mina oso ohikoa dela, eta batez besteko min intentsitate eta desgaitasun maila altuagoarekin eta osasunarekin lotutako bizi kalitate baxuagoarekin erlazionatzen dela (Lundberg eta Gerdle, 2016). Aurretik aipatutako Davis eta Kotowskiren (2015) berrikuspen sistematikoaren arabera, zaintzaileetan minaren prebalentzia puntualik altuena gune lunbarrean gertatzen den arren (%35), sorbaldetan (%32), lepoan (%28) eta goiko gorputz-adarretan (%15) ere prebalentzia altuak ikusten dira, biztanleria orokorrean ikusten den antzeko patroia jarraituz.

Min lunbarraz gain gertatzen diren beste min hauek ere kontuan hartzekoak dira. Izan ere, zaintzaileen lagin handietan oinarritutako azterketa prospektiboek frogatu dute sorbalda eta lepoko minak ere arrisku faktore independenteak direla epe luzeko laneko bajak pairatzeko (Andersen, Clausen, Burr, eta lank., 2012; Andersen, Clausen, Mortensen, eta lank., 2012). Ildo berean, Melkevik eta lankideek (2018) frogatu zuten aldi berean mindutako gorputz atal kopuru handiagoa epe luzeko laneko baja pairatzeko arrisku altuagoarekin erlazionatzen dela zaintzaileetan.

Ezagutza honetan oinarrituta, argia dirudi zaintzaileetan mina bere osotasunean aztertzeko garrantzia, gune lunbarrean ez ezik, min prebalentzia altuko beste gorputz ataletan ere arreta jarritz. Ideia honen justifikazioari indarra emanez, zaintzaileetan mina osotasunean aztertu duten beste ikerketa prospektibo batzuetan ere ikusi da orokorrean minaren gaineko kontrol eta eragin gutxiago duten langileek lan merkatutik irteera goiztiarra edukitzeko arrisku handiagoa dutela (Vinstrup eta lank., 2023). Ildo berean,

Andersen, Vinstrup eta lankideek (2023) zaintzaileetan egindako ikerketa batean ikusi zuten minaren kontrolerako analgesikoen erabilera altuagoa desgaitasunagatiko pentsioa jasotzeko edota hilkortasun goiztiarra pairatzeko arrisku handiagotuarekin erlazionatzen zela. Ikerketa honetan bertan, ondorioztatu zuten sendagai antsiolitiko/lasaigarri/hipnotikoen erabilera ohikoagoa ere desgaitasun pentsio eta hilkortasun handiagoarekin lotzen zela, zaintzaileen artean arazo psikoafektiboek duten garrantzi eta ondorio larriak begi bistan utziz.

### **1.5.2. Arazo psikoafektiboak zaintzaileetan**

Neurri batean aurretik aipatutako lanaren eskaera psikologikoak direla eta, arazo psikoafektiboaren prebalentzia altua da zaintzaileen artean. Literatura zientifikoan ugariak dira zainketen arloko profesionalen nahasmendu mentalak adierazten dituzten lanak. Besteak beste, hurrengoak daude zaintzaileen arazo psikoafektibo ohikoenen artean: estresa (Hsu eta lank., 2007; Kennedy, 2005; Lapane eta Hughes, 2007; VonDras eta lank., 2009), *burnout* edo erretako langilearen sindromea (Chamberlain eta lank., 2017; Cooper eta lank., 2016; Kennedy, 2005), antsietate eta depresioa (Geiger-Brown eta lank., 2004), eta loaren asaldurak (Takahashi eta lank., 2008; Zhang eta lank., 2016). Zenbait arazo hauen arteko lotura oso estua da, eta sarritan era bateratuan gertatzen dira.

Nahasmendu psikoafektibo hauek bereziki ohikoak dira zaintzaileetan, beste langile batzuekin eta biztanleria orokorrarekin alderatuz. Esaterako, 6,000 partaidetik gora barneratu zituen luzetarako ikerketa batean, Madsen eta lankideek (2012) ondorioztatu zuten zaintzaileek sintomatologia depresiboa eta depresioaren aurkako tratamendua jarraitzeko arrisku handiagoa zutela biztanleria orokorrarekin alderatuz. Ildo berean, Fiabane eta lankideek (2016), pertsona nagusien egoitza bateko langile guztiak barneratu zituen ikerketa batean, ikusi zuten zaintzaileek osasun langileek baino estres eta *burnout* maila altuagoak pairatzen zituztela.

Zaintzaileetan osasun psikoafektiboaren nahasmenduak betidanik egon diren arren, COVID-19ko pandemiak arazo hauen gorakada nabarmena eragin zuen bai zainketen esparruan eta bai osasun zerbitzuetako arloan oro har (Blanco-Donoso eta lank., 2021; Koontalay eta lank., 2021; Soto-Rubio eta lank., 2020; Torrente eta lank., 2021). Pandemian zehar ohikoak izan ziren lanbide hauetan lan karga handiak, langile kopuru murriztegiarekin; presio soziala; sufrimenduarekin harreman zuzena; eta prestakuntza, informazio eta babes pertsonalerako ekipamendurik eza (Blanco-Donoso eta lank., 2021).

Arrazoi hauek zirela medio, estres post-traumatikoa, *burnouta*, beldurra eta antsietate eta depresioa nabarmen igo ziren osasun langileetan (Koontalay eta lank., 2021). Ondorio negatibo hauek eragin bereziki bortitza izan zuten lehenengo lerroko langileetan, zaintzaileek betetzen dutena hain zuzen ere (Torrente eta lank., 2021).


Bestalde, aipatzekoa da ere arazo psikoafektiboen prebalentzia altuagoa dela min lunbarra duten pertsonetan. Besteak beste, jakina da bizkarraren behealdeko gune honetan mina pairatzen dutenen artean estres, antsietate, depresio, psikosi eta loaren asaldura-tasa altuagoak gertatzen direla (Amiri eta lank., 2020; Amiri eta Behnezhad, 2020; Stubbs eta lank., 2016). Hau kontuan hartzekoa da, arazo psikoafektiboek min lunbarraren prognosia okertu dezaketelako. Esaterako, Wong eta lankideek argitaratutako meta-analisi batean (2022), ondorioztatu zuten min lunbarra duten pertsonetan sintoma depresiboen presentzia desgaitasun handiagoarekin eta sendatze okerragoarekin erlazionatzen dela. Honek agerian uzten du min lunbarrari eta harekin lotutako arazo gehigarriei aurre egiteko esku-hartze eraginkorrak identifikatzearen garrantzia. Zentzu honetan, bere osasun onura ugariak direla eta, ariketa fisikoa dugu kontuan eduki beharreko tresnen artean.

## **1.6. Ariketa fisikoa**

### **1.6.1. Ariketa fisikoaren onura orokorrak osasunean**

Ariketa fisikoak hilkortasuna murriztu eta osasunarekin lotutako bizi kalitatea hobetzen ditu kontrako ondorio barik edo ondorio minimoekin (Posadzki eta lank., 2020). Ebidentzia epidemiologiko eta kliniko indartsuek frogatzen dute ariketa fisikoak 35 gaixotasun pairatzeko arriskua murrizten duela, eta ariketa fisikoa zenbait gaixotasun kronikoetan “sendagai” bezala agindu beharko litzatekeela aldarrikatu izan da (Pedersen, 2019). Ariketa fisikoak eragindako osasun onuren mekanismo fisiologikoak guztiz ezagunak ez diren arren, badirudi hanturaren aurkako bide molekularren aktibazioak garrantzia duela (Pedersen, 2019). Honen ildora, Chow eta lankideen (2022) berrikuspenaren arabera, exerkinak deituriko faktore humoralen jarioak (ariketa fisikoa egiterakoan askatutako hormona, metabolito, proteina eta azido nukleikoak) funtsezko funtzioa jokatzeko du. Faktore hauek osasun kardiobaskular, metaboliko, neurologiko eta immunea hobetzeko eta, hortaz, gaixotasun kardiobaskularrak, II motako diabetesa eta obesitatea tratatu eta zahartze osasuntsua laguntzeko ahalmena dute (Chow eta lank., 2022).

Osasunerako onurak lortzeko gutxieneko jarduera fisiko maila batzuk gomendatzen diren arren (pertsone heldu osasuntsuetan astero intentsitate ertaineko  $\geq 150$ -300 minutu edo intentsitate kementsuko  $\geq 75$ -150 minutu jarduera aerobiko eta birritan gihar indartzea (Bull eta lank., 2020)), ia edonork izan ditzake hobekuntza klinikoki adierazgarriak fisikoki aktiboago bilakatuz gero (Warburton eta Bredin, 2017). Izan ere, jarduera fisikoak dosierantzun erlazio kurbilineoa dauka hilkortasun goiztiar eta gaixotasun kronikoen arrisku murrizketarekin, eta jarduera fisiko kantitate txikiek ere osasun onura garrantzitsuak eragiten dituzte (4. Irudia).



**4. Irudia** *Jarduera fisiko mailaren erlazioa hilkortasun goiztiar eta gaixotasun kronikoaren arriskuarekin. Iturria: Warburton eta Bredin, 2017.*

Aipatutako onura ugarien artean, badirudi jarduera/ariketa fisikoa minaren prebentzio eta tratamendurako eraginkorra dela ere (Borisovskaya eta lank., 2020; Geneen eta lank., 2017). Izan ere, minaren maneirako kalitate altueneko praktika klinikorako gidak erreparatuz gero, tratamendurako ebidentzia eguneratuenak biltzen dituztenak, ariketa fisikoa guztietan gomendatzen da modu sendoan (Lin eta lank., 2020). Zehazki, esan daiteke zentzu honetan gaur egun arte ebidentzia gehienak min lunbarrean fokatu direla.

### 1.6.2. Ariketa fisikoa min lunbarraren maneiturako

Literatura zientifikoak erakusten du ariketa fisikoa min lunbar ez-espezifikoaren prebentzio eta tratamendurako tresna eraginkorra dela (Hayden eta lank., 2021; Hernandez-Lucas eta lank., 2022; Roren eta lank., 2023; WHO, 2023). Gainera, beste estrategia terapeutiko batzuen aldean (adibidez farmakoak), kontrako ondorio gutxiago eta osasunerako onura gehigarri mordoa ditu (Gianola eta lank., 2022). Lan arloan ere ariketa fisikoko esku-hartzeek min lunbarra murriztu dezaketela frogatuta dago (Rodrigues eta lank., 2014; Steffens eta lank., 2016). Huang eta lankideen (2020) meta-analisan, ariketa fisikoa izan zen, hezkuntzarekin bateratuta edo era isolatuan, lan esparruan min lunbarrari eta horrek eragindako bajei aurre egiteko ebidentzia aurkeztu zuen esku-hartze bakarra (oineko plantilla, bizkarralderako gerriko, hezkuntza era isolatuan eta neurri ergonomikoen aldean, besteak beste).

Gaur egungo ezagutzan oinarrituta, min lunbarrari aurre egiteko ariketa fisiko motarik eraginkorrena zein den ziurtatzea zaila dirudien arren (Grooten eta lank., 2022), badaude ebidentziak iradokitzen dituztenak giharren indartzean oinarritutako ariketak eraginkorrenen artean daudela (Fernández-Rodríguez eta lank., 2022; Owen eta lank., 2020; Rodrigues eta lank., 2014). Zehazki, azken urteotan argitaratutako meta-analisi batzuek ondorioztatu dute enborreko giharretan oinarritutako indartze ariketak (ariketa orokorrekin konparatuz) eta pazienteari indibidualizatuak daudenak (beste tratamendu aktibo batzuekin konparatuz) eraginkortasun handiagoa dutela min lunbarra murrizterakoan (Fleckenstein eta lank., 2022; Prat-Luri eta lank., 2023).

Hala ere, min muskuloeskeletikoaren maneiturako ariketa fisikoaren eraginkortasuna frogatzen duten ikerketak ugariak diren arren, esan beharra dago kasu batzuetan ebidentzien kalitatea baxua dela (Lyng eta lank., 2023). Min lunbarrari dagokionez ere, ariketa fisikoaren inguruko zenbait ikerketa kalitate eztabaidagarrikoak dira, esku-hartzeen eraginaren tamaina nahiko baxua da, eta gehienetan eraginak epe laburrean baino ez daude frogatuta (Grooten eta lank., 2022; Owen eta lank., 2020). Hortaz, komenigarria dirudi zentzu honetan kalitate metodologiko egokidun zorizko entsegu kontrolatuak aurrera eramatea, jarraipen epe zabalekin, luzerako eraginak ezagutzeko.

Beste alde batetik, biztanleria orokorrean eta laneko testuinguruan ariketa fisikoaren ahalmena min lunbarra gutxitzeko gehiago ikertu den arren, esan beharra dago zaintzaileetan fokatutako ikerketak oso murrizak izan direla. Aisialdian egindako ariketa

fisikoak min lunbarrarekiko eragin babesgarria izan dezakeela iradokitzen duen behaketa-ebidentziaren bat dagoen arren (Gold eta lank., 2017), oso gutxi dira zaintzaileetan esku-hartzeetan oinarritutako ikerketak. Richardson eta lankideen (2018) berrikuspen sistematikoan, non erizainetan min muskuloeskeletikoari aurre egiteko esku-hartzeak biltzen saiatu ziren, ondorioztatu zuten kalitatezko oso ebidentzia gutxi zegoela. Ildo berean, eta erizainetan ere, Van Hoof eta lankideen (2018) berrikuspen sistematikoan, alborapen arrisku baxuko lau zorizko entsegu kliniko baino ez zituzten topatu, eta ondorioztatu zuten momentu horretan ez zegoela esku-hartze frogaturik min lunbarraren prebentzio edo tratamendurako. Zaintzaileetan argitaratutako beste berrikuspen sistematiko batean ere, Otto eta lankideek (2021), ondorioztatu zuten ezinbestekoa dela kalitate altuko zorizko entsegu kontrolatuak aurrera eramatea langile hauen osasun fisiko eta mentala hobetzen duten esku-hartze eraginkorrak topatzeko.

Orokorrean, esan daiteke nahiz eta zaintzaileak gaur egungo eta etorkizuneko gizartearentzat ezinbestekoak izan eta min lunbarraren prebalentzia altua pairatu, oso murrizak izan direla afekzio honi aurre egiteko esku-hartzeak literatura zientifikoan, batez ere ariketa fisikoari begira. Hortaz, ezinbestekoa dirudi kalitate altuko zorizko entsegu kontrolatuak aurrera eramatea, zaintzaileen lagin tamaina egokiarekin eta epe luzeko eraginak aztertuz. Honen beharra are garrantzitsuagoa dirudi gainera kontuan izanda ariketa fisikoak, min lunbarraz gain, zaintzaileek pairatzen dituzten beste min muskuloeskeletiko eta arazo psikoafektibo gehigarriak maneiatzeko ere ebidentzia frogatua duela, hurrengo ataletan erakutsiko den bezala.

### **1.6.3. Ariketa fisikoa bestelako min muskuloeskeletikoentzako**

Literatura zientifikoan hainbat berrikuspen daude argitaraturik lan arloan egindako ariketa fisikoko esku-hartzeek min lunbarraz gain beste min batzuk ere murriztu ditzakeela frogatzen dutenak. Esaterako, Lowe eta Dicken (2015) berrikuspenean ondorioztatu zuten ariketa fisikoko esku-hartzeek, eta bereziki indar-lan espezifikoa barneratzen dutenek, langileen lepoko eta sorbaldako mina gutxitu dezaketela. Rodrigues eta lankideen (2014) berrikuspen sistematikoa aurkikuntza hauekin bat dator, eta ondorioztatzen du batez ere indar ariketak gai direla langileen lepo eta sorbaldako mina ez ezik bizkarrezur dorsaletan eta eskumuturretako mina ere hobetzeko. Hala ere, Moreira-Silva eta lankideen (2016) meta-analisan, lantokian egindako jarduera fisikoko programek lepoko eta sorbaldako mina murriztu dezaketela frogatzen duten arren, esaten dute goiko gorputz-adarretan (besteak beste esku eta eskumuturrean) fokaturako esku-hartzeak oso urriak direla eta

eraginkortasuna ez dela argi geratzen. Zentzu honetan Menta eta lankideen (2015) berrikuspen sistematikotik antzeko ondorioa atera daiteke, kalitatezko bost ikerketa baino ez baitzuten topatu ariketa fisikoaren eraginak goiko gorputz-adarretako (ukondo, besaurre, eskumutur eta esku) minean aztertzen zutenak, ondorio argirik lortu gabe.

Orokorrean, zenbait datu itxaropentsu dauden arren, esan daiteke oraindik ikertzen jarraitu beharra dagoela ariketa fisikoak min lunbarraz haratago doazen beste min muskuloeskeletikoetan duen eraginaren inguruan. Izan ere, aipatutako Lowe eta Dicken (2015) berrikuspenean topatu zuten ikerketen kalitatea zenbaitetan ez zela maila onargarrikoa. Gainera, bulegoko langileen moduko beste lanbide batzuetan gehiago ikertu den arren, zaintzaileetan egin diren ariketa fisikoko esku-hartze murrizak min lunbarrean fokatu dira soilik, eta beste min muskuloeskeletikoetan ez dago ia ebidentziarik.

#### **1.6.4. Ariketa fisikoa arazo psikoafektiboentzako**

Minaren murrizketaz gain, ariketa fisikoak frogatutako onurak eragiten ditu arazo psikoafektiboetan eta loaren asalduretan (Firth eta lank., 2020; Gordon eta lank., 2018; Teychenne eta lank., 2020; Yang eta lank., 2012). Nahiz eta eragin hau historikoki hain ikertua ez izan, azken urteotan hainbeste dira ariketa fisikoak ongizate emozionalean erakutsi dituen onurak, ariketa fisikoaren osasun mentalerako gida zehatzak sortzearen beharra aldarrikatu dela (Teychenne eta lank., 2020).

Berriki argitaratutako meta-analisi batean, 19 zorizko entsegu kliniko barneratu zituena, ondorioztatu zen ariketa fisikoan oinarritutako esku-hartzeak eraginkorrak direla min muskuloeskeletikoa pairatzen duten pertsonen antsietate eta depresioa hobetzeko (Amiri, 2023). Entseguetako partaideen ezaugarriei erreparatuz, gainera, ondorioztatu daiteke eraginkortasun hau batez ere min lunbarrean dagoela frogatuen. Izan ere, 13 entsegutan (%68) lagina min lunbarra zuten pazienteek osatzen zuten. Ariketa fisikoko mota eraginkorraren inguruan, ordea, ezin da ondoriorik atera meta-analisi honetatik. Izan ere, egileek mota guztietako ariketa fisikoak hartu zituzten kontuan eta, gehienak gihar indartzera bideratuak zeuden arren, “ariketa terapeutiko”, “egonkortasun ariketa”, “ariketa neuromuskular” eta “pilates” bezala izendaturiko modalitateak barneratu ziren, besteak beste.

Bestalde, laneko esparruan, ebidentziak daude aisialdian fisikoki aktiboa izatea osasunarekin lotutako bizi kalitate altuagoarekin erlazionatua dagoela frogatzen dutenak (Gómez-Redondo eta lank., 2022). Aurkikuntza hauek zeharkako behaketan oinarrituta



egonda kausalitaterik azaltzen ez duten arren, Chu eta lankideen (2014) berrikuspenak lantokian egindako esku-hartze ikerketak biltzen ditu. Bertan, ariketa fisikoak langileen antsietate eta depresio sintomak gutxitzeko ahalmena duela frogatzen da (Chu eta lank., 2014). Lan arloan jarraituz, eta zaintzaileengandik hurbilago geratzen den populazio batean fokatuta, azken urteotan argitaratutako bi berrikuspenek frogatzen dute ariketa fisikoak osasun munduan aritzen diren profesionalen laneko estresa baretzen duela (Bischoff eta lank., 2019; Zhang eta lank., 2021). Hala ere, zaintzaileetan ariketa fisikoaren eraginak aldagai psikoafektiboetan aztertzen duten ausazko entsegu klinikoak oso urriak dira, eta emaitza kontrajarriak behatu dituzte gainera (Ewert eta lank., 2009; Kamioka eta lank., 2011; Kukihara eta lank., 2022). Hortaz, beharrezkoa dirudi zentzu horretan ezagutza sortzen jarraitzea.

#### **1.6.5. Ariketa fisikoaren eragina lanarekin eta ekonomiarekin lotutako aldagaietan**

Langileen osasuna hobetzeaz gain, ariketa fisikoak enpresentzat ere eragin onuragarriak izan ditzake. Grimani eta lankideen (2019) berrikuspen sistematikoan, esaterako, ondorioztatu zuten lantokian aplikatutako nutrizio eta jarduera fisikoko esku-hartzeek eragin positiboa izan dezaketela langileen absentismo, lan egiteko gaitasun, errendimendu eta produktibitatean. Ildo berean, Baicker eta lankideek (2010), haien meta-analisan oinarrituta egindako kalkuluen arabera, lantokiko ongizate edo *wellness* programetan inbertitutako dolar bakoitzeko, langileen absentismoarekin lotutako 2.73 dolar eta gastu medikuekin erlazionatutako 3.27 dolar aurreztu daitezkeela ondorioztatu zuten. López-Bueno eta lankideek (2020), 10,427 langilerekin egindako jarraipen prospektibo bati esker, ondorioztatu zuten aisialdian jarduera fisiko maila altuak mantentzea epe luzeko bajak pairatzeko arriskuaren aurrean babesgarria dela.

Min lunbarra duten langileetan, diseinu prospektiboa ere jarraitu zuen Gupta eta lankideen (2022) beste ikerketa batean aurkitu zuten aisialdian egunero intentsitate ertain-kementsuko jarduera fisikoko 20 minutu gehituz gero, epe luzeko baja pairatzeko arriskua %26 murrizten zela. Oesch eta lankideen (2010) meta-analisan, 20 zorizko entsegu kontrolatu barneratu ondoren, frogatu zuten ariketa fisikoko esku-hartzeek eragin positiboa dutela min lunbarra duten langileen desgaitasun mailan. Min lunbarra duten langileekin jarraituz, nahiz eta zeharkako behaketa batean oinarritu, Kolu eta lankideek (2017) ikusi zuten aisialdian Munduko Osasun Erakundearen jarduera fisikoko

gomendioak betetzen zituzten erizainek osasun gastu baxuagoak eragiten zituztela, gomendioak betetzen ez zituzten parekideekin alderatuz.

Azkenik, López-Bueno eta lankideek (2021) eta Morera eta lankideek (2022) daniar zaintzaileetan burututako ikerketa prospektiboetan, ondorioztatu zuten aisialdiko jarduera fisiko kementsuak eta bizimodu osasuntsuak (bereziki aisialdiko jarduera fisikoak), epe luzeko baja pairatzeko eta desgaitasunagatiko pentsioa jasotzeko arriskua murrizten zituztela, hurrenez hurren. Hala ere, kontuan eduki behar da zaintzaileetan egindako bi ikerketa hauek behaketakoak direla; hortaz, beharrezkoa da ariketa fisikoko esku-hartzeetan oinarritutako ikerketak burutzea zaintzaileetan, lanarekin eta ekonomiarekin lotutako aldagaietan eraginak aztertuz.

#### **1.6.6. Ariketa fisikoa online modalitatean**

Online formatuan burututako ariketa fisikoko esku-hartzeak aspaldi hasi ziren agertzen, eta garapen teknologiko eta Internetera sarbide gero eta unibertsalagoari esker ohikoagoak bihurtzen ari dira urteak pasa ahala (Joseph eta lank., 2014). Online modalitateak duen abantaila nagusienetarikoa da pertsona kopuru handiago batera irisgarria izan daitekeela kostu baxuagoekin. Aurrez-aurre egindako ariketa fisikoko modalitate konbentzionalaren aurrean, online formatuan desplazamenduekin lotutako diru eta denbora gastuak aurrezten dira, logistikoki eta ekonomikoki abantailatsua bihurtuz (Gao eta Wang, 2022; Joseph eta lank., 2014).

Abantaila hauetaz gain, online ariketa fisikoaren beste indarguneetako bat agerian geratu zen COVID-19ko pandemian. Izan ere, kontaktu pertsonala saihesteko neurriak indarrean dauden egoerekin bateragarria eta bereziki erabilgarria da online formatua. Pandemia garaietan zenbait izan ziren modalitate hau ariketa fisikoko esku-hartzeak aurrera eramateko alternatiba bezala proposatu zuten ikertzaileak (Gao eta Wang, 2022; Turolla eta lank., 2020). Gainera, abantaila hau bereziki interesgarria da zainketen esparruan. Izan ere, nagusien egoitza eta antzeko zentroetan bereziki gogorrek eta luzaroan aplikatuak izan ziren aldentze fisikoko neurriak, eta batzuk gaur egun arte mantendu edota beharren arabera erregulartasunez indarrean jartzen dira oraindik.

Orain arte, online ariketa fisikoko esku-hartze gehienak posta elektronikoko, web orrialde, plataforma, aplikazio eta antzekoetarako sarbide autonomoan oinarritu dira, partaideak nahiko autonomo bilakatuz eta profesionalaren gainbegiratzea minimoa izanez (Joseph eta lank., 2014; Seron eta lank., 2021). Esku-hartze modalitate hauek nahiko merkeak izan

daitezkeen arren, gainbegiratzetik ezak partaideen atxikipen eta segurtasun baxuagoan eragin dezake. Honen aurrean, bideokonferentzia sinkrono bitartez burututako esku-hartzeek abantailak izan ditzakete. Izan ere, jakina da Interneten bitartezko osasun esku-hartzeetan, profesionalaren elkarrekintza eta partaidearekiko harreman handiagoak motibazioa, partaidetza eta atxikipen altuagoa sustatzen dituztela (Brouwer eta lank., 2011). Horrez gain, ariketak egin bitartean, gainbegiratze sinkronoari esker profesionalak partaidearen jarduerak kontrolatzeko ahalmen handiagoa izan dezake, segurtasun handiagoan islatu daitekeena.

Gainbegiratze sinkronoa bermatzeko bideokonferentzia sistemak erabili dituzten esku-hartze eskasen barruan, kasu gehienetan bideokonferentzia indibidualak erabili izan dira, profesional eta partaide bakarraren artean (Grona eta lank., 2018). Kontuan hartu beharra dago ariketa fisikoari dagokionez, taldeko formatuak, hau da, zenbait partaideen une bereko elkarrekintzak, eragin positiboa izan dezakeela ariketa programarekiko atxikipenean eta, hortaz, agian bere eraginkortasunean ere (Burke eta lank., 2006).

Seron eta lankideen (2021) berrikuspenaren arabera, tele-errehabilitazioko esku-hartzeek aurrez-aurreko esku-hartzeen antzeko emaitzak lortu ditzakete, eta errehabilitaziorik ez jasotzearen aldean eraginkortasuna frogatu dute. Hala ere, aldarrikatu izan da kalitate altuagoko entsegu klinikoak behar direla tele-errehabilitazioan oinarritutako esku-hartze eraginkorrak topatzeko (Seron eta lank., 2021). Gainera, taldeko formatuan eta gainbegiratze sinkronoarekin egindako ariketa fisikoko esku-hartzeak oso urriak izan dira, eta horietako bat ere ez da laneko esparruan burutu oraindik.

## **1.7. Gaitasun fisikoa online ebaluatzeko tresnak**

Proba edo test fisikoak funtsezko baliabideak dira ariketa fisikoko esku-hartzeen eraginak neurtzeko. Online ariketa programen kasuan, gaitasun fisikoa distantzian neurtzeko tresnak beharrezkoak dira, aurrez-aurreko balorazio tradizionalak erabiltzeko ezintasunaren aurrean. Gaitasun fisikoa ebaluatzeko mugikorrekiko aplikazio eta antzekoak gero eta ugariagoak diren arren (Silva eta lank., 2021), gainbegiratze sinkronoa ziurtatzen duten tresnen gabezia nabaria da.

Behar hau agerian geratu zen COVID-19ko pandemian, aldentze fisikoko neurriek behartuta zenbait ariketa fisikoko programek online modalitatera migratu zutenean (Jennings eta lank., 2020; Winters-Stone eta lank., 2020). Garai horretan zenbait ikertzailek aurrez-aurreko balorazio fisikoak mantendu ahal izan zituzten arren (Albornoz-

Cabello eta lank., 2021), beste batzuk auto-pertzepzioan oinarritutako neurri subjektiboak erabili behar izan zituzten gaitasun fisikoa neurtzeko (Curtis eta lank., 2020), eta kasu batzuetan ez zuten proba fisikorik erabili ariketa programen eraginak neurtzeko (Costa eta lank., 2021). Gauzak horrela, egile batzuek gaitasun fisikoa online ebaluatzeko zenbait alternatiba planteatu zituzten (Gonzalez-Gerez eta lank., 2020; Jennings eta lank., 2020; Madhavan eta lank., 2021; Moccia eta lank., 2020). Hala ere, proposatutako irtenbideak ez zeuden baliozkotuta, eta emaitzak nabarmen baldintzatu zitzaizketen aldaketak ezarri ziren balorazio prozeduretan (Gonzalez-Gerez eta lank., 2020; Jennings eta lank., 2020). Adibidez, Gonzalez-Gerez eta lankideek (2020) *6-minute walk testa*, protokoloz 20 yardako (18.3 metro) luzeradun espazioan egin behar dena (Rikli eta Jones, 1999), etxean egitea proposatu zuten. Antzera, Jennings eta lankideek (2020) *30-second arm-curl testa*, protokoloz haltera batekin egiten dena (Rikli eta Jones, 1999), ur botila edo pisuz betetako poltsa batekin egitea erabaki zuten. Egoera honen aurrean, online proba fisikoen bideragarritasun eta baliozkotasuna aztertzeko ikerketak ezinbestekoak zirela aldarrikatu zen (Madhavan eta lank., 2021).

Ordura arte, bideokonferentzia bitartez egindako proba fisikoen baliozkotasun eta fidagarritasuna aztertzen zuten ikerketa urriak patologia edo populazio zehatzetara bideratutako test zehatzetan zentratu ziren (Grona eta lank., 2018). Gainera, kasu gehienetan lagin txikietan egin ziren, eta alborapen arrisku altuko ikerketa bezala identifikatu ziren. Hortaz, agerikoa zirudien biztanleria heldu orokorrean gainbegiratze sinkronoarekin gaitasun fisikoa ebaluatzeko tresnak garatzeko beharra, lagin tamaina proposarekin eta kalitate metodologiko egokiarekin baliozkotu beharko litzatekeena.

## **1.8. Aurkezten den tesiaren testuingurua**

Tesi hau UPV/EHUko Ageing On ikerketa taldearen barruan burutu da, besteak beste egoitzetan bizi diren pertsona nagusietan egindako ariketa fisikoko programengatik ezaguna dena. Egoiliarretan fokatuta egindako ikerketa ibilbide luzeak zaugarritasun nabarmena duen beste kolektibo baten antzematea ahalbidetu zuen, pertsona nagusien zaintzaileena hain zuzen ere. Gauzak horrela, 2018an Eusko Jaurlaritzak finantzatutako EXODYN proiektua (ELKARTEK 18/97) jarri genuen martxan, lehenengo pauso bezala zaintzaileen ezaugarrien karakterizazioa egiteko helburu nagusiarekin. EXODYN proiektuari esker tesi honen abiapuntua izan den Master Amaierako Lana egin nuen (Espin, 2020). Aipatutako lanean hurrengo aurkikuntza nagusiak bildu genituen, beste

herrialde batzuetan aurretik argitaratutako literatura zientifikoarekin bat zetozenak eta Euskal Autonomia Erkidegoan lehenengo aldiz frogatu zirenak:

- Min lunbarraren prebalentzia altua behatu zen zaintzaileetan, bizi kalitate kaskarrago batekin lotura zuena. Hortaz, min lunbarraren prebentzio eta tratamendua hobetzeko arrisku faktore eta esku-hartze eraginkorren antzematean lan egitea beharrezkoa zirudien.
- Egoera psikoafektibo okerragoak min lunbarraren prebalentzia altuagoarekin lotura argia aurkezten zuen, baina ikerketa zeharkakoa izanik, kausalitatea frogatzerik ez zen egon. Hortaz, beharrezkoa zirudien jarraipen luzeko ikerketa prospektiboa egitea, egoera psikoafektibo okerragoa min lunbarrarentzako arrisku faktorea ote zen konfirmatzeko.
- Orokorrean, lanetik kanpo fisikoki aktiboak ziren zaintzaileek osasun parametro hobeak zituzten. Hala ere, kasu honetan ere ezin zen kausalitatea frogatu, eta beharrezkoa zirudien zorizko entsegu kliniko batean oinarritutako ariketa fisikoko esku-hartzea burutzea ariketaren benetako eraginak neurtzeko.

Aurkikuntza hauetatik tesi honetan burututako ikerketa lanari ekin genion, jarraian azalduko diren helburu nagusiak kontuan izanik.

## 2. Helburuak

---

Tesi honen helburu orokorra zaintzaileen min lunbarrari aurre egiteko ezagutza eta baliabideak sortzea da. Ikergaiaren inguruko aurrekari nagusietan identifikatutako beharrak kontuan hartuta, hurrengoak ezarri genituen helburu espezifiko bezala:

1. Zaintzaileetan bizkarreko mina garatzeko arrisku faktore psikologikoak identifikatu, osasun mentala eta bizitasuna aldagai iragarle bezala erabiliz.
2. Goiko eta beheko gorputz-adarretako eta enborreko funtzio muskularra online modalitatean eta gainbegiratze sinkronoarekin baloratzeko probak baliozkotu.
3. Zaintzaileetan bideokonferentzia bitartez gainbegiratutako 12 asteko taldeko ariketa fisikoko esku-hartze baten eraginak aztertu min lunbarrean, bigarren mailako aldagai bezala beste gorputz-ataletako mina, parametro psikoafektiboak eta funtzio muskularra ezarriz.
4. 12 asteko esku-hartzearen epe luzeko eraginak aztertu min lunbarrean 48 astera egindako balorazioen bitartez, bigarren mailako aldagai bezala beste gorputz-ataletako mina, parametro psikoafektiboak, funtzio muskularra, eta lanarekin lotutako aldagaiak ezarriz.

# 3. Metodoak

---

3.1. Lehenengo helburuari erantzuteko metodoak	49
3.2. Bigarren helburuari erantzuteko metodoak	55
3.3. Hirugarren eta laugarren helburuei erantzuteko metodoak	69



### 3.1. Lehenengo helburuari erantzuteko metodoak

“Zaintzaileetan bizkarreko mina garatzeko arrisku faktore psikologikoak identifikatu, osasun mentala eta bizitasuna aldagai iragarle bezala erabiliz”.

#### 3.1.1. Ikerketaren testuingurua

Lehenengo helburuari erantzuteko ikerketa-egonaldi bat egin nuen Danimarkan. Zehazki, Kopenhageko *National Research Centre for the Working Environment* zentroan, normalean NFA siglen bitartez ezagutzen dena bere daniar deiturarengatik (*Nationale Forskningscenter for Arbejdsmiljø*) (5. Irudia). NFA daniar gobernuko enplegu ministerioaren menpe dagoen zentroa da, lan ingurune osasuntsu eta segurua lortzeko helburuarekin ikerketa garatu eta ikertzaileak hezitzen dituena. Mundu mailan, eskandinaviar herrialdeak izan dira historikoki lan esparruko osasunarekin lotutako ekoizpen zientifikoa garatzeko kultura garrantzitsuenetarikoa izan dutenak (Navarro eta Martín, 2004). Horien artean, Danimarka eta, zehazki NFA, ezagutza sortzaile ospetsuenetarikoak direla esan daiteke. NFA ezaguna da batez ere langile kohorte handien jarraipen luzeekin egindako ikerketengatik (Andersen, Bay, eta lank., 2023). Honek lan esparruan gertatzen diren ondorio kaltegarriak (adibidez, iraupen luzeko bajak) antzematen dituzten arrisku faktoreen detekzioa ahalbidetzen du, prebentzio eraginkorra lortzeko neurriak ezartzerakoan lagunduz.



5. Irudia NFA ikerketa zentroa Kopenhagen, Danimarka. Iturria: guk hartutako argazkia.

Tesi honen testuinguruan, NFAko *Musculoskeletal Disorders and Physical Workload* sailean egin nuen egonaldia, Lars Louis Andersen doktorearen tutoretzapean. Andersen doktorea laneko osasunarekin lotutako ikertzailerik ospetsuenetarikoa da mundu mailan, 250 artikuluko zientifiko baino gehiago argitaratu dituena eta, behaketa-ikerketak prospektiboetatik gain, langileen minaren maneiorako ariketa fisikoko esku-hartzeen eragina aztertzeagatik ezaguna dena (Andersen eta lank., 2011). Tesi honen lehenengo helburuari begira, NFAn oraindik aztertzeaz zuten daturik erlazionatuena identifikatzeari ekin genion. Garai horretan zehazki zaintzaileen daturik ez zutenez analizatzeko, aztertzeaz zegoen kohorte antzekoena erabiltzea erabaki genuen, osasun arloko langileena hain zuzen ere. Egonaldia hasi aurretik, Andersen doktorearen ikerketa taldean proiektu honetatik eratorritako artikuluko bat argitaratuta zuten jada, pazienteen transferentziak eta bizkarreko lesioa pairatzeko arriskua erlazionatzen zituen (Andersen eta lank., 2019). Hala ere, proiektuaren helburu nagusietako bat, oraindik erantzuteaz zegoena, bizkarreko minaren arrisku faktore psikologikoak identifikatzea zen, beraz tesi honen helburuarekin bat eginez.

### **3.1.2. Ikerketaren garapena**

#### **3.1.2.1. Diseinua**


Behaketa-ikerketa prospektiboa egin zen urte beteko jarraipen epearekin. Hau da, parte hartzaileek posta elektronikoz bidalitako galdetegi bat erantzun zuten ikerketaren hasieran (*baseline*) eta hortik urte betera (*follow-up*). Horri esker, langileen hasierako egoera psikologikoak urte betera gertatutako bizkarreko minaren intentsitatearen gorakada aurreikus ote zezakeen aztertu ahal izan genuen. Beste era batean esanda, ea egoera psikologiko okerragoa urte betera bizkarreko minaren intentsitatea handitzeko arrisku faktorea ote zen.

#### **3.1.2.2. Partaideak**

Galdetegiaren hasierako bidalketa 2017. urtean egin zen posta elektronikoz, Danimarkako 19 ospitaleko 389 unitatetan lan egiten zuten 7,025 langileri. Ospitale guztiak publikoak ziren eta Danimarkako ipar eta erdialdeko eskualdeetan zeuden kokatuta. Unitateen ezaugarriei dagokienez, barneratze irizpide bakarra izan zen nolabaiteko pazienteen transferentziak egin behar zituztela egunerokotasunean; hau da, administrazio, bulego eta antzeko unitateak baztertu egin ziren hasierako bidalketa honetan. Guztira, 4,151 langilek erantzun zuten hasierako galdetegia (%59ko erantzun-tasa) (6. Irudia).

Hasierako erantzun hauetatik, pazienteekin interakzioa ez zuten langileenak baztertu egin genituen. Zehazki, paziente interakziodun lanpostutzat hurrengoak hartu genituen: erizainak, erizain laguntzaileak eta bestelako osasun laguntzaileak, okupazio-terapeutak, fisioterapeutak, emaginak, medikuak, zeladoreak eta erradiologoak. Gauzak horrela, 3,885 paziente-interakziodun partaide geratu ziren guztira. Hau da, 266 partaide ez genituen kontuan eduki (%7ko baztertze-tasa).

3,885 langile hauetatik, 1,950k urte betera bidalitako galdetegia erantzun zuten ere (%51ko atxikipen-tasa). 1,950 partaide hauek izan ziren behin betiko analisisian erabili genituenak, batez besteko adina 49 urtekoa eta %87 emakumeak izanik.



6. Irudia Ikerketako partaideen fluxu-diagrama. Iturria: guk egindakoa.

### 3.1.2.3. Aldagaiak

#### Aldagai nagusia

Ikerketako aldagai nagusia bizkarreko minaren intentsitatea izan zen, era independentean hiru gunetan neurtu zena: lunbarra, torazikoa eta zerbikala. Zehazki, 11-puntuko minaren eskala numerikoa erabili zen (Williamson eta Hoggart, 2005). Partaideei hurrengo galdetu zitzaion: “Emaiozu 0 eta 10 arteko balio bat zure azken lau asteetan zeharreko bizkarrezur (lunbar/toraziko/zerbikaleko) minaren intentsitateari, 0=inolako minik ez eta 10=pentsa daitekeen minik okerrena izanda”.

11-puntuko minaren eskala numerikoa tresna baliozkotua eta fidagarria da, minaren intentsitatearen neurketarako erabilienetarikoa, eta ikerketarako aproposena dela onartzen da beste min eskala batzuekin alderatuz (Williamson eta Hoggart, 2005). Eskala

bisual analogikoaren eta ahozko eskalen aldean, esaterako, minaren balorazioan ere oso ohikoak direnak, 11-puntuko minaren eskala numerikoa fidagarriagoa, sentikorragoa eta ulertzeko errazagoa da, eta horregatik bizkarreko minaren intentsitatea neurtzeko eskala gomendatuena da (Dionne eta lank., 2008). 11-puntuko minaren eskala numerikoak 0.67-0.96 arteko ICCa (*intraclass correlation coefficient*) erakutsi du (Kahl eta Cleland, 2005), *test-retest* fidagarritasun ertain-altua adierazten duena (Koo eta Li, 2016).

Ikerketa honen helbururako, 11-puntuko minaren eskala numerikoan edozein igoera (*baseline* momentutik urte betera) izan genuen kontuan minaren okertze bezala. Izan ere, minaren aldaketen garrantzi klinikorako IMMPACT gomendioen arabera, zenbait ikerketek baieztatzen dute  $\geq 1$  puntuko bariazioak aldaketa garrantzitsu minimoaren adierazle direla (Dworkin eta lank., 2009).

### Aldagai iragarleak

Aldagai iragarleak osasun mentala eta bizitasuna izan ziren, *Short Form-36 Health Survey* (SF-36) galdetegiaren daniar bertsioko domeinu espezifikoaren bitartez jasoak (Bjorner eta lank., 1998). SF-36 galdetegia osasunarekin lotutako bizi kalitatea neurtzeko tresna erabilienetakoa da, baliotasun eta fidagarritasun egokiak erakutsi dituena (Brazier eta lank., 1992), eta arazo muskuloeskeletikodun langileetan sentikortasun handiena adierazi duena beste osasun neurri batzuen ondoan (Beaton eta lank., 1997).

SF-36 galdetegiak osasunarekin lotutako zortzi domeinu neurtzen ditu, horietako lau alderdi fisikoarekin erlazionatuta (funtzio fisikoa, rol fisikoa, gorputz mina eta osasun orokorra), eta beste lau alderdi psikologikoarekin erlazionatuta (osasun mentala, bizitasuna, funtzio soziala eta rol emozionala). SF-36 galdetegitik puntuazio fisiko eta puntuazio psikologiko orokorrak lortu daitezkeen arren, zortzi domeinu espezifikoetako bakoitzaren puntuazioak ere atera daitezke (Contopoulos-loannidis eta lank., 2009). Tesiaren aurrekari nagusietan aipatu den bezala, bizkarreko minaren arrisku faktoreei dagokienez alderdi fisikoa psikologikoa baino ikertuagoa izan da, eta horregatik ikerketa honetan eragile psikologikoetan baino ez ginen fokatu. SF-36 galdetegian alderdi psikologikoa osatzen duten lau domeinuen artean, “funtzio sozial” eta “rol emozional” domeinuek egoera psikologikoaren ondorioz eratorritako jokaera edo portaerak aztertzen dituzte gehiago, berriazko egoera psikologikoa baino. Ikerketa honetan lagin handia lortzea baimendu zezakeen galdetegi laburra erabili nahi zenez, “osasun mental” eta “bizitasun” domeinuak soilik erabiltzeko erabakia hartu genuen. “Osasun mental” eta

“bizitasun” domeinuek 0.75 eta 0.80ko ICCak erakutsi dituzte (Brazier eta lank., 1992), hurrenez hurren, *test-retest* fidagarritasun altuaren adierazle direnak (Koo eta Li, 2016).

Osasun mentala neurtzeko galderak hurrengoak izan ziren: “Azkeneko lau asteetan zehar, zenbatetan...” (1) izan zara oso pertsona urduria?, (2) sentitu zara hain deprimitua ezerk ezin zintuela animatu?, (3) sentitu zara lasai eta baketsu?, (4) sentitu zara gogorik gabe eta goibel?. Galdera bakoitzak sei erantzun aukera ditu “Uneoro” eta “Inoiz ez” artean, 1-6 arteko baloreak jasotzen dituztenak. Erantzun guztien baloreak batu egiten dira eta ondoren 0-100 bitarteko puntuazio baten eraldatu, puntuazio altuagoek osasun mental hobea adierazten dutelarik.

Bizitasuna neurtzeko galderak hurrengoak izan ziren: “Azkeneko lau asteetan zehar, zenbatetan...” (1) sentitu zara energiaren gutxiekoa?, (2) izan duzu energia asko?, (3) sentitu zara akituta?. Galdera bakoitzak sei erantzun aukera ditu “Uneoro” eta “Inoiz ez” artean, 1-6 arteko baloreak jasotzen dituztenak. Erantzun guztien baloreak batu egiten dira eta ondoren 0-100 bitarteko puntuazio baten eraldatu, puntuazio altuagoek bizitasun altuagoa adierazten dutelarik.

#### Nahaste aldagaiak

Osasun mental eta bizitasunaren erlazio prospektiboa bizkarreko minarekin hurrengo nahaste aldagaiekiko kontrolatu genuen:

- Bizkarreko minaren intentsitatea hasieran: 0-10.
- Adina: urteak.
- Sexua: emakumea/gizona.
- Gorputz masa indizea: kg/m<sup>2</sup>.
- Tabakismoa: bai/ez.
- Aisialdiko jarduera fisikoa: sedentarioa/intentsitate arineko jarduera fisikoa astean >3 egun/intentsitate ertaineko jarduera fisikoa astean >3 egun/intentsitate kementsuko jarduera fisikoa astean zenbait egun.
- Antzinasuna: urteak lanbidean.
- Pazienteen transferentziak: egun bakoitzeko kopurua.
- Lanean errekonozimendua eta eragina: 0-100, *Copenhagen Psychosocial Questionnaire* bitartez neurtuak (Pejtersen eta lank., 2010).

#### **3.1.2.4. Estatistika**

Partaideen hasierako datu deskriptiboak batezbestekoa  $\pm$  desbiderapen estandarra eta frekuentzia (ehunekoa) erabiliz adierazi genituen aldagai jarraitu eta kategorikoetan, hurrenez hurren. Bizkarreko minaren intentsitatea handitzeko arriskua adierazteko erregresio logistiko metagarriak erabili genituen. Arriskuaren baloreak *odds ratio* eta %95ko konfiantza tarteen bitartez adierazi genituen. Bi erregresio eredu erabili genituen: kontrol minimodun eredu, adin, sexu eta hasierako minaren intentsitatearekiko kontrolatua (1. modeloa); eta guztiz kontrolatutako eredu, “nahaste aldagaiak” atalean aipatutako aldagai guztiekiko kontrolatua (2. modeloa). Analisi estatistiko guztiak *Statistical Analysis Software* (SAS) programaren 9.4. bertsioarekin egin genituen (SAS institutua, Cary, Ipar Carolina, EEBB).

#### **3.1.2.5. Etika**

NFAK akordio bat dauka Danimarkako Datuen Babeserako Agentziarekin galdetegietan oinarritutako ikerketetako datu guztiak bere egoitza nagusian gordetzeko. Daniar legearen arabera, galdetegietan oinarritutako ikerketek ez dute behar partaideen baimen informaturik ezta etika batzordearen onarpenik ere. Datu guztiak era anonimoan analizatu ziren.

#### **3.1.2.6. Finantzazioa**

Tesiko lehenengo helburuari erantzuteko ikerketa hau burutu genuen bitartean Eusko Jaurlaritzak finantzatutako doktoretza-aurreko kontratua izan nuen (kodea: PRE\_2021\_2\_0056), eta Danimarkako egonaldia Eusko Jaurlaritzaren “Egonlabur” programako laguntza bati esker egin nuen (kodea: EP\_2022\_1\_0013). Bestalde, ikerketa proiektua Andersen doktoreak jasotako Danimarkako Lan Ingurumenerako Ikerketa Diru Laguntza (*Arbejdsmiljøforskningsfonden*) baten bitartez egon zen finantzatua (kodea: 26-2015-09).

## **3.2. Bigarren helburuari erantzuteko metodoak**

“Goiko eta beheko gorputz-adarretako eta enborreko funtzio muskularra online modalitatean eta gainbegiratze sinkronoarekin baloratzeko probak baliozkotu”.

### **3.2.1. Ikerketaren testuingurua**

Hirugarren helburuaren metodoetan sakonago azalduko den bezala, tesi honen hasieran COVID-19ko pandemiak eztanda egin zuen. Birusaren sakabanatzea ekiditeko helburuarekin, pertsonen arteko distantzia fisikoa mantentzeko zenbait neurri ezarri ziren garai horretan, bereziki zorrotzak izan zirenak pertsona nagusien zainketen esparruan. Ondorioz, aurrez-aurreko ariketa fisikoko programa egitea ezinezkoa genuen, eta esku-hartzea online formatura moldatzea erabaki genuen. Esku-hartzea osorik online modalitatean egin ahal izateko, lehenik eta behin esku-hartzearen eraginak online neurtzeko tresna bat behar genuen. Galdetegi bitartez jaso zitekeen informazioaren kasuan (adibidez, mina) arazorik ez zegoen bitartean (*Google Forms* bezalako plataformak erabili ahal ziren, esaterako), funtzio muskularraren online balorazioak erronka bat suposatzen zuen.

Lehenik eta behin literaturaren berrikuspen sakona egin genuen, gure helburuei begira erabilgarria izan zitekeen tresna baliozkoturik ote zegoen ikusteko. Tesi honetako aurrekari nagusien atalean aipatu den bezala mugikorrerako aplikazio eta antzekoak ugariak ziren arren, gainbegiratze sinkronoa erabiltzen zuten funtzio muskularreko online probak oso murrizak ziren. Gainera, guztiak arazo muskuloeskeletiko edo patologia espezifikodun kasuetara bideratuak zeuden, eta gehienetan lagin txikiekin eta kalitate metodologiko kaskarrekin baliozkotuak. Momentu horretan COVID-19ko pandemia garaian geunden, eta ikerketarekin aurrera jarraitu ahal izateko, zenbait egilek funtzio muskularraren online baloraziorako metodo berriak edota jada existitzen zirenen moldaketak proposatzen zituzten, baina inolako baliozkotzerik gabe. Gauzak horrela, gure baliozkotze propioa egitea ezinbestekoa zela erabaki genuen, eta tesiaren bigarren helburu honi erantzuteko ikerketa abian jarri genuen.

### **3.2.2. Proben aukeraketa eta prozeduren finkatzea**

Tesiaren helburuei erreparatuz, erabaki genuen baliozkotuko ziren funtzio muskularreko probek hurrengo baldintzak bete behar zituztela:

- Gihar talde nagusi guztien funtzioa neurtu behar zuten: beheko gorputz-adarrak, goiko gorputz-adarrak eta enborra.
- Lan egoera aktiboan egon zitekeen biztanleria heldu osoarentzat baliagarriak izan behar ziren: 18-65 urte.
- Inolako materialen beharrik ez, eta administrazio azkar eta erreza eduki behar zuten.





Hiru ezaugarri hauekin, gure proiektuaz gain proba hauek etorkizuneko beste zenbait ikerketa eta egoera klinikoetan ere erabilgarriak izatea nahi genuen.

Ezaugarri hauek kontuan edukita, berrikuspen bibliografiko berria abiatu genuen, aurrez-aurreko modalitate konbentzionallean jada baliozkotuak zeuden probak identifikatzeko (proba “berriak” asmatu/sortu beharrean), online modalitatera moldatzeko aukera zutenak. Identifikatutako probak hurrengoak izan ziren:

- Beheko gorputz-adarrentzako: *5-repetition sit-to-stand* (5RSTS) (Guralnik eta lank., 1994) eta *30-second Chair Stand* (30SCS) (Rikli eta Jones, 2001) probak.
- Goiko gorputz-adarrentzako: *Kneeling push-up* (KUP) proba (ACSM, 2018).
- Enborrentzako: *Shirado-Ito trunk flexor endurance* (SIF) proba (Ito eta lank., 1996).

Identifikatutako proba hauek online eginda zuten fidagarritasuna aztertzeko ikerketa pilotu bat egin genuen. Partaideak ikerketa taldearen ingurunean bildu genituen, eta guztira 14 pertsonak (bederatzi emakume eta bost gizon) hartu zuten parte, batez besteko adina 34 urtekoa izanik (tarte: 22-60 urte). Partaideek identifikatutako probak birritan errepikatu zituzten, 2-3 eguneko tartearekin, bideokonferentzia bitartez. Hau da, *Blackboard Collaborate* sistema (Blackboard Inc., Washington, DC, EEBO) erabiliz, eta ikertzailea eta partaidea leku desberdinetan kokatuta zeudelarik, ikertzaileak proba bakoitzaren exekuzioa erakusten zuen lehenengo, ondoren partaideak egin zezan. Partaidearen exekuzioa/emaitza zenbat eta antzekoagoa izan bi egunetan, probaren fidagarritasuna orduan eta altuagoa zela esan nahi zuen. Ikerketa pilotu honetako emaitzetan oinarrituta, beheko gorputz-adarrentzako 5RSTS probak 30SCS probak baino fidagarritasun altuagoa zuela ondorioztatu genuen (7. Irudia). Bestalde, goiko gorputz-adarrentzako eta enborrentzako, KPU eta SIF probek, hurrenez hurren, fidagarritasun onargarria zutela erabaki zen. Hortaz, behin betiko baliozkotze-ikerketarako aukeratutako probak 5RSTS, KPU eta SIF izan ziren.






**7. Irudia** Ikerketa pilotuko emaitzak. Puntu bakoitzak partaide bati egiten dio erreferentzia. Test: lehenengo balorazio eguna; Retest: 2-3 egunera errepikapena; ICC: intraclass correlation coefficient (zenbat eta altuagoa orduan eta fidagarritasun handiagoa adierazten du); CI: confidence interval. Iturria: guk egindakoa.

Hiru proba hauen behin betiko baliozkotze-prozedura aurrerago sakon deskribatuko den arren, azpimarratu beharra dago pilotaje fase honek, proben hasiera bateko fidagarritasuna aztertzeaz gain, hurrengoetarako balio izan zigula:

- Probak online modalitatera nola moldatu: adibidez, SIF proban enborraren posizioa ordenagailuaren pantailan ikus daitekeen saguaren kurtsorearekin kontrolatzea erabaki genuen, ukabilarekin egin beharrean (aurrez-aurreko modalitatean egiten dena, Juan-Recio eta lankideek (2014) proposatutakoaren arabera) (8. Irudia).

- Bideokonferentzia bitartez partaidearen ikuspen onena lortzeko neurriak erabaki: adibidez, ordenagailua partaidetik 1.5 metrora eta alboko ikuskapenarekin kokatzea erabaki genuen.
- Proben exekuzio ordena erabaki: ordena probek eragindako nekearen arabera ezarri genuen, exigentzia maila baxuenetik altuenera, proba bakoitzaren exekuzioak hurrengo probaren exekuzioan ahalik eta eragin txikiena izateko helburuarekin. Honen arabera erabakitako ordena hurrengoa izan zen: 5RSTS, KUP, SIF.
- Fidagarritasun hobea ahalbidetzeko neurri gehigarrien ezarpena: adibidez, SIF proban hasierako posizioa beti enborrharen flexio maximokoa izatea erabaki genuen, hobeto estandarizatzeko (probaren baliozkotze originalean ez da argibide zehatzik ematen (Ito eta lank., 1996)).
- Probak errepikatzeko denbora tarte egokienaren erabakia: adibidez, pilotajearen ikusi genuen batez ere KUP probak agujetak sortzen zituela hurrengo 2-3 egunetan, eta hortaz proben errepikapena zazpi egunera egitea erabaki zen, ordutegi ahalik eta berdintsuenean. Honek probak baldintza ahalik eta antzekoenetan errepikatzea baimenduko zigun gainera.



**8. Irudia** SIF proban enborrharen posizioa kontrolatzeko metodoak. A: Aurrez-aurreko modalitate konbentzionalean erabilia, ukabila bizkarraren behean kokatuz. Iturria: Juan-Recio eta lank., 2014. B: Tesi honetan online modalitatara adaptazioan erabilia, kurtsorea bizkarraren behean kokatuz. Iturria: Espin eta lankideetatik (2022) moldatua.

Bestalde, pilotaje honen aurretik egindako berrikuspen bibliografikoak, funtzio muskularreko probak baliozkotzeko kalitate handieneko prozedura metodologikoak ezagutzea baimendu zigun, eta ikerketa protokoloa aurrerago sakonduko den arren, behin betiko ikerketan hurrengo alderdiak analizatzea erabaki genuen:

- *Test-retest* fidagarritasunaz gain (aztertzaile batek partaide bera birritan edo gehiagotan ebaluatu), *inter-rater* fidagarritasuna ere (aztertzaile desberdinek partaide bera behin ebaluatu) aztertu.
- Fidagarritasunaz gain, funtzio muskularreko proben baliozkotasun konbergentea analizatu, proben emaitzen korrelazioa aztertuz zenbait aldagaiekin: hautemandako gaitasun fisikoa, jarduera fisikoa, osasuna eta mina.
- Online ebaluazio prozeduraren berritasuna zela eta, bideragarritasun aldagaiak neurtu: ebaluazioen iraupena, partaideen onargarritasuna eta kontrako gertakariak.

Azkenik, azpimarratu beharra dago ikerketa hau burutu zeneko garaian, pandemiaren une bortitzenekin bat eginez, proiektu hau berritasun handikoa izan zela. Izan ere, biztanleria heldu orokorrean baliozkotutako lehenengo funtzio muskularreko probak izan ziren, distantzian eta gainbegiratze sinkronoarekin egin ahal zirenak, momentuko egoeraren beharrei erantzuna emanez. Hurrengo orrialdeetan, behin betiko ikerketaren material eta metodoen xehetasunak emango dira.

### **3.2.3. Proben fidagarritasun eta bideragarritasunaren analisia**

#### **3.2.3.1. Partaideak**

Elur-pilota laginketa (ingelesez, *snowball sampling*) bitartez bildutako 96 pertsona heldu osasuntsuk hartu zuten parte ikerketan: 64 (32 emakume eta 32 gizon) *test-retest* fidagarritasun analisisian eta 32 (16 emakume eta 16 gizon) *inter-rater* fidagarritasun analisisian. Anlisi bakoitzean eta sexu bakoitzaren barruan, partaideak berdinki banatuta zeuden lau adin tartetan: 18-29, 30-39, 40-49, eta 50-65 urte, hurrenez hurren. Laginketa Koo eta Li-ren (2016) gidetan oinarritu zen, non gutxienez 30 partaideko lagin heterogeneoak proposatzen diren urrezko arau bezala fidagarritasun ikerketetan. Honek *test-retest* fidagarritasun analisia emakume eta gizonetan banatuta egitea eta *inter-rater* fidagarritasun analisia era independentean egitea baimendu zigun.

Barneratze irizpideak 18 eta 65 urte arteko adina izatea eta kamera eta Internet konexiodun ordenagailu eramangarria edukitzea izan ziren. Kanporatze irizpide bakarra funtzio muskularreko proben exekuzioa baimenduko ez zuen edozein baldintza muskuloesketiko edukitzea izan zen.

### **3.2.3.2. Hasierako galdetegiak**

Funtzio muskularreko probetan parte hartu aurretik, partaideek online galdetegi bat erantzun zuten, *Google Forms* aplikazioaren bitartez, hurrengo informazioa biltzen zuena (1. Eranskina):

#### Datu soziodemografikoak

- Adina: urteak.
- Sexua: emakumea edo gizona.
- Altuera: zentimetroak.
- Pisua: kilogramoak
- Egoera sozio-profesionala: ikaslea, langilea/langabezia edo jubilatua.
- Bideokonferentzia sistemak erabiltzeko ohitura, proben bideragarritasun eta fidagarritasunean izan zezakeen eragina dela eta, hurrengo galderaren bitartez: “Ohituta al zaude, zure lanbide, ikasketa edo beste arrazoi batzuegatik, bideokonferentzia sistemak erregulartasunez erabiltzera?” (bai edo ez erantzuna).
- Ikerketan erabilitako probetan egiten diren mugimenduen antzeko indar ariketak egiteko ohitura, proben bideragarritasun eta fidagarritasunean izan zezakeen eragina dela eta, hurrengo galderaren bitartez: “praktikatzen al dituzu sentadilla, bular flexio edota abdominal moduko indar ariketak erregulartasunez?” (bai edo ez erantzuna).

#### Hautemandako gaitasun fisikoa

*International Fitness Scale* galdetegia erabili genuen (Ortega eta lank., 2013). Bost item ditu, bakoitzak gaitasun fisikoaren atal baten inguruan galdetzen duelarik: (1) gaitasun fisiko orokorra, (2) gaitasun kardiorrespiratorioa, (3) indar muskularra, (4) abiadura/bizkortasuna, eta (5) malgutasuna. Partaideek item bakoitzean norberaren gaitasun fisikoa puntuatu behar zuten, bost puntuko Likert motako eskala baten bitartez: 1=oso kaskarra, 2=kaskarra, 3=normala, 4=ona eta 5=oso ona. *International Fitness Scale* galdetegia osatzen duten bost itemek *test-retest* fidagarritasun egokia dute, 0.54 eta 0.65 artean kokatzen diren *Kappa* koefiziente haztatuekin (Ortega eta lank., 2013).

### Jarduera fisikoa

Jarduera fisikoaren baloraziorako *Physical Activity 8-response item* galdetegia erabili genuen, *test-retest* fidagarritasun bikaina duena (ICC=0.98) (Jackson eta lank., 2007; Koo eta Li, 2016). Partaideek zortzi esaldiren artean bakarra aukeratu behar zuten, haien aisialdiko ohiko jarduera fisikoa hoberen adierazten zuena. Esaldiak hurrengoak ziren:

1. Ez dut erregulartasunez ariketarik egiten/ibiltzen eta ez dut etorkizun hurbilean hasteko asmorik.
2. Ez dut erregulartasunez ariketarik egiten/ibiltzen baina horretan hasteko pentsatzen egon naiz.
3. Ariketa egiten/ibiltzen hasten saiatzen ari naiz edo noizbehinka baino ez dut ariketa egiten/ibiltzen.
4. Jarduera fisiko kementsua astean hiru bider baino gutxiago edo jarduera fisiko ertaina astean bost bider baino gutxiago egiten ari naiz.
5. Jarduera fisiko ertaina egiten egon naiz, gutxienez astean bost egun eta batez beste 30 minutu egunean, 1-6 hilabetez.
6. Jarduera fisiko ertaina egiten egon naiz, gutxienez astean bost egun eta batez beste 30 minutu egunean, zazpi hilabete edo gehiagoz.
7. Jarduera fisiko kementsua egiten egon naiz, gutxienez astean 3-5 egun eta 20 minutu egunean, 1-6 hilabetez.
8. Jarduera fisiko kementsua egiten egon naiz, gutxienez astean 3-5 egun eta 20 minutu egunean, zazpi hilabete edo gehiagoz.

### Bizi kalitatea

EuroQol-5D galdetegiko osasunarekin lotutako bizi kalitatearen 0-100 eskala erabili genuen (Szende eta lank., 2007). Partaideek haien osasun egoerari 0 eta 100 arteko balore bat eman behar zioten, “0=pentsatu daitekeen osasunik kaskarra” eta “100=pentsatu daitekeen osasunik onena” izanik. Eskala honen ezaugarri psikometrikoak bildu zituen berrikuspen sistematiko baten arabera (Cheng eta lank., 2021), populazio orokorrean *test-retest* fidagarritasuna aztertu duten ikerketetan 0.45-0.87 arteko ICCak aurkitu dira (Aburuz eta lank., 2009; Purba eta lank., 2018; Wang eta lank., 2012), fidagarritasun ertain-altua adieraziz (Koo eta Li, 2016).

## Mina


SF-36 galdetegiko “gorputz min” domeinua erabili genuen, *test-retest* fidagarritasun altua duena (ICC=0.78) (Brazier eta Lank., 1992; Koo eta Li, 2016). Bi Likert-erantzun motako itemek osatzen dute domeinua, azken lau asteetan zeharreko minaren intentsitatearen eta minaren lanarekiko interferentziaren inguruan galdetzen dituztenak, hurrenez hurren. Item hauen erantzunetatik 0 eta 100 arteko puntuazio bat kalkulatu da, puntuazio baxuagoek min handiagoa adierazten dutelarik.

### **3.2.3.3. Balorazio prozedurak**

Funtzio muskularreko probak 1:1 bideokonferentzia sinkrono bitartez egin genituen, *Blackboard Collaborate* sistema (Blackboard Inc., Washington, DC, EEBO) erabiliz, eta uneoro audio eta bideoa partekatuz aztertzaile eta partaidearen artean. Bideokonferentzia saiora sartzeko, partaideek aurretik jasotako esteka bat sartu behar zuten haien web bilatzailean, eta behin barruan zehazenean sistemari audio eta bideoa partekatzen baimendu. Partaideei idatzizko argibideak bidali zitzaizkien, irudiekin batera, bideokonferentzia saiora nola sartu eta probak egiteko espazioa zelan prestatu azalduz (2. Eranskina). Partaideek 2x2 metroko espazio librea bilatu behar zuten, ondo argiztatua, eta ahal izatekotan pareta leunekin. 5RSTS probarako, aulki bat pareta edo antzeko azalera baten aurka kokatu behar zuten, eta ordenagailua altuera berdineko beste aulki baten gainean kokatu, 1.5 metrora eta alboko ikuspegi bat lortuz (9. Irudia, A1). KPU eta SIF probentzako, partaideek ordenagailua eta estera edo antzekoa lurrian kokatu behar zituzten, bata bestearengandik 1.5 metrora eta alboko ikuspegi bat lortuz berriz ere (9. Irudia, B1-C1).

Partaideei mugimendu librea baimentzen zuen kirol arropa eroso erabiltzea eskatu zitzaien, eta labainketak ekiditeko zapatila egokiak. Horrez gain, erreferentzia anatomikoen identifikazio egokia ahalbidetzeko, kamiseta estua eraman behar zuten, eta ile luzea edukitzekotan, jasotzea eskatzen zitzaien. Proben aurreko 24 orduetan jardura fisiko kementsurik ez egitea eskatu zitzaien, eta probak egin aurretik baldintza hau bete zela ziurtatzen zen. Probak beti ordena berdinean egin ziren: 5RSTS, KPU eta SIF. Proba bakoitza lehenik eta behin aztertzaileak azaldu eta egiten zuen adibide bezala, ondoren partaideak errepikatu zezan. Partaideek 2-3 minutuko atsedena zuten proba desberdinen artean, aztertzailearen hurrengo probaren azalpenekin bat eginez. Proben neke/exigentzia maila eta proben arteko atsedena denbora aurretik aipatutako pilotaje fasean ezarri

genituen, partaideen pertzepzio subjektiboan oinarrituta. Probak hasi aurretik ez zen inolako beroketarik egiten. Partaideei proben exekuzioan esfortzu maximoa jar zezaten eskatzen zitzaien, baina ez zitzaien ahoz animatzen probak egiten zituzten bitartean.



**9. Irudia** Ikerketako partaideetako bat funtzio muskularreko probak egiten: 5RSTS (A1,A2), KPU (B1,B2) eta SIF (C1,C2). A1-C1 partaidearen eta erabilitako materialaren kokapena erakusten dute, eta A2-C2 aztertzailaren ikuskapena ordenagailuaren pantailan. Iturria: Espin eta lank., 2022.

### 5RSTS proba

Proba hau aulki batetik bost aldiz ahalik eta lasterren altxa eta esertzean datza, eta beheko gorputz-adarretako indar-potentzia muskularra aztertzen du (Guralnik eta lank., 1994). Partaideak eserlekuaren aurreko erdian eseri behar ziren, bizkarra zuzen eta besoak bularrean gurutzatuta. Oinak lurrean guztiz bermatuta egon behar ziren, sorbalden zabaleran banatuta eta belaunak baino pixka bat atzerago (9. Irudia, A1-A2). Bost altxa-eserien abiadura eskuz neurtzen zen kronometro digital bat erabiliz. Kronometroa partaidearen ipurmasailak eserlekutik banatzen zirenean hasten zen, eta bostgarren errepikapenaren ondoren ipurmasailek berriz ere eserlekua kontaktatzen zutenean gelditu. Partaideak guztiz zutundu behar ziren errepikapen bakoitzean, aldakaren estentsio osoa lortu arte. Esertzerakoan, nahikoa zen ipurmasailek eserlekua ukitzearekin. Behin betiko proba hasi aurretik, partaideek gutxienez entsegu bat egiten zuten. Horren ondoren, partaideek proba birritan errepikatzen zuten, gutxienez 30 segundoko atsedena bitarte, eta bi saiakeren batez besteko denbora segundo eta ehunenetan erregistratzen zen. Iraupen laburragoa beheko gorputz-adarretako funtzio muskular hobearen indikatzaile da. Partaideek haien aulkia erabiltzen zuten, eserleku gogorra eduki behar

zuen eta beso-euskarririk gabekoa. 43 zentimetro inguruko eserleku-altueradun aukia erabiltzea eskatzen zitzaien arren, altuera zehatz horretako aukirik ez edukitzea ez zen kanporatze irizpidea. Partaide guztien eserlekuaren altuera erregistratu zen, batezbestekoa 44.6 (desbiderapen estandarra: 1.8) zentimetro izanik.

#### KPU proba

Proba hau belaunak lurrian bermatuta mantentzen diren bitartean bular flexio errepikapen kopuru ahalik eta handiena egitean datza, eta goiko gorputz-adarretako indar-erresistentzia muskularra aztertzen du (ACSM, 2018). Partaideak esteran buruz behera etzanda kokatu behar ziren, eskuak sorbaldeen azpian eta aurrerantz begiratu, eta orkatilak flexio plantarrean. Belaunen gainean pibotatu, partaideek haien gorputza altxatu behar zuten ukondoaren estentsio maximoa lortu arte (9. Irudia, B1-B2), eta posizio horretatik berriz ere jaitsi sudurrarekin estera ukitu arte, baina tripa bermatu gabe. Ez zen inolako argibiderik eman exekuzio abiaduraren inguruan. Behin betiko proba aurretik 1-2 errepikapen egiten ziren entsegu moduan, eta ondoren proba behin egiten zen. Behin betiko proba honetan, era jarraian, errepikapenen artean atsedetik gabe eta teknika egokiarekin egindako bular flexio kopuru totala erregistratzen zen. Lehenengo errepikapena partaideek haien gorputza bigarren aldiz altxatzen zutenean zenbatzen zen, eta errepikapen berri bat zenbatzen zen goiko posizioa bueltatzea lortzen zuten bakoitzean. Errepikapen kopuru handiagoa goiko gorputz-adarretako funtzio muskular hobeari indikatzaile da.

#### SIF proba

Proba hau enbor flexioko posizio zehatz bat ahalik eta denbora luzeenean mantentzean datza, eta enborreko indar-erresistentzia muskularra aztertzen du (Ito eta lank., 1996). Partaideak esteran buruz gora etzanda kokatu behar ziren, aldakak eta belaunak 90°ko flexioan, eskuak kontrako besoa helduz eta besaurreak gorputz gainean bermatuz. Posizio honetatik abiatuta, partaideek enbor flexio maximoa egin behar zuten, bizkarrezur zerbikalaren flexio maximoa ere mantenduz aldi berean. Enborren posizioa zehaztasunez kontrolatzeko, aztertzaileak ordenagailuaren pantailan ikus daitekeen saguaren kurtsorea erabiltzen zuen. Hasieran, partaidea guztiz etzanda zegoenean, kurtsorea esterarekin kontaktuan zegoen bizkarraren puntu kranialenean kokatzen zen (hau da, sorbaldeen kurbatura hasten den puntuan). Ondoren, partaideak enborren flexio maximoa egiten zuen eta aztertzailea eskuzko kronometro digitalaren bitartez



denbora zenbatzen hasten zen. Enbor flexioa egiten zenetik bost segundora, posizio egonkor bat ziurtatzen zenean, aztertzaileak kurtsorea bertikalki igotzen zuen partaidearen bizkarrarekin kontaktatu arte (9. Irudia, C2). Partaideari abisu mugagabeak ematen zitzaizkion enborreko gihar flexoreen nekearengatik bizkarra kurtsoretik behera erortzen zen bakoitzean. Aldaka eta belauneko angeluak ere ahoz zuzentzen ziren beharrezkoa zenean. Proba partaideek posizioa mantendu ezin zutenean bukatzen zen, edota aztertzaileak abisua ematerakoan hasierako enbor posiziora itzultzea lortzen ez zutenean. Abisu bakoitzean, partaideei jarraian enborren flexioa egitea eskatzen zitzairen, eta proba bukatutzat ematen zen ez bazuten abisutik hurrengo bi segundoetan hasierako posiziora bueltatzea lortzen. Partaideek enbor flexioko posizioa frogatzen zuten behin betiko proba hasi aurretik. Proba behin egiten zen, eta denbora totala segundotan erregistratzen zen. Iraupen luzeagoa enborreko funtzio muskular hobearen indikatzaile da.

#### Test-retest fidagarritasuna

*Test-retest* fidagarritasuna aztertzeko, probak zazpi egun beranduago errepikatu genituen partaide berdinekin, antzeko orduan, egoera ahalik eta berdintsuena bermatzeko. Proba guztiak aztertzaile berak egin zituen, prestatutako laborategi batean kokatuta zegoena, zuntz optikodun Internet konexioa zuen ordenagailua erabiliz (abiadura teoriko maximoa: 1 Gbps simetrikiko). Partaideak haien etxean (%89) edo lantokian (%11) kokatuta zeuden, Wi-Fi konexiodun ordenagailua erabiliz.

#### Inter-rater fidagarritasuna

*Inter-rater* fidagarritasuna ebaluatzeko, lau aztertzaile desberdin barneratu ziren ikerketan (*test-retest* analisiko aztertzailea eta beste hiru). Aztertzaile kopuruaren erabakia Koo eta Li-ren (2016) gidan oinarritu zen, non gutxienez hiru aztertzaile barneratzea gomendatzen den. *Inter-rater* analisi honetan barneratutako aztertzaile berriek hiru orduko trebatze saioa jaso zuten, proben protokoloa eta ebaluazio irizpideak sakontasunez ikas zitzairen. Aztertzaile bakoitzak zortzi partaide ebaluatu zituen behin. Ebaluazio hauek grabatu egin ziren eta jarraian gainerako aztertzaileekin partekatu, haiek ere analizatu zitzairen. Aztertzaile guztiak gainerako aztertzaileen ebaluazioekiko itsuak ziren, eta grabazioa behin baino ezin zuten erreproduzitu, ebaluazio sinkrono bat ahalik eta hoberen simulatzeko. SIF proban alborapenak ekiditeko, *inter-rater* analisiko partaideek abisuak jasotzen jarraitu zuten etengabe nahiz eta hasierako enbor flexio posizioa ezin berreskuratu, haien kabuz proba gelditzen zuten arte.

Ebaluazio hauean, aztertzaileak haien etxean (%69) edo lantokian (%31) kokatuta zeuden, haien ordenagailu pertsonalak erabiliz Wi-Fi konexioarekin (1-4 aztertzaileen abiadura maximo teorikoa, ordenan: 1 Gbps, 600 Mbps, 600 Mbps, 1 Gbps). Antzera, partaideak haien etxean (%81) edo lantokian (%19) kokatuta zeuden, Wi-Fi konexiodun ordenagailua erabiliz ere.

#### **3.2.3.4. Bideragarritasun aldagaiak**

Bideragarritasunarekin lotutako aldagai guztiak aztertzaileak bildu zituen, proben emaitzak jasotzeko erabilitako orri berean (3. Eranskina).

##### Ebaluazioen iraupena

Proba bakoitzaren iraupena minutuetan erregistratu zen. Probaren hasiera aztertzailea azalpenak ematen hasten zen momentuan ezarri zen, eta probaren bukaera partaideak probaren exekuzioa bukatzen zuenean. Ebaluazio iraupen totala kalkulatzeko hiru proba indibidualen iraupenen batuketa egin zen.

##### Partaideen onargarritasuna

Partaideek hurrengo sei esaldiekiko adostasun maila adierazi behar izan zuten bost-puntuko Likert motako eskala baten bitartez, “1=guztiz desados” eta “5=guztiz ados” izanik:

- Bideokonferentzia sistema: Erabilitako bideokonferentzia sistema maneiatzeko erreza da.
- Komunikazioaren kalitatea: Aztertzailearekin komunikazioa egokia izan da.
- Baliabideen prestaketa: Probak egiteko espazioa prestatzea erreza izan da.
- Proben erraztasuna: Erabilitako probak ulertzeko eta egiteko errazak dira.
- Proben iraupena: Probak egiteko erabilitako denbora onargarria/zentzuzkoa da.
- Bideragarritasun orokorra: Orokorrean, uste dut proba hauek bideokonferentzia bidez egitea bideragarria dela.

Informazio hau lehenengo ebaluazio egunean jaso zen, probak bukatu bezain laster. Partaidearen adostasun maila maximoa ez zenean (<5), erantzuna arrazoitzea eskatu zitzaion.

### Kontrako gertakariak

Kontrako gertakariak lehenengo ebaluazio egunean jaso ziren, eta bi motatan banatu genituen:

- Teknikoak: konexio/operazio arazoak bideokonferentzia sistemarekin.
- Partaidearen segurtasunarekin lotuak: proben exekuzioaren bitartean agertzen zen min, ondoez fisiko edo osasunarekin lotutako beste edozein arazo.

Gainera, larritasun mailaren arabera kontrako gertakariak bi multzotan sailkatu genituen:

- Arinak: proben garapenean zailtasun txikiak sortzen zituztenak.
- Larriak: proben garapena guztiz eragozten zutenak.

Horrez gain, probek sortutako agujeten agerpena erregistratu genuen, agujeta horien lokalizazio eta iraupen egunekin batera.

#### **3.2.3.5. Estatistika**

Datu jarraituak batezbestekoa  $\pm$  desbiderapen estandarra erabiliz adierazi genituen, eta datu kategorikoak frekuentzia eta ehunekoa erabiliz. Datu jarraituetan, distribuzioaren normaltasuna *Shapiro-Wilk* probaren bidez aztertu genuen, eta distribuzio normala ez zuten datuak erro karratuaren bidez eraldatu genituen analisi estatistikorako.

Fidagarritasun erlatiboa aztertzeko ICC eta bere %95-ko konfiantza-tartea erabili genituen. *Test-retest* analisirako ebaluazio-bakar, akordio-absolutu, norabide-bikoitzeko eragin mistoen ICC modeloa erabili genuen; eta *inter-rater* analisirako ebaluazio-bakar, akordio-absolutu, norabide-bikoitzeko zorizko eraginen ICC modeloa (Koo eta Li, 2016). ICC balioen arabera fidagarritasuna hurrengo kategoriatan banatu genuen: baxua (<0.5), ertaina (0.5-0.75), ona (0.75-0.9) eta bikaina (>0.9) (Portney eta Watkins, 2009).

Fidagarritasun absolutua aztertzeko neurketaren errore estandarra (ingelesez, SEM: *standard error of measurement*) erabili genuen. Zehazki, SEM neurketa errepikatuen ANOVA proban agertzen den batez besteko errore karratuaren erro karratu bezala kalkulatu genuen (Atkinson eta Nevill, 1998). Horrez gain, SEMaren bariantza koefizientea adierazi genuen, funtzio muskularreko proba bakoitzaren batez besteko balioarekiko SEM horren ehunekoa kalkulatu. Proba bakoitzaren batezbestekoa kalkulatzeko *test* eta *retest*

arteko batezbestekoa edo lau aztertzaileen ebaluazioen batezbestekoa erabili genituen *test-retest* eta *inter-rater* analisisietan, hurrenez hurren.

Funtzio muskularreko proben ikasketa eragin posibleagatik *test* eta *retest* artean desberdintasunik ote zegoen aztertzeko, lagin parekatuen T proba erabili genuen.

Bideragarritasun aldagaietan emakume eta gizonen arteko desberdintasunak aztertzeko, lagin independenteen T proba erabili genuen aldagai jarraituetan, eta *Chi*-karratu proba aldagai kategorikoetan.

Funtzio muskularreko proben korrelazioa hautemandako gaitasun fisiko, jarduera fisiko, osasun egoera eta minarekin kalkulatzeko, *Pearsonen* korrelazio partzialeko koefizientea (*r*) erabili genuen, adinarekiko kontrolatuz. Korrelazio hauen kalkulurako, proben *test* eta *retest* arteko edo lau aztertzaileen arteko batez besteko balioak erabili genituen berriz ere. Korrelazio mailak *r* balioaren arabera hurrengo kategorietan sailkatu genituen: baztergarria (0.0-0.3), baxua (0.3-0.5), ertaina (0.5-0.7), altua (0.7-0.9) eta oso altua (>0.9) (Hinkle eta lank., 2003).

Analisi guztiak emakume eta gizonetan era independentean egin genituen, *inter-rater* fidagarritasun analisia izan ezik. Adierazgarritasun estatistikoaren maila  $p < 0.05$ an ezarri zen, eta analisi guztiak Windowserako *IBM SPSS Statistics* programaren 24.0 bertsioa erabiliz egin ziren (IBM korp., Armonk, NY, EEBA).

#### **3.2.3.6. Etika**

Tesiko bigarren helburu honi erantzuteko ikerketa proiektuak UPV/EHUko Gizakiekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordearen (GIEB) oniritzia jaso zuen, M10\_2020\_324 kodearekin (4. Eranskina). Partaide guztiek idatzizko baimen informatua eman zuten ikerketan parte hartu aurretik. Horrez gain, partaideek haien bideo-grabazio edo argazkiak egin eta helburu zientifikoekin erabiltzeko baimen informatua sinatu zuten.

#### **3.2.3.7. Finantzazioa**

Tesiko bigarren helburuari erantzuteko ikerketa hau burutu genuen bitartean Eusko Jaurlaritzak finantzatutako doktoretza-aurreko kontratua izan nuen (kodea: PRE\_2020\_2\_0163), eta Ageing On ikerketa taldean Euskal Herriko Unibertsitatearen diru-laguntza jaso genuen (kodea: GIU20/06).

### **3.3. Hirugarren eta laugarren helburuei erantzuteko metodoak**

“Zaintzaileetan bideokonferentzia bitartez gainbegiratutako 12 asteko taldeko ariketa fisikoko esku-hartze baten eraginak aztertu min lunbarrean, bigarren mailako aldagai bezala beste gorputz-ataletako mina, parametro psikoafektiboak eta funtzio muskularra ezarriz”.

“12 asteko esku-hartzearen epe luzeko eraginak aztertu min lunbarrean 48 astera egindako balorazioen bitartez, bigarren mailako aldagai bezala beste gorputz-ataletako mina, parametro psikoafektiboak, funtzio muskularra, eta lanarekin lotutako aldagaiak ezarriz”.

#### **3.3.1. Ikerketaren testuingurua**

Hirugarren eta laugarren helburuak tesi honetako ikerketa galdera nagusiak direla esan daiteke, eta horiei erantzuna emateko esku-hartzearen diseinu, planifikazio, ezarpen eta analisiak tesiaren garapenaren barruan denbora tarte eta lan handiena suposatu dute.

Aipatu beharra dago tesiaren hasieran, 2020ko urtarrilean zehazki, aurrez-aurre garatutako ariketa fisikoko esku-hartze pilotu bat jarri genuela martxan. Izan ere, tesiaren hasiera bateko asmoa ariketa programa ohiko modalitate presentzian egitea zen. Gauzak horrela, Bilboko *Grupo Servicios Sociales Integrados (SSI) S. Coop* taldeko 20 langilerekin pilotaje moduan erabiliko genuen lehenengoko ausazko entsegu kontrolatu bat hasi genuen. *Grupo SSI* Bilboko kooperatiba bat da, besteak beste haien etxean menpekotasun eta zaugarritasun egoeran bizi diren pertsona nagusiei bideratutako zerbitzuak ematen dituen, etxeko laguntza zerbitzuen bitartez. Pilotu honetan parte hartu zuten zaintzaile guztiak emakumeak ziren, 54 urteko adinekoak batez beste. 20 partaideak 1:1 ratioan bi taldetan banatu ziren zoriz: talde esperimentala (n=10) eta kontrol taldea (n=10).

Laburki, talde esperimentaleko partaideek 12 asteko iraupeneko gihar indartze programa indibidualizatu eta progresibo batean hartu zuten parte. Partaideak astean birritan elkartzen ziren UPV/EHUko Bilboko Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusian egokitutako espazio batean (10. irudia). Saioek 45 minutuko iraupena zuten, fisioterapeuta batek gainbegiratzen zituen aurrez-aurre, eta goiko eta beheko gorputz-adar zein enborreko gihar nagusiak lantzeko indar ariketak egiten ziren zirkuitu formatuan. Kontrol taldeko partaideek, ordea, ez zuten inolako esku-hartzerik jaso eta haien ohiko bizimoduarekin jarraitzeko indikazioa jaso zuten.



**10. Irudia** Grupo SSrekin egindako pilotajeko partaideak ariketa saio batean UPV/EHUko Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusian. Iturria: guk hartutako argazkia.

Programak bideragarritasun eta partaideen asebetetze egokiak erakutsi zituen. Izan ere, ez zen inolako kontrako gertakaririk identifikatu, talde esperimentaleko bederatzita partaidek (%90) erregulartasunez parte hartu zuten esku-hartzean, eta saioen %72ra bertaratu ziren batez beste, parte-hartze eta atxikipen altuak adieraziz. Horrez gain, partaideek subjektiboki ariketak lagungarri sentitzen zituzten eta pozik bertaratu ziren saioetara. Hala ere, programa bukatzeaz zegoenean, bederatzigarren astean hain zuzen ere, COVID-19ko pandemiagatik alarma egoera dekretatu zen Estatu mailan, eta esku-hartzea gelditu behar izan genuen.

Programaren eraginak neurtzeko ideiarekin minaren, egoera psikoafektiboaren eta funtzio muskularraren inguruko informazioa jasotzeko zenbait galdetegi eta proba erabili genituen arren, hauek ezin izan ziren osotasunean errepikatu programa gelditu zenean. Alarma egoeratik eratorritako aldentez fisikoko neurriak zirela eta, ezinezkoa zen balorazioak egiteko aurrez-aurreko bilerak antolatzea, eta horregatik irtenbideak bilatzen saiatu ginen. Esaterako, galdetegiak online formatuan egin ziren (*Google Forms* plataformaren bitartez), eta funtzio muskularraren inguruko informazioa jasotzeko, partaideei haien burua proba fisikoak egiten grabatzea eskatu zitzaion. Zoritxarrez, ziurrenik garai horretan (eta bereziki zaintzaile profesionalen esparruan) bizi izan ziren momentu zailak zirela eta, programa ondorengo balorazio hauetako parte-hartzea nahiko baxua izan zen. Esaterako, kontrol taldean 10 pertsonatik hiruk baino ez zuten online galdetegi bete, konparaketa talde honen datuak ia erabilezin bilakatu. Hala ere, talde esperimentalean ikusitako emaitza

objektiboek (10 partaidetik zortzik osatu zuten online galdetegia) pertzepzio itxaropentsua sortzen zuten, ordura arte subjektiboki jasotako sentsazio positiboekin bat zetorrena (1. Taula).

**1. Taula** Grupo SSirekin egindako pilotajeko talde esperimentalaren aldaketa adierazgarrienak. Datuak batezbesteko (desbiderapen estandar) bitartez adierazten dira.

<b>Aldagaia</b>	<b>Baseline</b>	<b>9. astea</b>	<b>Hobekuntza</b>
Min lunbarra (0-10) <sup>*a</sup>	3.3 (3.4)	1.8 (2.4)	%45
Gorputz mina (0-100) <sup>b</sup>	73.5 (23.6)	81.5 (17.6)	%11
Osasun orokorra (0-100) <sup>b</sup>	58.8 (14.9)	64.5 (8.9)	%10
Osasun mentala (0-100) <sup>b</sup>	75.0 (26.6)	75.6 (17.0)	%1
Lan egiteko gaitasuna (0-10) <sup>c</sup>	8.4 (1.2)	9.3 (0.9)	%11
Laneko errendimendua (0-10) <sup>d</sup>	8.3 (1.0)	9.5 (0.5)	%14
Beheko gorputz-adarretako funtzio muskularra (s) <sup>*e</sup>	7.3 (0.9)	5.5 (0.9)	%25

s: *segundoak*; \* *Balore baxuagoak hobeak dira*; <sup>a</sup> *11-puntuko eskala numerikoa*; <sup>b</sup> *SF-36ko domeinu espeziifikoak*; <sup>c</sup> *Work Ability Score*; <sup>d</sup> *Health and Work Performance Questionnaire*; <sup>e</sup> *5RSTS proba*.

Momentu honetan harrera ona erakutsi zuen eta min lunbarra murrizteko eraginkorra zirudien tresna bat geneukan esku artean, baina ezinezkoa zen praktikan jartzea indarrean zeuden aldentze fisikoko neurriak zirela eta. Horregatik, eta literatura zientifikoan aztertzeaz zegoen aspektua zela kontuan edukita, ariketa fisikoko esku-hartzea online formatura egokitzea erabaki genuen. Horretarako aurreneko pausoa, tesi honetako bigarren helburuan aipatu den moduan, funtzio muskularra online baloratzeko probak baliozkotzea zen. Baina, horrez gain, ordura arte erabilitako esku-hartze prozeduran ere zenbait moldaketa egin behar genituen programa bideokonferentzia formatuarekin bateragarria izateko. Moldaketa horietatik tesi honetako behin betiko esku-hartze metodologia sortu genuen, hurrengo orrialdeetan zehar sakon deskribatuko dena. Behin betiko metodologiaren sorkuntzari begira, ikerketa pilotuak zenbait aspektutan lagundu gintuen, adibidez:

- Zaintzaileen kolektiboaren jarrerak, pertzepzioak, lehentasunak, gustuak, eta oztopoak ezagutaraztea baimendu zigun taldean egindako indar-ariketekiko.
- Ariketaren aldagai optimoak identifikatzea baimendu zigun: ariketa motak, intentsitateak, progresio eta indibidualizazioak...
- Esku-hartzearen eraginak neurtzeko tresna egokiaren identifikazioa baimendu zigun: galdetegi, test eta proba zehatzak.
- Online formatuko galdetegiarekin zaintzaileen kolektiboan lehendabiziko saiakera bat egitea baimendu zigun.

- Funtzio muskularra online baloratzeko era sinkronoan gainbegiraturako tresnen garapena beharrezkoa zelaz ohartzea baimendu zigun. Izan ere, ikusi genuen partaideei haien burua proba fisikoak egiten grabatzea ez zela fidagarria, batez ere exekuzio teknika egokia ez zelako.

Horrez gain, ariketa fisikoko programa online formatura egokitu ahal izateko zenbait aldaketa egitea beharrezkoa zela erabaki genuen, besteak beste:

- Ikerketa pilotuan indar ariketak zirkuitu eran egiten ziren. Hau da, partaide bakoitzak aldi berean ariketa desberdin bat egiten zuen, eta tarteka zirkuitu horretako “geltoki” desberdinak tartekatzen zituzten, zeinetako bakoitzean ariketa desberdin bat zegoen. Saioak bideokonferentzia bitartez gidatuta, iruditu zitzaigun modalitate hau ez zela bideragarria, eta partaide guztiek aldi berean ariketa berdina egin beharko zutela erabaki genuen.
- Aukeratutako ariketak sinpleak, eta ulertu eta exekutatzeko errazak izan beharko ziren, bideokonferentzia bitartez zuzenketak egitea zailagoa izango baitzen.
- Erabilitako materiala minimoa, merkea, arina eta bolumen txikikoa izan beharko zen. Izan ere, partaide guztiak aldi berean ariketa berdina egiten egon beharko zirenez, partaide kopuruaren material kopuru berdina erosi beharko zen. Horrez gain, materiala lantokietara bidali beharko zen.
- Programaren intentsitatea kontrolatzeko, auto-pertzepzioan oinarritutako metodoak erabili beharko genituen, ordura arte erabilitako *Repetition maximum* (RM) motako metodoen aldean.

Aipatu beharra dago prozedura guztiak prospektiboki erregistratu genituela ClinicalTrials.gov plataforman (kodea: NCT05050526), eta ikerketaren protokoloa argitaratu genuela *BMC Musculoskeletal Disorders* sarbide libreko aldizkarian, *Journal Citation Reports* arabera 2022. urtean 2.3ko inpaktu faktorea izan zuena eta 2. kuartilean zegoena *Orthopedics* kategorian (5. Eranskina).

### **3.3.2. Ikerketaren garapena**

#### **3.3.2.1. Diseinua**

Esleipen paraleloko, bi taldeko, ausazko entsegu kontrolatu multizentrikoa egin genuen. Partaideak pertsona nagusien zainketa zerbitzuak (bai etxean edo bai epe luzeko egoitzetan) ematen dituzten erakundeetatik bildu genituen. Partaideak errekrutatzeko,



lehenik eta behin erakunde/enpresa parte hartzaile posibleak identifikatzen genituen. Horiei parte hartzeko gonbidapen gutuna bidaltzen genien proiektuaren ezaugarri nagusiak azalduz. Interesa erakusten zuten erakundeetan bilera bat antolatzen genuen, normalean zuzendaritza taldearekin, ikerketa sakontasun handiagoarekin azaltzeko. Zuzendaritza taldeak ongi ikusia ematen bazuen, hurrengo pausoa proiektua zentroko zaintzaileei azaltzea izaten zen. Horretarako, COVID-19ko pandemiagatiko segurtasun neurriek baimentzen zutenean, aurrez-aurreko bilerak antolatzen genituen zentroetan, ikerketaren nondik norakoak azaldu eta partaideei galderak egiteko aukera emateko. Bilera hauetan parte-hartze ahalik eta handiena lortzeko, poster/diplotikoak prestatzen genituen zentroetan kokatzeko edota langileen artean banatzeko (6. Eranskina). Horrez gain, bileretara bertaratzeko zailtasunak zituzten partaideentzat, edota aldentze fisikoko neurriek zentroetara bertaratzeko ekiditen zutenean, bideo labur bat sortu genuen bilerako informazio laburtuarekin, enpresaren barne-komunikazio kanalen bitartez helarazten zena langileei (adibidez, enpresako posta elektronikoa edo *WhatsApp* taldeak). Erakunde bakoitzean, proiektua logistikoki bideragarria eta probetxagarria izateko, gutxienez 10 partaide egotea eskatzen zen ikerketa martxan jartzeko. Parte hartzen zuten erakunde hauekin, beharrezkoa zen UPV/EHUrekin ikerketarako hitzarmen bat sinatzea. Kasu batzuetan, aurretik egindako kolaborazioak zirela eta, hitzarmen hauek dagoeneko sinatuta zeuden. Beste batzuetan, berriak sortu behar izan ziren. Funtzionamendu honen bitartez zenbait erakunde gonbidatu eta errekrutatzen joan ginen, beharrezko lagina lortu arte. Azkenean, guztira, pertsona nagusien zainketak ematen dituzten sei erakundek hartu zuten parte proiektuan:

- Epe luzeko bost egoitza:
  - *Caser Residencial Betharram*, Hondarribia (Gipuzkoa)
  - *Fundación Aspaldiko*, Portugalete (Bizkaia)
  - *IMQ Igurco Orue*, Zornotza (Bizkaia)
  - *IMQ Igurco Azkuna*, Zornotza (Bizkaia)
  - *Colisée San Antonio*, Bilbo (Bizkaia)
- Etxeko zainketak kudeatzen dituen erakundea:
  - *Grupo SSI*, Bilbo (Bizkaia)

Erakunde hauetako bakoitzean, eta hasierako balorazioak egin ondoren, partaideak zoriz bideratu genituen talde esperimental edo kontrol talde batera. Banaketa hau 1:1 ratioan egin zen, txanpon-jaurtiketa bidezko sekuentziazioarekin eta kartazal opakuak erabiliz. Bi

taldeetako partaideek haien lantokietan erregulartasunez garatutako prebentzio programetan hartu zuten parte, eta talde esperimentalak aurrerago azalduko den ariketa fisikoko esku-hartze gehigarria jaso zuen. Laburki, esku-hartzea 12 asteko iraupeneko programa gainbegiratu batek eta beste 36 asteko jarraipen autonomo (ez-gainbegiratu) batek osatzen zuten (guztira 48 aste). Balorazioak hasieran (*baseline*), 12 astera (programa gainbegiratuaren ondoren) eta 48 astera (jarraipen autonomoaren ondoren) errepikatu ziren (2. Taula). Aztertzaileak eta datu analisia egiteko arduradunak itsuak izan ziren partaideen talde-esleipenarekiko. Ikerketaren izaera dela eta, ariketa fisikoko saioak gidatzen zituen profesionala eta partaideak itsutzea ez zen posible izan. Ikerketa protokoloa entsegu klinikoetarako SPIRIT gidak oinarri hartuta diseinatua eta deskribatua dago (Chan eta lank., 2013), eta emaitzak tratamendu ez-farmakologikoen esku-hartzeetarako CONSORT gomendioen arabera adieraziko dira (Boutron eta lank., 2017).

**2. Taula** Ikerketaren SPIRIT fluxu-diagrama. Espin eta lankideetatik (2023) moldatua.

	<i>Baseline</i> aurretik	<i>Baseline</i>	0 aste	12 aste	24 aste	36 aste	48 aste
<b>ERREKRUTATZEA</b>							
Aukeraketa irizpideak	X						
Baimen informatua	X						
Talde esleipena		X					
<b>ESKU-HARTZEAK*</b>							
KT: esku-hartze gehigarrik ez							
TE: programa gainbegiratua			◀────────▶				
TE: jarraipen autonomoa				◀────────────────────────────────▶			
<b>BALORAZIOAK</b>							
Hasierako datu deskriptiboak		X					
Aldagai nagusia + bigarren mailakoak		X		X			X
TE: jarraipen autonomo kontrola					X	X	X

\* Partaide guztiek haien lantokiko prebentzio programetan hartu zuten parte; KT: kontrol taldea; TE: talde esperimentalak.

### **3.3.2.2. Partaideak**

#### Lagin tamainaren kalkulua

Ikerketarako laginaren tamaina lan absentismoari dagokionez adierazgarria izan zitekeen min lunbarraren aldaketa detektatzeko kalkulatu genuen (Holtermann eta lank., 2010). Gure taldean aurretik zaintzaileekin egindako ikerketa batean, batez besteko 5.0ko min lunbarra (desbiderapen estandarra: 2.6) jaso genuen 11-puntuko minaren eskala numerikoan (Rodriguez-Larrad eta lank., 2019). Min lunbar hori kontuan edukita, eta 0.05ko alfa errorea eta 0.20ko beta errorea onartuz alde biko kontraste batean, 108 partaide ziren beharrezkoak  $\geq 1$  puntuko desberdintasuna identifikatzeko. Ikerketa bertan behera utz zezaketen partaideen kopuru posiblea aurreikusiz, laginaren tamaina %20 handitu genuen. Hortaz, beharrezko lagina 130 partaidekoa izan zen (65 talde esperimentalean eta 65 kontrol taldean).

#### Aukeraketa irizpideak

Barneratze irizpide bezala hurrengoak ezarri genituen:

- Pertsona nagusien zaintzaile profesionala izatea eta aktiboan egotea.
- $\geq 18$  urte edukitzea.
- $\geq 3$  hilabeteko esperientzia izatea lanbidean.
- Laneko kontratua edukitzea gutxienez ikerketaren bukaera data arte.

Kanporatze irizpide bezala hurrengoak izan genituen kontuan:

- Haurdun egotea.
- Ariketa fisikoko programan partaidetza kontraindikaturik egotea, *American College of Sports Medicine*ko gomendioen arabera (Riebe eta lank., 2015).


#### Partaideen ezaugarriak

Guztira 436 pertsona gonbidatu genituen ikerketan parte hartzera, eta horietatik 130k hartu zuten parte (%30ko partaidetza-tasa). 54 pertsonek (%12) ez zituzten aukeraketa irizpideak betetzen, eta beste 252 (%58) ez zuten parte hartu izan nahi.

130 parte hartzaileen artean, 124 (%95) emakumeak ziren, eta beste 6 (%5) gizonezkoak. Batez besteko adina 50 urtekoa zen (desbiderapen estandarra: 9; minimo-maximoak: 21-65). Zehazki, adin-tarte desberdinetako banaketa hurrengoak izan zen: <30 urte, 4 partaide

(%3);  $\geq 30$  eta  $< 40$  urte artean, 15 partaide (%12);  $\geq 40$  eta  $< 50$  urte artean, 36 partaide (%28);  $\geq 50$  eta  $< 60$  urte artean, 62 partaide (%48);  $\geq 60$  urte, 13 partaide (%10). Partaideen batez besteko esperientzia lanbidean 16 urtekoa zen (desbiderapen estandarra: 9; minimo-maximoak: 2-42).

11. Irudian zentro desberdinetako banaketa adierazten da. Ikus daitekeen moduan, 80 partaidek (%62) epe luzeko egoitzetan egiten zuten lan, eta beste 50 partaideak (%38) etxeko zainketa zerbitzuetan aritzen ziren (*Grupo SSI* kooperatiban).



**11. Irudia** Zentro bakoitzeko partaide kopurua eta lagin osoarekiko ehunekoa. Iturria: guk egindakoa.

### 3.3.2.3. Balorazioak

Balorazioak bi metodoren bitartez egin genituen: (1) idatzizko galdetegia (7. Eranskina) eta (2) funtzio muskularra aztertze probak.

#### Hasierako datu deskriptiboak

Partaideen datu deskriptiboak honela jaso genituen:

- Jaiotze data: eguna-hilabetea-urtea.
- Sexua: emakumea/gizona.
- Altuera: zentimetroak.
- Pisua: kilogramoak.

- Egoera zibila: ezkongabea/ezkondua/dibortziatua/alarguna.
- Hezkuntza maila: lehen/bigarren/hirugarren mailakoa.
- Seme-alaba kopurua: n.
- Seme-alabekin elkarbizitza etxean: bai/ez.
- Mendekotasuna duten pertsonen zainketa lan esparrutik kanpo: bai/ez.
- Lanordu kopurua astean: n.
- Esperientzia lanbidean: urteak.
- Lan-txanda patroia mota: finkoa/aldakorra.
- Gaueko txandak: bai/ez.
- Alkohol kontsumoa: inoiz ez/hilabetero edo gutxiago/hilabetean 2-4 aldiz/astean 2-3 aldiz/astean  $\geq 4$  aldiz (Saunders eta lank., 1993).
- Tabako kontsumoa: egunero/egunero baino gutxiago/inoiz ez (Palipudi eta lank., 2016).
- Aisialdiko jarduera fisiko maila: 1-8 artean (*Physical Activity 8-response item* galdetegia), zenbaki altuagoak jarduera fisiko maila altuagoa adierazten duelarik (Jackson eta lank., 2007).
- Indar-eraketak erregulartasunez egiteko ohitura: bai/ez.

### Aldagai nagusia

Aldagai nagusia azkeneko zazpi egunetan zeharreko batez besteko min lunbarraren intentsitatea izan zen, 11-puntuko eskala numerikoaren bitartez jasoa (Williamson eta Hoggart, 2005), eta lagin tamainaren kalkulurako erabilia. Eskala honen baliozkotasun eta fidagarritasuna lehenengo helburuaren metodologian zehaztu da. Laburki, eskala honen bitartez partaideek haien min lunbarraren intentsitateari 0 eta 10 arteko balio bat eman behar zioten, “0=inolako minik ez” eta “10=pentsa daitekeen minik okerrera” izanda.

### Bigarren mailako aldagaiak

#### *Min muskuloeskeletikoa*

Azkeneko zazpi egunetan zeharreko min muskuloeskeletikoaren inguruko informazio gehigarria lau gorputz-ataletan jaso zen era independentean: (1) bizkarrezur lunbarra, (2) zerbikala, (3) sorbaldak eta (4) esku/eskumuturrak. Informazio gehigarri hau hurrengo aldagaiak osatzen zuten:

- Minaren intentsitatea: batez besteko intentsitatea eta intentsitate maximoa jaso ziren, aurretik aipatutako 11-puntuko eskala numerikoaren bitartez (Williamson eta Hoggart, 2005).
- Minaren maiztasuna: hurrengo galderaren bitartez jaso zen: “Azkeneko zazpi egunetan zehar, zenbat egunetan izan duzu mina (bizkarrezur lunbar/zerbikal/sorbalda/esku-eskumuturretan)?”. Erantzun posibleak 0 eta 7 artean ziren.
- Minaren interferentzia: hurrengo galderaren bitartez jaso zen: “Azkeneko zazpi lanegunetan zehar, zenbat lanegunetan oztopatu dizu (bizkarrezur lunbar/zerbikal/sorbalda/esku-eskumuturretako) minak zure lana normaltasunez egitea?”. Erantzun posibleak 0 eta 7 artean ziren.
- Minarentzako sendagaien kontsumoa: informazio hau minarentzat orokorrean galdetu zen, lokalizazio anatomiko desberdinetan banaturik galdetu beharrean. Zehazki, hurrengo galderaren bitartez jaso zen: “Azkeneko zazpi egunetan zehar, zenbat egunetan hartu duzu sendagai analgesikoren bat mina baretzeko?”. Erantzun posibleak 0 eta 7 artean ziren.

#### *Parametro psikoafektiboak*

- Zoriontasuna: *Lyubomirsky*ren zoriontasun subjektiboaren eskalaren bitartez jaso zen (Lyubomirsky eta Lepper, 1999). Eskalak lau item ditu, hautemandako zoriontasun mailaren inguruan galdetzen dutenak eta 1-7 arteko Likert motako aukeren bitartez erantzuten direnak. Lau item horien erantzunen batezbestekoa kalkulatu da, 1-7 arteko puntuazioa lortuz, balore altuagoek zoriontasun handiagoa adierazten dutelarik. *Test* eta *retest* arteko hainbat denbora eperekin egindako analisisetan, eskala honek 0.55 eta 0.90 arteko egonkortasun koefizienteak (*Pearson*en “r”) azaldu ditu (Lyubomirsky eta Lepper, 1999), *test-retest* fidagarritasun ertain-oso altua adierazten duena (Hinkle eta lank., 2003).
- Antsietate eta depresioa: *Goldbergen* eskalen bitartez jaso ziren (Goldberg eta lank., 1988). Bi eskala independente dira, azken hilabeteetan zehar antsietate eta depresioarekin lotutako sintomatologia baloratzeko, hurrenez hurren. Eskala bakoitza bederatzi item dikotomikok (bai/ez erantzuna) osatzen dute. Eskala bakoitzeko erantzunak batzen dira (“bai” erantzun bakoitzak puntu bat gehitzen du), 0 eta 9 arteko bi puntuazio lortuz, balore altuagoek antsietate eta depresio maila altuagoak adierazten dituztelarik. Eskala hauen *test-retest*

fidagarritasunaren analisisirik ezagutzen ez dugun arren, nahasmendu psikiatrikoa duten pertsonak detektatzeko %86ko sentikortasuna eta %91ko espezifikotasuna dutela frogatuta dago (Goldberg eta lank., 1988).

- *Burnout*: langile errearen sindrome bezala ere ezagutua, *burnout* sintomatologia *Maslach Burnout Inventory* galdetegiaren bitartez jaso zen (Maslach eta lank., 1997). Guztira 22 item dituen galdetegia da, *burnout*arekin lotutako sentimenduen maiztasunaren inguruan galdetzen duena. Item bakoitza Likert motako aukeren bitartez erantzuten da, “0=inoiz ez” eta “6=egunero” artean mugitzen direnak. 22 itemek hiru azpieskala osatzen dituzte, bakoitzak *burnout*arekin lotutako domeinu desberdinak neurtzen dituelarik: neke emozionala, despertsonalizazioa eta errealizazio pertsonala. Hiru azpieskala hauek 0.82, 0.60 eta 0.80ko *test-retest* fidagarritasun koefizienteak dituzte, hurrenez hurren (Maslach eta lank., 1997). Egileek fidagarritasun koefiziente hori kalkulatzeko erabilitako proba estatistiko zehatza aipatzen ez duten arren, korrelazio maila horiek ertain-altutzat har daitezke orokorrean (Hinkle eta lank., 2003). Azpieskala bakoitzaren puntuazioa honela kalkulatzen da:
  - Neke emozionala: bederatzi item. Erantzunak batzen dira, 0-54 arteko puntuazioa lortuz, balore altuagoek neke emozionalari lotutako *burnout* handiagoa adierazten dutelarik.
  - Despertsonalizazioa: bost item. Erantzunak batzen dira, 0-30 arteko puntuazioa lortuz, balore altuagoek despertsonalizazioari lotutako *burnout* handiagoa adierazten dutelarik.
  - Errealizazio pertsonala: zortzi item. Erantzunak batzen dira, 0-48 arteko puntuazioa lortuz, balore baxuagoek errealizazio pertsonalari lotutako *burnout* handiagoa adierazten dutelarik.
- Bizi kalitatea: EuroQol-5D galdetegiko 0-100 osasun eskalaren bitartez jaso zen, tesi honetako bigarren helburuaren metodologian deskribatu dena (Szende eta lank., 2007). Item bakarra da, non partaideak norberaren osasun egoerari puntuazio bat eman behar dion, “0=pentsatu daitekeen osasunik kaskarrena” eta “100=pentsatu daitekeen osasunik onena” izanda.
- Loaren kalitatea: *Single-Item Sleep Quality Scale* bitartez jaso zen (Snyder eta lank., 2018). Item bakarra da, azkeneko zazpi egunetan zeharreko loaren kalitate orokorra neurtzen duena, “0=oso txarra” eta “10=bikaina” artean. Insomnio eta depresiodun pazienteetan, hurrenez hurren, 0.62 eta 0.74-ko *test-retest* ICCak

ditu eskalak (Snyder eta lank., 2018). Balore horiek fidagarritasun maila ertaina baino adierazten ez duten arren (Koo eta Li, 2016), item bakarrean oinarritutako eskala hau baliagarri eta bereziki abantailatsua da ikerketa esparruan loaren kalitatea neurtzeko beste ohiko eskala luzeagoekin alderatuz (Snyder eta lank., 2018).

- Sendagai hipnotiko/antsiolitikoaren kontsumoa: hurrengo galderaren bitartez jaso zen: “Azkeneko zazpi egunetan zehar, zenbat egunetan hartu duzu sendagairen bat lo egiteko edo antsietatearentzako? (hipnotikoak, antsiolitikoak...)”. Erantzun posibleak 0 eta 7 artean ziren.

#### *Lanarekin lotutako aldagaiak*

- Lan egiteko gaitasuna: *Work Ability Score* bitartez jaso zen (El Fassi eta lank., 2013). Item bakarra da, zeinetan partaideak momentuan hautemandako norberaren lan egiteko gaitasuna baloratzen duen, “0=lan egiteko guztizko ezgaitasuna” eta “10=bizitza osoko lan egiteko gaitasunik onena” artean mugitzen den eskalan. Min muskuloeskeletikoa duten langileetan, *Work Ability Score* honek 0.89ko ICCa dauka (Stienstra eta lank., 2022), *test-retest* fidagarritasun altua adieraziz (Koo eta Li, 2016).
- Laneko errendimendua: Munduko Osasun Erakundearen *Health and Work Performance Questionnaire* galdetegiaren item bakarreko neurketa globalaren bitartez jaso zen (Kessler eta lank., 2003), 0.59ko *test-retest* ICCa erakutsi duena (Leggett eta lank., 2016), fidagarritasun ertaina adieraziz (Koo eta Li, 2016). Item honek azkeneko zazpi egunetan zehar hautemandako laneko errendimendua baloratzen du, “0=imajinatu daitekeen errendimendurik kaskarrena” eta “10=imajinatu daitekeen errendimendurik onena” artean mugitzen den eskalan.
- Lanean hautemandako esfortzu fisikoa: *Borgen* hautemandako esfortzu fisikoaren CR-10 eskalaren bitartez jaso zen, *test-retest* fidagarritasun bikaina duena (ICC=0.90) (Koo eta Li, 2016; Shariat eta lank., 2018), eta aspalditik laneko esfortzu fisikoa neurtzeko erabili izan dena (Borg, 1990). *Borgen* CR-10 eskala item bakarrean datza, zeinetan partaideak azkeneko zazpi lanegunetan zehar hautemandako ohiko esfortzu fisikoa baloratzen duen, “0=guztizko atsedena” eta “10=esfortzu oso kementsua, ia maximoa” artean mugitzen den eskalan.



- Laneko absentismoa: bi denbora tarteko baja egunak erregistratu ziren; (1) ikerketa hasi aurrekoak (-48 aste – *baseline*) eta (2) ikerketa hasi ostekoak (*baseline* – 48 aste). Bi modutan jaso ziren:
  - Erakundeetako erregistro ofizialak: bajen informazio objektibo eta fidagarria ematen dute. Ordea, konfidentziasuna dela eta, ezin da bajaren arrazoia ezagutu. Zehazki, baja guztien hasiera eta bukaera datak jaso ziren, baja motarekin batera (laneko istripua/ohiko gaixotasuna).
  - Partaideek adierazitako bajak: informazio subjektiboa izanda fidagarritasuna galdu dezakeen arren, bajen arrazoia ezagutzea baimentzen du. Zehazki, baja guztien iraupena eta arrazoia jaso ziren.

### *Funtzio muskularra*

Tesi honen bigarren helburuko ikerketan baliozkotutako hiru probak erabili ziren. Laburki, gogorarazteko:

- 5RSTS: beheko gorputz-adarretako indar-potentzia muskularra neurtzen du. Segundo eta ehunekoak erregistratzen dira, iraupen laburragoak funtzio hobea adierazten duelarik (Guralnik eta lank., 1994).
- KPU: goiko gorputz-adarretako indar-erresistentzia muskularra neurtzen du. Errepikapen kopurua erregistratzen da, kopuru handiagoak funtzio hobea adierazten duelarik (ACSM, 2018).
- SIF: enborraren indar-erresistentzia muskularra neurtzen du. Segundoak erregistratzen dira, iraupen luzeagoak funtzio hobea adierazten duelarik (Ito eta lank., 1996).

#### **3.3.2.4. Kontrol taldea**

Kontrol taldeko partaideek haien lantokietan erregulartasunez garatutako prebentzio programetan hartu zuten parte. Batik bat, prebentzio programak pertsona nagusien eskuzko eta laguntza teknikoen bidezko mobilizazioen inguruko prestakuntzetan oinarritzen ziren. Prestakuntza hauek lantokian egiten ziren, taldean, fisioterapeuta batek gidatuta, eta urtean 20 ordu inguruko iraupenarekin. Prestakuntzetan saio teorikoak (adibidez, pertsona nagusien mobilizazioak jarrera biomekaniko egokiarekin nola egin inguruko kontzeptuak) eta ariketa praktikoak (adibidez, rol-jokoak langileen artean ikasitako kontzeptuak praktikan jartzeko) bateratzen ziren. Ikerketa bukatzean (48. asteko

balorazioen ondoren) kontrol taldeko partaideei talde esperimentalaren ariketa fisikoko programa berdinean parte hartzeko aukera eman zitzaien.

### 3.3.2.5. Talde esperimentalak

Azaldutako prebentzio programetaz gain, talde esperimentaleko partaideek 12 asteko ariketa fisikoko programa gainbegiratuan eta 36 asteko jarraipen autonomoan hartu zuten parte.

#### Programa gainbegiratua

Programaren xehetasunak TIDieR (*Template for Intervention Description and Replication*) gidetan oinarrituta adierazita daude (Hoffmann eta lank., 2014). Astean 45 minutuko bi saio egiten ziren (24 saio guztira), betiere bi saioen artean  $\geq 48$  orduko epea ziurtatuz, saioen arteko berreskurapen egokia bermatzeko. Partaideek haien lantokian prestatutako espazio batean egiten zituzten ariketak, bideokonferentzia sistema batekin ekipatua zegoena. Bitartean, fisioterapeutak urrunetik gainbegiratzen zituen saioak (12. Irudia). Partaide eta fisioterapeutaren artean irudi eta bideoa partekatzen ziren etengabe, komunikazio egokia bermatzeko bi aldean artean. Erabilitako bideokonferentzia softwareak desberdinak izan ziren zentro bakoitzean; batez ere *Blackboard Collaborate* (Blackboard Inc., Washington, DC, EEBB) eta *Webex* (Cisco Systems, Milpitas, EEBB) erabili ziren. Saioak  $\leq 10$  partaideko taldeetan egiten ziren, bideokonferentzia bidezko gainbegirapen egokia ziurtatzeko.




**12. Irudia** Bideokonferentzia bidezko ariketa saioen irudiak. A: partaideen ikuspegia, nagusientzako egoitza batean; B: fisioterapeutaren ikuspegia, unibertsitatean. Iturria: Espin eta lankideetatik (2023) moldatua.

## *Egitura*

### Beroketa

Saio guztiak 5-10 minutuko girotze aldiarekin hasten ziren, egitura muskuloeskeletikoak ariketarako prestatu eta sistema kardiobaskularra aktibatzeke helburuarekin. Beroketan bi ariketa mota egiten ziren:

- Giltzadura nagusien mobilitate ariketak: giltzadura kaudaletatik kranialetara abiatuz, gorputzeko giltzadura nagusi guztiak mugitzen ziren. Azkartasunari baino, mugimenduen anplitudeari ematen zitzaion garrantzi handiagoa, mugimenduen zabaltasuna beti era progresiboan handituz, eta giltzadurak norabide desberdinetan mugiaraziz. 13. Irudian ikus daitezkeen ariketa guztiak egiten ziren saio guztien hasieran, bakoitza 20 segundo inguruko iraupenarekin, eta beti ordena berdinean.
- Aktibazio aerobikorako ariketak: intentsitate baxuko ariketa dinamikoak egiten ziren, gihar talde nagusien lana eskatzen zutenak eta aldi berean hanken eta besoen aktibazioa eragiten zutenak. Ariketa hauen helburua partaideen bihotz maiztasuna areagotzea zen. 14. Irudian ikus daitezkeen ariketen artean, saio bakoitzean bi egiten ziren, bakoitza 1-2 minutuko iraupenarekin. Saioen artean aktibazio aerobikorako ariketak sistematikoki aldatzen joaten ziren, monotonia ekiditeko eta partaideei estimulu aldakorak emateko (8. Eranskina).



**13. Irudia** Beroketaren hasierako giltzadura nagusien mobilitate ariketak. Iturria: guk egindakoa.



Martxa mugimendua



Cross-Jack mugimendua



Sentadillak besoak gurutzatuz



Pauso lateralak



Cross-body toe touch mugimendua



Standing crunch mugimendua



Overhead reach mugimendua



Step back and crunch mugimendua

**14. Irudia** Beroketaren bukaerako aktibazio aerobikorako ariketak. Iturria: guk egindakoa.

## Indar ariketak

Beroketaren ostean indar ariketak egiten ziren. Atal hau saioaren atal nagusia zen, 30 minutu inguru irauten zuena. Guztira, bederatzi indar ariketa desberdin landu ziren programan zehar (hiru beheko gorputz-adarretara, hiru goiko gorputz-adarretara eta hiru enborrera bideratuta). Ariketa guztiak material minimoarekin egiten ziren, gorputz pisua edota bi metroko luzerako banda elastikoak erabiliz, eta bakoitzak hiru progresio maila zituen:

- Beheko gorputz-adarretako ariketak (15. Irudia)
  - Sentadillak.
  - Zubi gluteoak.
  - Atzeranzko pausoak.
- Goiko gorputz-adarretako ariketak (16. Irudia)
  - Besoen igotzeak.
  - Besoen irekitzeak.
  - Ukondoaren flexioak.
- Enborreko ariketak (17. Irudia)
  - *Dead bug* ariketa.
  - *Bird dog* ariketa.
  - Plantxa laterala.

1. PROGRESIOA



Arrunta

2. PROGRESIOA



3 segundoko etenaldi isometrikoa

3. PROGRESIOA



3 segundoko etenaldi isometrikoa + 2.6 kilogramoko banda elastikoa

SENTADILLAK



Bilateralra

ZUBI GLUTEOK



Unilateralra: palanka laburra

ATZERANZKO PAUSOAK



Oinak lurrean finko uneoro



Oinak mugituz



Oinak mugituz + 2.6 kilogramoko banda elastikoa

15. Irudia Beheko gorputz-adarretako indar ariketak. Iturria: gük egindakoa.

### 1. PROGRESIOA



1.7 kilogramoko banda elastikoa

**BESSEN  
IGOTZEAK**

### 2. PROGRESIOA



2.1 kilogramoko banda elastikoa

**BESSEN  
IREKITZEAK**

### 3. PROGRESIOA



2.6 kilogramoko banda elastikoa



1.7 kilogramoko banda elastikoa



2.1 kilogramoko banda elastikoa



2.6 kilogramoko banda elastikoa



1.7 kilogramoko banda elastikoa



2.1 kilogramoko banda elastikoa



2.6 kilogramoko banda elastikoa

**UKNDOAREN  
FLEXIOAK**

16. *Irudia Goiko gorputz-adarretako indar ariketak. Iturria: guk egindakoa.*



1. PROGRESIOA



DEAD BUG

Soilik besoarekin

2. PROGRESIOA



Soilik hankarekin

3. PROGRESIOA



Beso eta hanka kontralateralarekin



BIRD DOG

Soilik hankarekin



Hanka eta beso kontralateralarekin



Hanka eta beso kontralateralarekin  
+ euskarri estua



PLANTXA LATERALA

Palanka laburra




Palanka ertaina



Palanka luzea


17. Irudia Enborreko indar ariketak. Iturria: guk egindakoa.

Saio bakoitzean, sei ariketa lantzen ziren, bata bestearen atzean gorputz atal desberdinetarako ariketak tartekatuz (adibidez: 1. goiko gorputz-adarrak, 2. beheko gorputz-adarrak, 3. enborra, 4. goiko gorputz-adarrak, 5. beheko gorputz-adarrak, 6. enborra). Guztira, sei ariketako segida horren lau serie egiten ziren saio bakoitzean, eta serieen artean bi minutu inguruko atseden aktiboak egiten ziren, luzatze eta arnas ariketa dinamikoak praktikatzuz (18. Irudia). Aktibazio aerobikoko ariketen antzera, indar ariketak ere sistematikoki aldatuz joaten ziren saioz saio 12 asteetan zehar era parekatuan praktikatuak izan zitezten (8. Eranskina). Ariketa unilateralak (adibidez atzeranzko pausoak) serieen artean tartekatu egiten ziren gorputzaren eskuin eta ezker aldea era parekatuan lantzeko (adibidez: 1. seriea eskuma, 2. seriea ezker, 3. seriea eskuma, 4. seriea ezker).



**18. Irudia** Serieen arteko atseden aktiboetan egiten ziren ariketen bi adibide. Iturria: *guk egindakoa*.

Ariketen progresioari dagokionez, progresio maila lau astero aldatzen zen. Hau da, 1. progresioa 1-4. asteetan, 2. progresioa 5-8. asteetan, eta 3. progresioa 9-12. asteetan. Partaide guztiak 1. progresioan hasten ziren, eta hurrengo mailara progresioa baimentzeko, aurreko progresio mailan  $\geq 4$  saiotan parte hartu beharra zegoen. Ariketa bakoitzaren exekuziorako minutu bat ematen zen (lan eta atseden denbora barneratuz), eta progresio maila bakoitzaren barruan lan:atseden ratioa 30:30tik 45:15ra (segundoak) handitzen zihoan, aste bakoitzean bost lan-segundo gehituz eta hortaz bost atseden-segundo murriztuz (19. Irudia).



**19. Irudia** Ariketak exekutzeko denboraren progresioa programa gainbegiratuan zehar. Beltzez ariketa bakoitzaren lan denborak eta zuriz atseden denborak daude adierazita. Ast: astea; s: segundoak. Iturria: Espin eta lankideetatik (2023) moldatua.

Intentsitateari dagokionez, partaideei saioan zehar Borg-en CR-10 eskalan 3 (intentsitate ertaina) eta 5 (intentsitate kementsua) balioen artean mantentzea eskatzen zitzaien (Borg, 1982) (20. Irudia). Borg-en CR-10 eskala fidagarri eta baliagarria da langileen nahasmendu muskuloesketikoen maneira bideratutako ariketa fisikoko esku-hartzeen intentsitatea monitorizatzeko (Shariat eta lank., 2018). Horrez gain, ariketa guztietan gutxienez errepikapenen bat “erreserban” uztea eskatzen zitzaien, hau da, ariketa bakoitzaren denbora bukatzen zenean gutxienez errepikapen bat gehiago egin zezaketela sentitu behar zuten, mugara heldu gabe.

### Escala de esfuerzo percibido

0	Nada en absoluto	} Zona objetivo
0.5	Extremadamente ligero (casi imperceptible)	
1	Muy ligero	
2	Ligero (suave)	
3	Moderado	
4	Algo intenso	
5	Intenso (fuerte)	
6		
7	Muy intenso	
8		
9		
10	Extremadamente intenso (casi máximo)	
.	Máximo	

**20. Irudia** Intentsitatea kontrolatzeko eskala. Iturria: Borg eta lankideetatik (1982) moldatua.

Ariketaren batek min jasanezina sortzen bazuen partaideengan, Jakobsen eta lankideek (2014) proposatutako lau etapako doitze modeloa aplikatzen zen:

1. Intentsitatea murriztu (adibidez, ariketaren aurreko progresio mailara itzuli edo, beharrezkoa izatekotan, ariketa kanpo-erresistentziarik gabe egin).
2. Lehenengo pausoak ez badu mina jasangarri bihurtzen, mugimenduaren abiadura gutxitu.
3. Bigarren pausoak ez badu mina jasangarri bihurtzen, mugimenduaren zabaltasuna (ingelesez, ROM: *range of motion*) murriztu.
4. Hirugarren pausoak ez badu mina jasangarri bihurtzen, ariketa bertan behera utzi.

Ariketaren bat bertan behera uztea beharrezkoa izatekotan, min jasanezinik sortzen ez zuen eta gihar talde berdinean fokatzen zen ariketa batekin ordezkatzeko zen.


Lasaitasunera itzulera

Saioa bukatzeko, indar ariketen ostean lasaitasunera itzulera egiten zen, 5-10 minutuko iraupena izaten zuena. Atal honen helburua erlaxazioa lortzea eta bihotz-taupaden maiztasuna jaistea zen. Zehazki, bi ariketa mota egiten ziren atal honetan:

- Luzatze ariketak: guztira zortzi ariketa landu ziren programan zehar, saioetan erabilitako giharrak luzatzera bideratuta zeudenak (21. Irudia). Saio bakoitzean bi luzatze ariketa egiten ziren, lasaitasunera itzuleraren hasieran. Luzatze ariketa bakoitza 1-2 minutuz egiten zen. Aktibazio aerobiko eta indar ariketekin bezala, luzatze ariketak ere sistematikoki aldatzen ziren saioen artean (8. Eranskina).
- Arnasketa ariketak: guztira lau ariketa landu ziren programan zehar. Saio bakoitzean bakarra praktikatzen zen, luzatze ariketen ondoren, bi minutuko iraupenarekin. Kasu honetan ere ariketak sistematikoki aldatuz joaten ziren saioz saio (8. Eranskina). Ariketa guztiak estera buruz gora etzanda egiten ziren, begiak itxita (22. Irudia). Ariketa guztietan lasaitasunez arnastea eskatzen zitzaien partaideei, bitartean arreta ataza zehatz batean mantendu behar zutelarik. Zehazki, hauek izan ziren ariketak:
  - Arnasketa diafragmatikoa: belaunak tolestuta eta eskuak sabelean kokatuta, partaideei arnasketa sakonak egitea eskatzen zitzaien, airea sudurretik hartuta eta ahotik botata. Airea sabelerantz bideratzea eskatzen

zitzaien, diafragma ahalik eta gehien inplikatur arnasketan, eta arreta sabelaren mugimenduan zentratzea eskatzen zitzaien, arnasa hartzean gora eta botatzean behera nola mugitzen zen somatuz.

- Sudurreko arnasketa: airea sudurretik hartu eta botatzea eskatzen zitzaien partaideei, arreta airearen sudurrean zeharreko ibilbidean zentratuz. Zehazki, airearen tenperaturari erreparatzea aholkatzen zitzaien, arnasgoran freskoago sartu eta arnasbeheran epelago ateratzen zela nabaritzuz.
- “Karratuaren” arnasketa: partaideei karratu bat irudikatzea eskatzen zitzaien, eta arnasketaren fase bakoitzean karratu horren lau aldeetako baten zehar mugitzen zirela imajinatu behar zuten. (1) Arnasa hartzean karratuaren ezker aldean zehar gora zihoazela imajinatu behar zuten; (2) airea biriketan mantenduz, karratuaren goiko aldean zehar eskuinera zihoazela imajinatu behar zuten; (3) arnasa botatzean karratuaren eskuinaldean zehar behera zihoazela imajinatu behar zuten; (4) birikak hutsik mantenduz karratuaren beheko aldean zehar ezkererantz zihoazela imajinatu behar zuten, hasierako puntura, berriz ere zikloa hasteko. Arnasketaren fase bakoitzaren iraupenari dagokionez, partaideei erosotasunez arnastea eskatzen zitzaien, itolarri sentsaziorik sortu gabe, eta ahal zuten heinean gutxinaka faseak gero eta luzeagoak egiten saiatzea aholkatzen zitzaien.
- 100 arte zenbatu: ariketa hau joko modukoa zen. Partaideek isiltasunean eta haien buruarentzat 100 segundo arte zenbatu behar zuten, guztiak aldi berean hasita, lasaitasun eta sakontasunez arnasten zuten bitartean, arnasa sudurretik hartu eta ahotik botata. 100 segundora heltzean begiak ireki eta beso bat altxatzea eskatzen zitzaien. Bitartean fisioterapeutak benetako 100 segundoak kontrolatzen zituen kronometro digital baten bidez, eta benetako 100 segundo horietara gehien hurbiltzen zen partaideak jokia irabazten zuen.



**21. Irdia** Lasaitasunera itzuleran landutako luzatze ariketak. Iturria: guk egindakoa.



**22. Irdia** Arnasketa diafragmatikoa egiteko posizioa. Iturria: guk hartutako argazkia.

### Atxikipena

Ariketa fisikoko esku-hartzeetan atxikipen-tasa neurtzeko aldagairik ohikoena saioetara bertaratzea den arren, argudiatua izan da metodo hori ez dela egokiena (Hawley-Hague eta lank., 2016). Izan ere, atxikipena aztertzerakoan, ariketa fisikoaren iraupen eta intentsitatearen inguruko informazioa ere kontuan izan beharko litzateke (Hawley-Hague

eta lank., 2016). Hori dela eta, gure esku-hartzean fisioterapeutak partaide bakoitzaren hurrengo informazioa egiaztatzen zuen saio guztietan:

- Saioa bertaratu izana.
- Saioaren eduki guztiak osotasunean bete izana.
- Saioan zehar hautemandako esfortzu maila orokorra 3 (ertain) eta 5 (kementsu) balioen artean mantendu izana Borg-en CR-10 eskalan.

Gauzak horrela, atxikipen-tasa horrela definitu genuen: partaideek planifikatutako iraupen eta intentsitatearekin betetako saioen ehunekoa. Hau da, saioetara bertaratzea zegoenean baina saio hori osotasunean betetzen ez zenean edota hautemandako intentsitatea  $<3$  edo  $>5$  zenean, bertaratze hori ez genuen kontuan hartzen atxikipenaren kalkulurako. Beste era batean esanda, atxikipen-tasa %100koa zen 24 saioa bertaratu eta saio horiek osotasunean betetzen zirenean 3-5 arteko esfortzu mailarekin.

#### *Kontrako gertakariak*

Fisioterapeutak saio guztietan gertatzen ziren kontrako gertakariak jaso zituen. Tesi honetako bigarren helburuko ikerketan bezala, kontrako gertakariak bi motatan banatu genituen:

- Teknikoak: konexio/operazio arazoak bideokonferentzia sistemarekin.
- Partaidearen segurtasunarekin lotuak: saioaren garapenaren bitartean agertzen zen min, ondoez fisiko edo osasunarekin lotutako beste edozein arazo.

Horrez gain, larritasun mailaren arabera beste bi multzotan sailkatu genituen:

- Arinak: saioaren garapenean zailtasun txikiak sortzen zituztenak.
- Larriak: saioaren garapena guztiz eragozten zutenak.

#### Jarraipen autonomoa

12 asteko programa gainbegiratu bukatzean, talde esperimentaleko partaideei astean birritan haien kabuz ariketa saioak egiten jarraitzea gomendatzen zitzaien. Entrenamendu autonomo hau errazteko, partaideei 45 minutuko bi saioen grabazioak partekatzen zitzaizkien. Progresio mailari dagokionez, grabazio hauek programa gainbegiratu 12. asteko saioen parekideak ziren. Grabazio hauek *Google Drive*ko esteka baten bitartez

partekatzen ziren, eta linean erreproduzitu edo deskargatu ahal ziren. Grabazioez gain, hurrengoak ere partekatzen zitzaizkien partaideei esteka horretan:

- Argibide idatziak: ariketaren jarraipen autonomorako gomendio orokorrak biltzen zituen dokumentua (9. Eranskina). Besteak beste: ariketen maiztasuna eta intentsitatearen oroitzapena, intentsitatea moldatzeko eta mina agertzekotan ariketak egokitzeko argibideak, saioei aniztasuna emateko aholkuak, eta erreferentziako fisioterapeutaren kontaktua, edozein dudarekin komunikatzeko aukera eduki zezaten.
- Ariketen informazioa: oroitzapen bezala, programa gainbegiratuan zehar landutako bederatzi ariketen argibideak, teknikari eta progresio maila desberdinei dagokienez, idatziz (10. Eranskina) eta bideoen bitartez.
- Ariketa eta atsedeen denbora tarteak kontrolatzeko argibideak: dokumentu gehigarria, ariketen lan eta atsedeen denborak neurtu ahal izateko telefono mugikorrerako doako aplikazio baten inguruko informazioarekin (11. Eranskina). Aplikazioa zelan deskargatu eta erabili azaltzen zen. Honi esker, saioen grabazioetara sarbiderik ez izatekotan (adibidez Internet konexiorik ez), partaideei lan eta atsedeen denborak haien kabuz kontrolatzea errazten zitzaien.

Ariketa fisikoaren jarraipen autonomo maila kontrolatzen joateko, partaideei hurrengo galdetzen zitzaien 12 astero, 48. asteko azken balorazioetara arte (2. Taula):

- Azkeneko 12 asteetan zehar, zenbat astetan egin dituzu ariketak? (0-12 erantzuna).
- Batez beste, ariketak egin dituzun aste horietako bakoitzean, zenbat egunetan egin dituzu? (0-7 erantzuna).

Bi galdera hauen erantzunak biderkatuz, era autonomoan egindako ariketa saio kopurua kalkulatu zen. 72 saio egitea %100ko jarraipen autonomotzat hartu zen (36 asteko jarraipen autonomoa x astean bi saio egiteko gomendioa = 72 saio). Galdera hauek *Google Forms* plataformaren bitartez egin genituen, eta inkestara sartzeko esteka *WhatsApp* bidez helarazi zitzaien partaideei.

### **3.3.2.6. Estatistika**

Datu jarraitu eta kategorikoak batezbestekoa (desbiderapen estandarra) eta frekuentzia (ehunekoa) erabiliz adierazi genituen, hurrenez hurren. Datu jarraituen distribuzioaren normaltasuna *Kolmogorov-Smirnov* eta *Shapiro-Wilk* proben bitartez aztertu genituen  $\geq 50$



eta <50ko laginetan, hurrenez hurren. Analisi estatistikorako, aldagai ez-normalak erro karratuaren bitartez eraldatu genituen. Ikerketako analisi estatistiko nagusia tratatzeko-intentzioan oinarritu zen, partaide guztien datuak kontuan hartuz haien programa gainbegiratuarekiko atxikipenari erreparatu gabe. Horrez gain, *per-protocol* analisia ere egin genuen, soilik programa gainbegiratuan  $\geq 50\%$ ko atxikipen-tasa zuten partaideen datuak kontuan hartuz. Bukatzeko, azpitaldeetan oinarritutako *post-hoc* analisia ere egin genuen. Zehazki, esku-hartzearen eraginak min lunbarrean era independentean aztertu genituen bi azpitaldetan: hasieran min lunbarra zutenak ( $\geq 1$ ko min lunbarra 11-puntuko eskala numerikoan) eta ez zutenak (<1ko min lunbarra 11-puntuko eskala numerikoan).

Hasierako unean taldeen arteko konparaketak egiteko hurrengo proba estatistikoak erabili genituen: lagin independenteen T proba aldagai jarraituekin eta *Chi* karratuaren proba aldagai kategorikoekin.

Aldagai jarraituetan, esku-hartzearen eraginak “talde x denbora” diseinuko ANCOVA probaren bitartez aztertu genituen, hasierako datuak ko-aldagai bezala erabiliz. ANCOVA hau era independentean egin genuen esku-hartzearen eraginak bi denbora epe desberdinetan analizatzeko: 0 vs 12 aste eta 0 vs 48 aste. Eraginaren tamaina “eta” karratu partzialaren bitartez estimatu genuen ( $\eta_p^2$ ). Richardsonen (2011) gidan oinarrituta,  $\eta_p^2$ ren balioak horrela interpretatu genituen: 0.01=eragin txikia, 0.06=eragin ertaina, 0.14=eragin handia.

Aldagai kategorikoetan (laneko baja bai/ez) esku-hartzearen eraginak erregresio logistiko bitarraren bitartez aztertu genituen, taldea (kontrol/esperimental) eta hasierako laneko bajak (bai/ez) ko-aldagai bezala erabiliz.

Adierazgarritasun estatistikoaren maila  $p < 0.05$ an ezarri genuen, eta analisi guztiak *Windowserako IBM SPSS Statistics* programaren 27.0 bertsioa erabiliz egin genituen (IBM korp., Armonk, NY, EEBA).

### **3.3.2.7. Etika**

Tesiko hirugarren eta laugarren helburuei erantzuteko ikerketa proiektuak UPV/EHUko GIEBaren oniritzia jaso zuen, M10\_2019\_200 kodearekin (12. Eranskina). Tesiaren garapenean zehar bi aldaketa onartu ziren proiektuan, M10\_2019\_200MR1 eta M10\_2019\_200MR2 kodeekin, hurrenez hurren (13. Eranskina). Hauetan, ikertzaile, zentro partaide eta balorazio tresna berriak gehitzeaz gain, ariketa fisikoko programa online

formatura egokitzea onartu zen. Partaide guztiek idatzizko baimen informatua eman zuten ikerketan parte hartu aurretik. Horrez gain, partaideek haien bideo-grabazio edo argazkiak egin eta helburu zientifikoekin erabiltzeko baimen informatua sinatu zuten.

#### **3.3.2.8. Finantzazioa**

Tesiko hirugarren eta laugarren helburuei erantzuteko ikerketa hau burutu genuen bitartean Eusko Jurlaritzak finantzatutako doktoretza-aurreko kontratua izan nuen (kodea: PRE\_2021\_2\_0056), eta Ageing On ikerketa taldean Eusko Jurlaritza eta Euskal Herriko Unibertsitatearen diru-laguntzak jaso genituen (kodeak: IT1538-22 eta GIU20/06, hurrenez hurren).

# 4. Emaidzak

---

4.1. Lehenengo artikulua (lehenengo helburuari lotuta)	101
4.2. Bigarren artikulua (bigarren helburuari lotuta)	116
4.3. Hirugarren artikulua (hirugarren helburuari lotuta)	137
4.4. Laugarren artikulua (laugarren helburuari lotuta)	159

Tesi honetako emaitzak lau artikuluren bitartez aurkeztuko dira, horietako bakoitza tesiko helburuetako bati lotuta. Lehenengo bi artikulua argitaratuta daude jada, hirugarrena aldizkari batean berrikuspen fasean dago, eta laugarrena bidaltzeke.

1. Mental health and vitality predict spinal pain in healthcare workers.
2. Videoconference-based physical performance tests: reliability and feasibility study.
3. Videoconference-supervised group exercise reduces low back pain in eldercare workers: results from the ReViEEW randomised controlled trial.
4. Effectiveness of videoconference-supervised followed by unsupervised exercise on low back pain: 48-week follow-up of the ReViEEW randomized controlled trial.

## 4.1. Lehenengo artikulua (lehenengo helburuari lotuta)

### **Mental health and vitality predict spinal pain in healthcare workers**

Ander Espin<sup>a,b,c</sup>, Rodrigo Núñez-Cortés<sup>a,d,e</sup>, Jon Irazusta<sup>b,c</sup>, Ana Rodriguez-Larrad<sup>b,c</sup>, Jon Torres-Unda<sup>b</sup>, Jonas Vinstrup<sup>a</sup>, Markus Due Jakobsen<sup>a</sup>, Lars Louis Andersen<sup>a</sup>

<sup>a</sup> Department of Musculoskeletal Disorders, National Research Centre for the Working Environment, 2100 Copenhagen, Denmark

<sup>b</sup> Ageing On Research Group, Department of Physiology, University of the Basque Country (UPV/EHU), 48940 Leioa, Spain

<sup>c</sup> Clinical Nursing and Community Health Research Group, Biocruces Bizkaia Health Research Institute, 48903 Barakaldo, Spain

<sup>d</sup> Physiotherapy in Motion Multispeciality Research Group (PTinMOTION), Department of Physiotherapy, University of Valencia, 46010 Valencia, Spain

<sup>e</sup> Department of Physical Therapy, Faculty of Medicine, University of Chile, 8380000 Santiago, Chile

Occupational Medicine – Oxford: 2022 Journal Impact Factor 5.1; 46/207 (Q1) in Public, Environmental & Occupational Health

DOI: 10.1093/occmed/kqad096

## ABSTRACT

**Background:** despite extensive investigation of ergonomic risk factors for spinal pain in healthcare workers, limited knowledge of psychological risk factors exists.

**Aims:** to assess the prospective association of mental health and vitality with development of spinal pain in healthcare workers.

**Methods:** a prospective cohort study was carried out involving 1950 healthcare workers from 19 hospitals in Denmark. Assessments were done at baseline and at 1-year follow-up. Mental health and vitality were measured using the Short Form-36 Health Survey, while spinal pain intensity was measured using a 0–10 scale in the low-back, upper-back and neck, respectively. Cumulative logistic regressions adjusted for several confounding factors were applied, reporting risk estimates as odds ratios (ORs) and 95% confidence intervals (CIs).

**Results:** using good mental health as reference, moderate (but not poor) mental health at baseline was associated with increased pain intensity in the low-back (OR: 1.41 [95% CI: 1.21–1.77]), upper-back (OR: 1.63 [95% CI: 1.31–2.02]) and neck (OR: 1.31 [95% CI: 1.07–1.61]) at 1-year follow-up. Likewise, using high vitality as reference, both moderate and low vitality at baseline were associated with increased pain intensity in the low-back (OR: 1.54 [95% CI: 1.22–1.94] and OR: 2.34 [95% CI: 1.75–3.12], respectively), upper-back (OR: 1.72 [95% CI: 1.34–2.23] and OR: 2.46 [95% CI: 1.86–3.25], respectively) and neck (OR: 1.66 [95% CI: 1.34–2.06] and OR: 2.06 [95% CI: 1.61–2.63], respectively) at 1-year follow-up.

**Conclusions:** compared to healthcare workers with good mental health and high vitality, those with moderate mental health and low/moderate vitality, respectively, were more likely to increase spinal pain intensity at 1-year follow-up. These components should also be considered in the prevention of spinal pain in healthcare workers.

## INTRODUCTION

Musculoskeletal disorders are a widespread problem in healthcare workers [1], with spinal pain being the most common complaint [2,3]. Up to 94% of healthcare workers report pain in at least one region of the spine, and the most affected areas are the low-back, the neck and the upper-back, with point prevalences of 73%, 39% and 32%, respectively [2].

Spinal pain negatively affects well-being of healthcare workers and is associated with higher rates of disability and lower quality of life [2]. Moreover, spinal pain increases the use of healthcare resources. For example, a study by Karahan et al. observed that 59% of healthcare workers with low-back pain were treated with medication, 33% sought medical care and 4% had surgery [3]. Furthermore, spinal pain negatively interferes with the ability of healthcare workers to carry out their daily work tasks [3]. A prospective study following 8952 healthcare workers for 1 year found that chronic pain in the low-back was a significant predictor of long-term sickness absence [4]. In general, research shows that spinal pain can have serious personal and economic consequences for the healthcare workers, patients, healthcare institutions and society.

Due to the ageing population, the demand for healthcare workers is increasing [5]. As the population gets older, the prevalence of chronic diseases, comorbidities and functional limitations is also increasing [5]. In fact, the demand for care workers in the labour force is expected to at least double by 2050 [5]. Workers in the healthcare sector are frontline workers that usually offer direct care to patients, meaning that they can have a great impact on health, quality of life and well-being of the patients. The outbreak of the COVID-19 pandemic increased the burden of work for healthcare workers, and highlighted the importance of a robust healthcare sector [6]. Considering the extensive list of negative consequences of spinal pain in healthcare workers and taking into account the relevance of their work in the present and future society, detecting risk factors of spinal pain in this population is of utmost importance.

To date, the vast majority of research studying risk factors for spinal pain in healthcare workers has focused on physical or ergonomic factors related to the work tasks [7–11]. Recent meta-analyses have concluded that higher physical work demands [7], as well as work tasks such as manual patient handling, back bending/twisting and lifting/pulling movements [8] are associated with spinal pain. Likewise, prospective studies using large samples of healthcare workers have also found increased risk of back injury from frequent

patient transfers [9], frequently lifting and carrying low loads with forward bent back [10] and high physical workloads [11].

However, few studies have analysed the role of psychological factors in the development of spinal pain in healthcare workers. Although there is evidence showing a relationship of spinal pain with high psychosocial demands [7,12], job strain [7] and stress [13], as well as with low job control and social support [12], the majority of studies have used cross-sectional designs which do not allow to infer causality. Therefore, carrying out prospective studies becomes essential in identifying psychological risk factors. One previous prospective study with a large sample of healthcare workers found that higher stress levels at baseline increased the risk of low-back pain at 1-year follow-up [14]. While providing new and relevant knowledge in the healthcare sector, stress is only a small part of the psychological aspect, and many other components remain to be prospectively studied in healthcare workers, including mental health and vitality.

The aim of our study was to investigate the prospective association between baseline mental health and vitality with increased spinal pain intensity (measured separately in the low-back, upper-back and neck) at 1-year follow-up in a large sample of healthcare workers. It was hypothesized that worse mental health and vitality levels would be associated with a higher risk of increasing spinal pain intensity.

## **METHODS**

This is a prospective cohort study including baseline and 1-year follow-up assessments. The baseline questionnaire was sent by e-mail in 2017 to 7025 hospital workers from 389 departments at 19 hospitals in Denmark. In this study, we only included healthcare workers who frequently interacted with patients (i.e. nurses, nurses' aides, healthcare assistants, physical and occupational therapists, medical doctors, midwives, porters and radiologists) and who responded to both the baseline and 1-year follow-up questionnaires. This article presents unpublished data from a project where we have previously analysed the prospective association between patient transfers and back injury [9].

The main outcome was spinal pain intensity, measured in the low-back, upper-back and neck by the following question: 'Rate your pain for the (body region) within the previous 4 weeks (0–10, where 0 is no pain and 10 is worst imaginable pain)' [15].



The predictor variables were mental health and vitality, which were assessed with questions from their corresponding domains of the Danish version of the Short Form-36 (SF-36) [16]. While the mental health domain evaluates general psychological distress and well-being, the vitality domain refers to a single distinguishable factor determined by perceived levels of energy and fatigue [16]. The mental health domain included the following four questions: 'How much of the time during the previous 4 weeks have you...' (1) been a very nervous person?, (2) felt so down in the dumps that nothing could cheer you up?, (3) felt calm and peaceful?, (4) felt downhearted and blue?. Each of the questions had six response options ranging from 'All the time' to 'None of the time', and a score between 0 and 100 was subsequently obtained, with higher scores indicating better mental health. The vitality domain included the following three questions: 'How much of the time during the previous 4 weeks did you...' (1) feel full of pep?, (2) have a lot of energy?, (3) feel worn out?. Each of the questions had six response options ranging from 'All the time' to 'None of the time', and a score between 0 and 100 was subsequently obtained, with higher scores indicating higher levels of vitality.

The prospective association between mental health and vitality at baseline with spinal pain intensity increase at 1-year follow-up was adjusted for the following confounding factors: pain intensity at baseline (0–10), age (years), sex (male/female), body mass index (kg/m<sup>2</sup>), smoking (yes/no), leisure-time physical activity (sedentary; light exercise >3 days/week; moderate exercise >3 days/week; vigorous exercise several times per week), seniority (years in profession), patient transfers (daily frequency), recognition and influence at work (0–100, according to the Copenhagen Psychosocial Questionnaire [17]).

Baseline characteristics of the participants are shown using mean  $\pm$  standard deviation or prevalence (percentage). To estimate the risk of increasing spinal pain intensity, cumulative logistic regressions were used. Risk estimates are reported with odds ratios (ORs) and 95% confidence intervals (CIs). Two regression models were used: minimally adjusted for pain intensity at baseline, age and sex (Model 1), and fully adjusted for all the confounding factors reported in the previous paragraph (Model 2). All statistical analyses were performed using SAS version 9.4 (SAS Institute, Cary, NC, USA).

By agreement with the Danish Data Protection Agency, the National Research Centre for the Working Environment is allowed to register all questionnaire studies in its headquarters. According to Danish law, questionnaire-based studies do not require

participant informed consent and approval from ethics committees. All data were de-identified and analysed anonymously.

## **RESULTS**

There were 4151 complete responses of the baseline questionnaire (59% response rate), among which 3885 were from healthcare workers who frequently interacted with patients. Among these participants with frequent patient interaction, 1950 also completed the 1-year follow-up questionnaire. Baseline characteristics of these 1950 participants analysed in the present study can be found in Table 1. Mean age of the participants was 48.8 years, and 87% were female. Mean pain intensity was of 2.3, 1.5 and 2.3 for the low-back, upper-back and neck, respectively. Regarding predictor variables, 5%, 26% and 69% of the participants were classified as having poor, moderate and good mental health, respectively, while 26%, 49% and 25% were categorized into low, moderate and high vitality levels, respectively.

Table 2 presents the risk estimates for increased spinal pain intensity at 1-year follow-up. Using good mental health as reference, moderate (but not poor) mental health at baseline was associated with increased pain intensity in the low-back (OR: 1.41, 95% CI: 1.16–1.71), upper-back (OR: 1.63, 95% CI: 1.31–2.02) and neck (OR: 1.31, 95% CI: 1.07–1.61) at 1-year follow-up in the fully adjusted model. Using high vitality as reference, both moderate and low vitality at baseline were associated with increased pain intensity in the low-back (OR: 1.54, 95% CI: 1.22–1.94 and OR: 2.34, 95% CI: 1.75–3.12, respectively), upper-back (OR: 1.72, 95% CI: 1.34–2.23 and OR: 2.46, 95% CI: 1.86–3.25, respectively) and neck (OR: 1.66, 95% CI: 1.34–2.06 and OR: 2.06, 95% CI: 1.61–2.63, respectively) at 1-year follow-up in the fully adjusted model.

**Table 1** Baseline characteristics of the participants (n = 1950).

<b>Variable</b>	<b>Value</b>
Age (years)	48.8 ± 10.7
Sex (female)	1693 (87%)
Pain intensity (0-10)	
<i>Low-back</i>	2.3 ± 2.5
<i>Upper-back</i>	1.5 ± 2.2
<i>Neck</i>	2.3 ± 2.5
Mental health (SF-36)	
<i>Poor (0-50)</i>	100 (5%)
<i>Moderate (50-75)</i>	498 (26%)
<i>Good (75-100)</i>	1352 (69%)
Vitality (SF-36)	
<i>Low (0-50)</i>	516 (26%)
<i>Moderate (50-75)</i>	949 (49%)
<i>High (75-100)</i>	485 (25%)
Body mass index (kg/m <sup>2</sup> )	25.2 ± 4.6
Smoking (yes)	161 (8%)
Leisure-time physical activity	
<i>Sedentary</i>	132 (7%)
<i>Light &gt;3 days/week</i>	1210 (62%)
<i>Moderate &gt;3 days/week</i>	548 (28%)
<i>Vigorous several days/week</i>	60 (3%)
Seniority (years in profession)	18.3 ± 11.6
Patient transfers (daily frequency)	3.5 ± 2.2
Recognition at work (0-100)	78.4 ± 16.6
Influence at work (0-100)	73.7 ± 17.6

**Table 2** Risk of increased spinal pain intensity at 1-year follow-up according to baseline mental health and vitality levels.

Predictor variable	Pain region	SF-36 score	Model 1 <sup>a</sup> , OR (95% CI)	Model 2 <sup>b</sup> , OR (95% CI)
Mental health	Low-back	Good	1	1
		Moderate	1.46 (1.21-1.77)*	1.41 (1.16-1.71)*
		Poor	1.50 (1.06-2.13)*	1.30 (0.90-1.86)
	Upper-back	Good	1	1
		Moderate	1.64 (1.33-2.02)*	1.63 (1.31-2.02)*
		Poor	1.52 (0.97-2.39)	1.41 (0.89-2.21)
	Neck	Good	1	1
		Moderate	1.40 (1.15-1.71)*	1.31 (1.07-1.61)*
		Poor	1.53 (1.04-2.25)*	1.27 (0.86-1.88)
Vitality	Low-back	High	1	1
		Moderate	1.57 (1.25-1.96)*	1.54 (1.22-1.94)*
		Low	2.54 (1.94-3.32)*	2.34 (1.75-3.12)*
	Upper-back	High	1	1
		Moderate	1.77 (1.39-2.24)*	1.72 (1.34-2.23)*
		Low	2.57 (2.00-3.30)*	2.46 (1.86-3.25)*
	Neck	High	1	1
		Moderate	1.72 (1.41-2.11)*	1.66 (1.34-2.06)*
		Low	2.25 (1.78-2.86)*	2.06 (1.61-2.63)*

\* Statistically significant ( $p < 0.05$ ); <sup>a</sup>minimally adjusted for pain intensity at baseline, age and sex; <sup>b</sup>fully adjusted for pain intensity at baseline, age, sex, body mass index, smoking status, leisure-time physical activity, seniority, patient transfers, recognition at work and influence at work.

## DISCUSSION

This study shows that mental health and vitality are significant predictors of increased spinal pain intensity in healthcare workers. These findings provide novel and valuable information that may guide better decision-making in terms of occupational prevention strategies in the healthcare sector.

Only a moderate level of mental health (using 'good' as reference) was a risk factor in the fully adjusted model. However, the prospective associations were statistically significant and consistent in all three analysed spinal regions (OR range: 1.31–1.63). Contrary to what might have been expected, poor levels of mental health were not significant predictors of spinal pain when controlling for all the confounding factors. This finding may be influenced by the low percentage of participants in the 'poor mental health' category (5% of the sample), which weakens the statistical power and consequently widens the CI.

Although the intention-to-treat analysis did not show any significant effects of the intervention on work-related parameters, the per-protocol analysis demonstrated a reduction of sick leave days. This finding suggests that a minimum adherence (in this case,  $\geq 12$  sessions during the 12-week intervention) could be necessary in order to decrease absenteeism in the long-term. Therefore, efforts should be directed toward identifying strategies to achieve the greatest possible adherence to exercise programs in the work environment. In addition to having a significant personal impact for the workers, the reduction in sick leave days could generate important financial savings for the employing companies [5], which could permit the allocation of greater resources to other actions such as investment in higher quality services and better work conditions. On the other hand, there was an unexpected detrimental long-term effect on work-related personal accomplishment. As far as we know, this phenomenon has not been described before in the scientific literature. One possible explanation could be that, after having been accustomed to being able to participate in a workplace exercise program, participants from the experimental group reduced their level of work accomplishment once that program was no longer offered. Indeed, as shown in the per-protocol analysis, the reduction in personal accomplishment was more pronounced in those participants with greater adherence to the exercise program (i.e., presumably those who might be most affected by the cessation of the program). If this were the case, the importance of offering workplace exercise programs regularly to keep an adequate work accomplishment of the employees would become even more evident. This could be especially relevant considering that burnout-related parameters such as low personal accomplishment could negatively affect productivity at work [34].

### **Strengths and limitations**

One strength of the present study lies in the inclusion of the 48-week follow-up, long time after finishing the supervised intervention, which is in line with current needs on LBP

exercise research [10]. Apart from that, the study is methodologically well designed, as it is based on a randomized controlled trial with outcome assessor and data analyst blinding, together with an appropriate sample size calculation. Moreover, we propose an innovative modality of physical exercise, which was supervised by real-time videoconference. The population under study is also relevant because eldercare workers are of paramount importance in the current ageing society, yet, they have received little attention in the scientific literature.

On the other hand, some limitations should be recognized. For example, the participation rate was only 30% (130 of 436 workers screened for eligibility), what could limit the generalizability of the findings. Furthermore, due to the specific characteristics of the eldercare workers in the present study, application of the results to other populations should be done with caution. Finally, the secondary outcomes could have not been sufficiently powered, meaning that the reliability of their results could not be as high as that of the primary outcome.

## **CONCLUSION**

Improvements on LBP elicited by a 12-week tele-exercise intervention supervised by real-time videoconference were not maintained at a 48-week follow-up, even though participants from the experimental group were advised to continue exercising on their own. This finding, along with the reduction in personal accomplishment observed in the workers, which could be due to stopping the workplace exercise program, highlights the importance of finding feasible and cost-effective exercise interventions that can be maintained in the long-term. However, the intervention analyzed in the present study showed benefits at 48-week follow-up on neck pain's work interference and hypnotic/anxiolytic medication use. Additionally, the per-protocol analysis showed that participants with higher adherence to the supervised 12-week intervention reduced sick leave days, what could lead to positive personal and economic consequences for both employees and employers.

## REFERENCES

1. GBD 2017 Disease and Injury Incidence and Prevalence Collaborators. Global, regional, and national incidence, prevalence, and years lived with disability for 354 diseases and injuries for 195 countries and territories, 1990-2017: a systematic analysis for the Global Burden of Disease Study 2017. *Lancet* 2018;392:1789–858.
2. Øverås CK, Nilsen TIL, Sjøgaard K, Mork PJ, Hartvigsen J. Temporal stability in the prevalence and pattern of co-occurring musculoskeletal pain among people with persistent low back pain: population-based data from the Norwegian HUNT Study, 1995 to 2019. *Pain* 2023.
3. Gonçalves TR, Cunha DB, Mediano MFF, Wanigatunga AA, Simonsick EM, Schrack JA. Association of non-chronic low back pain with physical function, endurance, fatigability, and quality of life in middle- and older-aged adults: Findings from Baltimore Longitudinal Study of Aging. *PLoS One* 2022;17:e0277083.
4. Stubbs B, Koyanagi A, Thompson T, Veronese N, Carvalho AF, Solomi M, et al. The epidemiology of back pain and its relationship with depression, psychosis, anxiety, sleep disturbances, and stress sensitivity: Data from 43 low- and middle-income countries. *Gen Hosp Psychiatry* 2016;43:63–70.
5. Fatoye F, Gebrye T, Ryan CG, Useh U, Mbada C. Global and regional estimates of clinical and economic burden of low back pain in high-income countries: a systematic review and meta-analysis. *Front Public Health* 2023;11:1098100.
6. Huang R, Ning J, Chuter VH, Taylor JB, Christophe D, Meng Z, et al. Exercise alone and exercise combined with education both prevent episodes of low back pain and related absenteeism: systematic review and network meta-analysis of randomised controlled trials (RCTs) aimed at preventing back pain. *Br J Sports Med* 2020;54:766–70.
7. Meroni R, Piscitelli D, Ravasio C, Vanti C, Bertozzi L, De Vito G, et al. Evidence for managing chronic low back pain in primary care: a review of recommendations from high-quality clinical practice guidelines. *Disabil Rehabil* 2021;43:1029–43.
8. Seron P, Oliveros M-J, Gutierrez-Arias R, Fuentes-Aspe R, Torres-Castro RC, Merino-Osorio C, et al. Effectiveness of Telerehabilitation in Physical Therapy: A Rapid Overview. *Phys Ther* 2021;101:pzab053.
9. Gao Z, Wang R. Application of e-health programs in physical activity and health promotion. *J Sport Health Sci* 2022;11:131–2.



10. Grooten WJA, Boström C, Dedering Å, Halvorsen M, Kuster RP, Nilsson-Wikmar L, et al. Summarizing the effects of different exercise types in chronic low back pain - a systematic review of systematic reviews. *BMC Musculoskelet Disord* 2022;23:801.
11. Espin A, Irazusta J, Segovia Celaya I, Mosquera Lajas Á, González-Templado V, Rodríguez-Larrad A. Effects of a videoconference-based therapeutic exercise intervention on the musculoskeletal pain of eldercare workers: protocol for the ReViEEW randomized controlled trial. *BMC Musculoskelet Disord* 2023;24:463.
12. Davis KG, Kotowski SE. Prevalence of Musculoskeletal Disorders for Nurses in Hospitals, Long-Term Care Facilities, and Home Health Care: A Comprehensive Review. *Hum Factors* 2015;57:754–92.
13. Espin A, Irazusta I, Aiestaran M, Latorre U, García-García J, Arrinda I, et al. Videoconference-supervised group exercise reduces low back pain in eldercare workers: results from the ReViEEW randomised controlled trial. *J Occup Rehabil* 2024 (under review).
14. Saner J, Bergman EM, de Bie RA, Sieben JM. Low back pain patients' perspectives on long-term adherence to home-based exercise programmes in physiotherapy. *Musculoskelet Sci Pract* 2018;38:77–82.
15. Riebe D, Franklin BA, Thompson PD, Garber CE, Whitfield GP, Magal M, et al. Updating ACSM's Recommendations for Exercise Preparticipation Health Screening. *Med Sci Sports Exerc* 2015;47:2473–9.
16. Borg G. A category scale with ratio properties for intermodal and interindividual comparisons. *Psychophysical Judgment and the Process of Perception* 1982:25–34.
17. Williamson A, Hoggart B. Pain: a review of three commonly used pain rating scales. *J Clin Nurs* 2005;14:798–804.
18. Dionne CE, Dunn KM, Croft PR, Nachemson AL, Buchbinder R, Walker BF, et al. A consensus approach toward the standardization of back pain definitions for use in prevalence studies. *Spine (Phila Pa 1976)* 2008;33:95–103.
19. Suzuki H, Aono S, Inoue S, Imajo Y, Nishida N, Funaba M, et al. Clinically significant changes in pain along the Pain Intensity Numerical Rating Scale in patients with chronic low back pain. *PLoS One* 2020;15:e0229228.
20. Lyubomirsky S, Lepper HS. A measure of subjective happiness: Preliminary reliability and construct validation. *Social Indicators Research* 1999;46:137–55.

21. Goldberg D, Bridges K, Duncan-Jones P, Grayson D. Detecting anxiety and depression in general medical settings. *BMJ* 1988;297:897–9.
22. Szende A, Oppe M, Devlin NJ, EuroQol Group, editors. EQ-5D value sets: inventory, comparative review, and user guide. Dordrecht: Springer; 2007.
23. Snyder E, Cai B, DeMuro C, Morrison MF, Ball W. A New Single-Item Sleep Quality Scale: Results of Psychometric Evaluation in Patients With Chronic Primary Insomnia and Depression. *J Clin Sleep Med* 2018;14:1849–57.
24. Espin A, García-García J, Latorre Erezuma U, Aiestaran M, Irazusta J, Rodríguez-Larrad A. Videoconference-Based Physical Performance Tests: Reliability and Feasibility Study. *Int J Environ Res Public Health* 2022;19:7109.
25. Maslach C, Jackson SE, Leiter MP. Maslach Burnout Inventory: Third edition. Evaluating stress: A book of resources, Lanham, MD, US: Scarecrow Education; 1997, p. 191–218.
26. El Fassi M, Bocquet V, Majery N, Lair ML, Couffignal S, Mairiaux P. Work ability assessment in a worker population: comparison and determinants of Work Ability Index and Work Ability score. *BMC Public Health* 2013;13:305.
27. Kessler RC, Barber C, Beck A, Berglund P, Cleary PD, McKenas D, et al. The World Health Organization Health and Work Performance Questionnaire (HPQ). *J Occup Environ Med* 2003;45:156–74.
28. Borg G. Psychophysical scaling with applications in physical work and the perception of exertion. *Scand J Work Environ Health* 1990;16:55–8.
29. Holtermann A, Hansen JV, Burr H, Søgaard K. Prognostic factors for long-term sickness absence among employees with neck-shoulder and low-back pain. *Scand J Work Environ Health* 2010;36:34–41.
30. Rodríguez-Larrad A, Espin A, Bidaurrezaga-Letona I, Esain I, Mujika I, Arizaga N, et al. Psycho-affective state and quality of life of female caregivers working in a long-term nursing home are related to practice regular physical activity. In: 9th International Association of Gerontology and Geriatrics European Region Congress 2019.
31. Richardson JTE. Eta squared and partial eta squared as measures of effect size in educational research. *Educational Research Review* 2011;6:135–47.
32. Andersen LL, Vinstrup J, Calatayud J, López-Bueno R, Clausen T, Manniche C. Analgesics and ASH medications in workers increase the risk of disability pension and mortality: prospective cohort. *Eur J Public Health* 2023:ckad064.

33. Poghosyan L, Clarke SP, Finlayson M, Aiken LH. Nurse Burnout and Quality of Care: Cross-National Investigation in Six Countries. *Res Nurs Health* 2010;33:288–98.
34. Dewa CS, Loong D, Bonato S, Thanh NX, Jacobs P. How does burnout affect physician productivity? A systematic literature review. *BMC Health Serv Res* 2014;14:325.

## 5. Tesiaren eztabaida orokorra

---

Tesi honetako helburu orokorra zaintzaileen min lunbarrari aurre egiteko ezagutza eta baliabideak sortzea izan da. Horretarako, lau helburu espezifiko ezarri genituen.

Lehenengo helburua bizkarreko mina garatzeko arrisku faktore psikologikoen identifikazioa izan zen. Horretarako, behaketa-ikerketak prospektiboak egin genuen Danimarkako 1,995 osasun langilerekin. Ikerketak honi esker osasun mentala eta bizitasuna bizkarreko minaren iragarle zirela ondorioztatu genuen. Zehazki, osasun mental ona eta bizitasun altua zuten langileekin alderatuz, behatu genuen osasun mental ertaina eta bizitasun baxu/ertaina zutenek, hurrenez hurren, urte betera minaren intentsitatea handitzeko arrisku altuagoa zutela maila lunbar, toraziko zein zerbikalean.

Bigarren helburua funtzio muskularra online modalitatean eta gainbegiratzeko sinkronoarekin baloratzeko proben baliozkotzea izan zen. Horretarako, aurrez-aurreko modalitate konbentzionalean baliozkotuak zeuden hiru probak identifikatu genituen (5RSTS, KUP eta SIF, beheko gorputz-adar, goiko gorputz-adar eta enborren baloraziorako, hurrenez hurren), eta bideokonferentzia sinkrono bitartez egiterakoan zuten fidagarritasun eta bideragarritasuna aztertu genituen. Guztira 96 pertsona heldu osasuntsuk hartu zuten parte ikerketan, eta hiru probek *test-retest* eta *inter-rater* fidagarritasun eta bideragarritasun egokiak zituztela ondorioztatu genuen.

Hirugarren helburua 12 asteko ariketa fisikoko online esku-hartze baten eraginak aztertzea izan zen. Horretarako, ausazko entsegu kontrolatua egin genuen 130 zaintzailerekin. Esku-hartzea min lunbarra murrizteko eraginkorra izan zen, eta baita esku/eskumuturretakoa ere. Horretaz gain, goiko gorputz-adarretako funtzio muskularra ere hobetu zen. Gainera, esku-hartzearekiko  $\geq 50\%$ ko atxikipena izan zuten zaintzaileetan, hobekuntza gehigarriak behatu genituen parametro psikoafektiboetan, sendagai hipnotiko/antsiolitikoaren kontsumoan eta funtzio muskularrean.

Laugarren helburua esku-hartzearen epe luzeko eraginak aztertzea izan zen. Horretarako, 48 astera (esku-hartzea bukatu eta 36 aste beranduago) gertatutako aldaketak aztertu genituen. Epe luzean, min lunbarraren gaineko onurak ez ziren mantendu. Hala ere, esku-hartzeak epe luzeko onurak eragin zituen zerbikaletako minaren lanarekiko interferentzia eta sendagai hipnotiko/antsiolitikoaren kontsumoan. Ordea, epe luzeko eragin kaltegarria behatu zen lanarekin lotutako errealizazio pertsonalean. Bestalde, esku-hartze gainbegiratuan  $\geq 50\%$ ko atxikipena izan zuten zaintzaileetan, aurreko parametroak ez ezik, baja egunak ere murriztu ziren.

Bizkarreko minaren arrisku faktoreen identifikazioari dagokionez gure ikerketa berritzailea izan zen arren (osasun mental eta bizitasunaren eragin prospektiboa lehenengo aldiz aztertu zen osasun langileen kohorte handi batean), kontuan izan behar da lagina ez zegoela zehazki zaintzaileez osatuta. Tesi honetako estantzia egin zen unean NFAn erabilgarri zeuden datuen artean, zaintzaileen ezaugarrietara gehien gerturatzeko zirenak hautatu genituen. Horregatik, egunerokotasunean pazienteen transferentziak egiten zituzten osasun langileen datuak aztertu genituen. Hala ere, komenigarria izango litzateke ildo honetan etorkizunean ikerketa berriak garatzea zaintzaileetan.

Bestalde, orain arte zaintzaileetan min lunbarraren arrisku faktoreen inguruan argitaratutako ikerketa gehienak Europako iparraldeko herrialdeetan garatu dira. Herrialde horietako zaintzaileen ezaugarriak gure inguruko zaintzaileen antzekoak izan daitezkeen arren, kontuan izan behar da herrialde bakoitzak berezitasun propioak dituela (kulturalak, lan baldintzei lotutakoak...). Hortaz, ezinbestekoa dirudi gure inguruko zaintzaileetan ebidentziak sortzen hastea. Guk dakigula, momentuz ez dago kalitate altuko ikerketa prospektiborik zaintzaileen min lunbarrerako arrisku faktoreak aztertuz Euskal Autonomia Erkidegoan ezta Espainian ere.

Zentzu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Espainian laneko esparruan osasuna sustatzeko erakunde publikoak daude, erregularitasunez estatistikak argitaratzen dituztenak (OSALAN, 2023; INSST, 2023). Hala ere, estatistika hauek nahiko orokorrak izaten dira, lanbide desberdinetan gertatzen diren istripu edo gaixotasunen prebalentzia eta intzidentzien ingurukoak, esaterako. Gainera, gehienetan zeharkako behaketetan oinarritzen dira estatistikak, eta era prospektiboan laneko ondorio kaltegarriak gertatzeko arrisku faktoreen azterketa ez da ohikoa. Estatistika hauek lagungarriak diren arren, lan arloko prebentzio estrategia eta esku-hartze eraginkorrak planifikatzerako orduan informazio mugatua ematen dute.

Euskal Autonomia Erkidegoarekin eta Espainiarekin alderatuz, Danimarkako erakunde publikoek funtzionamendu desberdina dute lan esparruko osasunaren kudeaketari dagokionez. NFAn, adibidez, Danimarkako langileen banakako datuak biltzen dituzten erregistro nazionaletara sarbidea dute. Datu hauetaz gain, erregularitasunez langileen artean inkestak/galdetegiak pasatu edota proba fisiko eta antzekoak egiten dituzte, kasuan kasuko interesen arabera informazio gehigarria lortzeko (Andersen, Bay, eta lank., 2023). Inkesta hauetan langile bakoitzaren kode pertsonalak jasotzen dituzte (Espainiako segurtasun sozialeko afiliazioaren kodearen antzekoak), eta horien bitartez

inkestak/galdetegi, proba fisiko eta abarren datuak erregistro nazionaletako informazioarekin (bajak, desgaitasunagatiko pentsioak, lan aldaketak, heriotzak...) parekatzeko aukera dute. Danimarkako legearen arabera, gainera, galdetegietan oinarritutako ikerketak egiteko ez da etika batzordeen onarpenik behar. Lan egiteko eredu hau gure ingurura inportatzeko legediarekin lotutako aldaketa garrantzitsuak egitea beharrezkoa izango litzatekeen arren, antzeko prozedurak ezartzen joateak laneko osasunaren promozio eta prebentzioa hobetzeko ezagutzaren sorkuntzan lagunduko luke, zaintzaileen min lunbarrean ez ezik, beste edozein lanbide zaugarri eta osasun arazo ohikoetan ere aplikagarria izanik.

Tesiko bigarren helburuari dagokionez, guk dakigula, gure ikerketa lehenengoa izan zen pertsona heldu osasuntsuetan bideokonferentzia sinkronoaren bitartez funtzio muskularreko probak baliozkotu zituen. Nahiz eta diseinu eta helburu zertxobait desberdinekin, gure artikulua argitaratu ondoren lan gehiago publikatu dira biztanleria orokorrean bideokonferentzia bidez egindako funtzio muskularreko proben bideragarritasun eta fidagarritasuna aztertuz (Bird eta lank., 2022; Mehta eta lank., 2023). Honek agerian uzten du gure ikerketa aitzindaria izan zela, eta COVID-19ko pandemia egoeran komunitate zientifikoak partekatutako beharrari erantzuten ziola.

2023ko urtarrilean gai honekin erlazionatutako berrikuspen bat ere argitaratu zen, pertsona nagusietan funtzio muskularra urrunetik ebaluatzeko proben bideragarritasun eta fidagarritasunaren ingurukoa hain zuzen ere (Heslop eta lank., 2023). Egileek ondorioztatu zuten, ordura arte argitaratutako literaturan oinarrituta, pertsona nagusietan ez zegoela urrunetik funtzio muskularra ebaluatzeko probarik bideragarritasun eta fidagarritasun frogatuarekin. Hala ere, kontuan izan behar da berrikuspenean barneratutako artikulua gehienetan ez zutela gainbegiratze sinkronorik erabili urrunetik egindako probetan. Izan ere, metodologiarik ohikoena partaideei era autonomoan probak egiteko jarraibideak partekatzea zen (probaren exekuzioaren adibidea erakusten zuen bideo grabazioa partekatuz, esaterako). Bideokonferentzia sistemak, ordea, ikerketa gutxitan erabili ziren, eta baliteke hauek baimentzen duten partaide-aztertzaile arteko elkarrekintza sinkronoa (tesi honetako baliozkotzean erabilitakoa), urrunetik garatutako funtzio muskularreko proben bideragarritasun eta fidagarritasuna bermatzeko beharrezko ezaugarria izatea.

Honen harira, Guidarelli eta lankideek (2022) bideokonferentzia sinkrono bidez egindako funtzio muskularreko proben baliozkotzea argitaratu zuten, tesi honetako

metodologiarekin alderatuz oso diseinu antzekoa erabili zuena, minbizia zuten pazienteak barneratu zituen laginean. Ikerketa horretan baliozkotutako proben artean 5RSTS zegoen, tesi honetan ere erabili izan dena. Esan beharra dago Guidarelli eta lankideek 0.92ko *test-retest* ICCa behatu zutela 5RSTS proban, tesi honetan behatutakoaren oso antzekoa (0.92 eta 0.98 emakume eta gizonetan, hurrenez hurren). Egileek ondorioztatu zuten aztertutako funtzio muskularreko probak bideragarri eta fidagarriak zirela bideokonferentzia bitartez egiten zirenean, baldin eta proba horiek beti aztertzaile berak eginak baziren. Izan ere, ikertzaileek behatu zuten *inter-rater* fidagarritasunak orokorrean *test-retest* fidagarritasunak baino baxuagoak zirela eta, hortaz, probak aztertzaile desberdinek egiterakoan fidagarritasuna murrizten zela. Adibidez, 5RSTS proban 0.65ko *inter-rater* ICCa behatu zuten, fidagarritasun “ertain” bezala definitzen dena (Koo eta Li, 2016). Tesi honetan, ordea, *inter-rater* ICC hori 0.99koa izan zen, fidagarritasun “oso altu” bezala definitzen dena (Koo eta Li, 2016). Dena den, aipatu beharra dago Guidarelli eta lankideen eta tesi honetako emaitzen arteko desberdintasun hau *inter-rater* fidagarritasuna aztertzeko erabilitako metodologia desberdinek azaldu dezaketela. Izan ere, Guidarelli eta lankideen ikerketan *inter-rater* fidagarritasuna aztertzeko bi aztertzaile desberdinek partaide bakoitzaren exekuzioa bi egun desberdinetan baloratu zuten (hau da, lehenengo egunean aztertzaile batek eta bigarren egunean beste aztertzaile batek). Prozedura honen arazoa da aztertzaileen arteko aldagarritasunaz gain (*inter-rater*),aldi berean egunen arteko aldagarritasuna ere (*test-retest*) sartzen dela jokoan, horrek ICC baxuagoak eragin ditzakeelarik. Tesi honetan, ordea, lau aztertzaile desberdinek partaide bakoitzaren exekuzio bera baloratu zuten. Era honetan aztertzaileen arteko aldagarritasuna baloratzen da soilik, eta “benetako” *inter-rater* fidagarritasuna aztertu, alegia.

Orokorrean, funtzio muskularra bideokonferentzia bitartez baloratzeko proba baliozkotuak egoteak ariketa fisikoko online esku-hartzeak erraztasun handiagoarekin abiatzea baimentzen duela esan daiteke. Izan ere, ariketa fisikoko esku-hartzeen eraginkortasuna neurtzeko gaitasun fisikoa funtsezko aldagaia izaten da, eta funtzio muskularreko probak ohikoak izaten dira partaideen eboluzioa neurtu eta ariketaren indibidualizazioa egiteko. Gainera, kontuan izan behar da online esku-hartzeak gero eta ohikoagoak direla literatura zientifiko eta praktika klinikoan, eta are gehiago COVID19ko pandemia garaitik aurrera. Hala ere, bideokonferentzia bitartezko funtzio muskularreko proben inguruko ikerketa lerroa nahiko berria dela esan daiteke, eta oraindik asko dago ikertzeaz. Adibidez, interesgarria izango litzateke etorkizuneko ikerketak orain arte aztertu ez diren proba eta populazioetan fokatzeari.



Tesi honetan aztertutako esku-hartzeari dagokionez, azpimarratu beharra dago, guk dakigula, literatura zientifikoan lehenengo ariketa fisikoko esku-hartzea dela bideokonferentzia sinkronoarekin eta taldeko formatuan egiten dena min muskuloskeletikoaren maneiu edo prebentziorako. Tesi hau abiatu zenetik, COVID-19ko pandemia egoera zela eta, zenbait ikerketek aztertu izan dituzte bideokonferentzia bitartezko ariketa fisikoko esku-hartzeak. Esaterako, Kuldavletova eta lankideek (2021) eta Granet eta lankideek (2023) pertsona nagusietan bideokonferentzia bidezko ariketa fisikoko esku-hartzeak abiatu zituzten, osasun fisiko zein mentalean eraginak aztertuz. Wilke eta lankideek (2022) ere antzeko esku-hartzea egin zuten pandemian zehar baina pertsona heldu osasuntsuetan. Hala ere, ikerketa hauetan guztietan partaideak bakoitza bere etxetik konektatzen ziren ariketa fisikoko saioetara (leku berean elkartu beharrean), eta beraz ezin da esan erabateko taldeko formatua jarraitzen zutenik. Jakina da ariketa fisikoari dagokionez taldeko formatuak atxikipen handiagoa eta, hortaz, eraginkortasun handiagoa ere izan dezakeela, banakako formatuarekin alderatuz (Burke eta lank., 2006). Hala ere, bideokonferentziara bakoitza bere etxetik konektatzean, partaideen arteko elkarrekintza ez da aurrez-aurre gertatzen denaren bezain handia, eta gerta liteke taldeko formatuaren onurak guztiz ez aprobetxatzea. Zentzu horretan, tesi honetako esku-hartzeak erabateko talde formatua jarraitu zuela esan daiteke, partaideak haien lantokian egokitutako leku batean elkartzen baitziren. Gure ustez, posible da taldeko formatu honek behatutako atxikipen-tasa altuan eta emaitza positiboetan eragina eduki izana.

Lan esparruan ere, guk dakigula, tesi honetako ariketa fisikoko esku-hartzea lehenengoa da bideokonferentzia sinkronoa eta taldeko formatua erabiltzen dituen langileetan. Zentzu honetan, Yaghoubitajani eta lankideen (2022) ikerketa baino ez dugu ezagutzen lan esparruan bideokonferentzia sinkronoa erabili izan duena. Hala ere, kasu honetan ere, ikerketako bulegoko langileak haien etxetik konektatzen ziren bideokonferentzia saioetara, beraz erabateko talde formatua erabili gabe. Bideokonferentzia sinkronoa eta aipatutako erabateko talde formatua erabili duten bi ariketa fisikoko esku-hartze baino ez ditugu ezagutzen. Horietako batean, Polkey eta lankideek (2018) *Tai Chi* programa baten eraginak aztertu zituzten biriketako gaixotasun buxatzaile kronikodun pazienteetan. Bestean, Elder eta lankideek (2016) osagai anitzeko ariketa fisikoaren eraginak aztertu zituzten landa-eremuetan bizi diren pertsona nagusietan. Tesi honetan, bideokonferentzia sinkrono bitartez eta taldeko formatuan egindako ariketa fisikoa bideragarria eta eraginkorra dela frogatu dugu lehendabiziko aldiz langileetan eta minaren maneian. Honek etorkizunean ebidentzia zientifikodun ariketa fisiko mota alternatibo gehiago egotea baimenduko du.

Ariketa fisikoa egitea eta gaitasun fisiko egokia mantentzea garrantzitsua da zaintzaileen moduko lanbideetan, non eguneroko zereginak eskakizun fisiko handiak eragiten dituzten. Izan ere, heldu osasuntsuetan, jakina da gaitasun fisiko hobea min muskuloeskeletikoaren prebalentzia baxuagoarekin, osasunarekin lotutako bizi kalitate altuagoarekin, eta funtzio fisiko zein lan egiteko gaitasun hobeeekin erlazionatzen dela, indikatzaileak indartsuenetarikoa aulki batetik altxa eta esertzeko gaitasuna izanik (Baldwin eta lank., 2018; Baldwin, McKay, Hiller, eta lank., 2017; Baldwin, McKay, Moloney, eta lank., 2017). Zentzu honetan, aipatzekoa da tesi honetako esku-hartzearen ondoren aulkitik altxa eta esertzeko gaitasuna hobetu egin zela  $\geq 50\%$ ko atxikipena izan zuten partaideetan. Ildo berean, Kolu eta lankideek (2017) min lunbarra zuten erizainetan egindako ikerketa batean, behatu zuten gaitasun fisiko hobea osasunarekin lotutako gastu ekonomiko baxuagoekin erlazionatzen zela (osasun profesionaletara bisitek, ospitalizazioek, sendagaien erabilerak, produktibitate galerak eta absentismoak eragindako gastuak kontuan edukita). Zehazki, erlazio hau adierazten zuen aldagaietako bat bular flexioak egiteko gaitasuna zen, tesi honetako esku-hartzearen ondoren hobetu zena ere (Kolu eta lank., 2017). Osasun langileak barneratu zituen beste ikerketa prospektibo batean, Merkus eta lankideek (2022) behatu zuten gaitasun aerobiko altuagoa eta gorputz masa indize baxuagoa faktore babesgarriak zirela laneko jarduera fisikoak min muskuloeskeletikoaren gain duen eragin negatiboari dagokionez.

Datu hauetan oinarrituta ariketa fisikoko esku-hartzeek izan dezaketen garrantzia agerian geratzen den arren, errealitatea da gutxitan jartzen direla martxan horrelako programak lantokian. Zentzu honetan, Christensen eta lankideek (2020) inkesta bat egin zuten zainketen sektoreko gerentzia postuetan lan egiten zuten 382 pertsonetan, haien lantokian osasunaren promoziorako programa bat (ariketa fisikoa barneratzen zuena) ezartzearen aukerarekiko zer nolako jarrera zuten aztertzeko. Orokorrean gerente gehienek uste zuten horrelako programek zaintzaileen osasun, ongizate eta lan egiteko gaitasuna hobetzeko ahalmena zutela, eta horregatik osasunaren promoziorako esku-hartzeen implementazioa komenigarria zeritzoten. Ordea, beste gerente batzuek ez zuten programa hauen ezarpena bideragarria ikusten, eta hauen artean osasunaren promoziorako programek osasuna hobetzeko duten ahalmenarekiko iritzia negatiboagoa zen. Programen bideragarritasuna eztabaidan jartzen zuten gerente hauen artean, gehien adierazten ziren arrazoiak antolakuntzarekin lotutakoak ziren. Batez ere, langileen txanda eta ordutegien antolaketa konplexua aipatzen zuten horrelako programak abian jartzeko oztopo bezala. Gerenteek adierazitako beste oztopo batzuk hurrengoak izan ziren: enpresaren baliabide

gabezia diru eta denborari dagokionez; aurretik bizitako esperientzia negatiboak antzeko programetan, langileen partaidetza baxuarekin; langileen motibaziorik eza; behar handiena zuten langileek gutxien parte hartuko zutelaren sentsazioa; eta osasuna zaintzea norberaren aisialdiko ardura pertsonala delaren iritzia, eta ez enpresarena. Christensen eta lankideen (2020) esanetan, mota honetako oztopoak (batez ere antolakuntzarekin erlazionatuak) kontuan hartzea eta gerenteen bermea lortzea ezinbestekoak dira lantokiko osasunaren promoziorako programak ezarri ahal izateko.

Lantokian osasunaren promoziorako programa martxan jartzea lortzen bada ere, askotan langileek parte hartzea erronka bat izaten da. Adibidez, tesi honetako esku-hartzean partaidetza doakoa izan arren, gonbidatuak izan ziren langileen %30ak baino ez zuen parte hartu. Ildo berean, lantokian garatutako osasunaren promoziorako 23 programa barneratu zituen berrikuspen batean, Robroek eta lankideek (2009) ere antzeko partaidetza-tasak behatu zituzten, mediana %33koa izan zen eta (tarte %10-64). Jarduera fisikoa oinarritutako eta lantokian garatutako esku-hartzeak barneratu zituen beste antzeko berrikuspen batean, ordea, Waters eta lankideek (2011) partaidetza-tasa altuagoak behatu zituzten, batezbestekoa %49koa izanik (tarte %20-%78). Hala ere, aipatzekoa da Waters eta lankideen berrikuspen honetan lantokiko jarduera fisikoko programek partaidetza-tasa baxuenetarikoa adierazi zutela, beste esparru batzuekin alderatuz. Izan ere, osasun arloan eta etxeko programetan, adibidez, batez besteko partaidetza-tasak %60 eta %68koak izan ziren, hurrenez hurren. Zaintzaileetan egindako osagai anitzeko esku-hartze batean (ariketa fisikoa barneratzen zuena), Ilvig eta lankideek (2018) behatu zuten esku-hartzea lanorduetatik kanpo ezartzea parte hartzeko oztopo nagusia zela. Zentzu honetan, komenigarria izango litzateke etorkizunean lanorduen barruan garatutako ariketa fisikoko programek partaidetza-tasa altuagoak lortzen dituzten aztertzea.

Lantokiko esku-hartzeak martxan jarri eta langileen partaidetza lortuta ere, zenbaitetan erronka handienetarikoa bat partaideek denboran zehar esku-hartzearekiko atxikipena mantentzea izaten da (Mahmood eta lank., 2023). Adibidez, aurretik aipatutako Waters eta lankideen berrikuspenean, lantokian garatutako jarduera fisikoko esku-hartzeen batez besteko mantentze-tasa %76koa baino ez zen izan (tarte %57-94) (Waters eta lank., 2011). Zentzu honetan, aipagarria da tesi honetako esku-hartze gainbegiratuan parte hartu zuten talde esperimentaleko partaideetan abandonu gutxi egon zirela. Izan ere, hasierako balorazioak bete zituzten 65 partaideetatik, soilik bik ez zituzten esku-hartze ondorengo balorazioak (12 astera) errepikatu. Gainera, bi kasuak behartuak izan ziren: baten hanka haustura eta bestearen herrialde aldaketa, hain zuzen ere. Abandonu kopuru txiki honek

partaideen esku-hartzerekiko (eta orokorrean ikerketarekiko) onargarritasun handia adierazi dezake. Abandonu kopuru txikiaz gain, gure tesiko esku-hartzean ariketa saioekiko atxikipen-tasa nahiko altua behatu genuen ere. Izan ere, talde esperimentaleko partaideek saio gainbegiratuaren %67 bete zituzten, batez beste. Saio gainbegiratuarekiko atxikipen altuagoa izan zuten partaideetan esku-hartzearen eraginkortasun handiagoa behatu zen gainera (bai 12. zein 48. asteko balorazioetan), *per-protocol* analisisiko emaitzek adierazten duten bezala. Prieske eta lankideen (2019) berrikuspen sistematikoan, zeinetan lantokian burututako ariketa fisikoko esku-hartzeak barneratu ziren, esku-hartzearekiko atxikipen-tasa oso aldagarriak behatu zituzten, %30 eta %99 artekoak, hain zuzen ere. Zentzu honetan, aipatzekoa da atxikipen-tasa adierazi zuten 13 ikerketatik, soilik bost ikerketan behatu zirela gure esku-hartzekoa baino atxikipen-tasa altuagoak (>%67).

Zaintzaileetan ohiko aurrez-aurreko ariketa fisikoa erabili duten beste ikerketa batzuetan ere eraginkortasun handiagoa behatu dute atxikipen altuagoa izan duten partaideetan. Adibidez, Skargren eta Obergek (1996) hobekuntza nabariagoak behatu zituzten sintomatologia muskuloeskeletiko, koadrizepseko indar eta gaitasun kardiobaskularrean atxikipen altuagoa izan zuten partaideetan. Ildo berean, Taulaniemi eta lankideek (2019) ariketa fisikoak eragindako onura gehigarriak behatu zituzten atxikipen-tasa altuagoko partaideen min lunbar, bizkarreko kontrol motor eta gaitasun aerobikoan. Bestalde, aipatzekoa da Taulaniemi eta lankideen ikerketa honetan bertan, esku-hartzearekiko atxikipenarekin lotutako aldagaiak aztertu zituztela beste artikulu batean (Taulaniemi eta lank., 2020). Atxikipen baxuagoarekin lotutako ezaugarri batzuk aldaezinak ziren arren (adibidez, zaintzailearen ikasketa maila baxuagoa), beste batzuk aldagarritzat har daitezke. Esaterako, minarekin lotutako beldurratiko aktibitatearen ekidite ideiak (ingelesez *fear-avoidance beliefs* deituak), hezkuntzaren bitartez landu zitezkeenak (Vergeld eta lank., 2021), eta txandakako lana egitea, langileen ordutegi berrantolaketa eginez ekidin zitezkeena, atxikipen baxuagoarekin erlazionatu ziren. Ildo berean, aurretik aipatutako Ilvig eta lankideen osagai anitzeko esku-hartzean, zaintzaileek haien lider edo buruengandik jasotako sostengurik eza eta esku-hartzearen inguruan jasotako informazioaren eta errealitatearen arteko inkongruentzia atxikipenerako oztupoak izan ziren. Horregatik, ikerlarien arabera, liderren sostengua bermatzea eta zaintzaileei esku-hartzearen inguruko informazio argia eman eta bere diseinuan murgiltzea lagungarriak izan daitezke atxikipena hobetzeko (Ilvig eta lank., 2018).

Lantokian esku-hartzea martxan jarri, partaidetza lortu, eta atxikipen altua edukita ere, partaideek programa gainbegiratua bukatu ondoren era autonomoan ariketa egiten

jarraitzea erronka are eta handiagoa izan daiteke (Saner eta lank., 2018). Izan ere, tesi honetako talde esperimentaleko partaideek, 12 asteko programa gainbegiratuak bukatu ondorengo jarraipen autonomoan zehar, gomendatu zitzaizen ariketa saioen %31 baino ez zuten bete, batez beste. Programa gainbegiratuaren ondoren (12. astean) behatutako zenbait onura (min lunbarraren hobekuntza, besteak beste) ez ziren mantendu 48. astean egindako balorazioetan, eta baliteke honen arrazoia jarraipen autonomo baxua izatea. Ewert eta lankideek (2009), zaintzaileak barneratzen zituen lagin batean egindako aurrez-aurreko ariketa fisikoko esku-hartze batean, antzeko joera behatu zuten programa gainbegiratuarekiko atxikipen eta jarraipen autonomoaren arteko desberdintasunari dagokionez. Izan ere, ariketa fisikoko esku-hartzean parte hartu zuen taldean, programa gainbegiratuarekiko atxikipena %67 izan zen arren (mediana), jarraipen autonomoa askoz baxuagoa izan zen. Zehazki, jarraipen autonomo honetan zehar partaideei ariketa fisikoa egiteko instalazioak 10 aldiz erabiltzeko aukera eman zitzaizen, eta behin baino ez zituzten erabili (mediana) (Ewert eta lank., 2009). Bestalde, ariketa fisikoko programa gainbegiratuak bukatzetik epe luzera egindako balorazioetan ohikoa izaten da esku-hartzearen onurak desagertu edo murriztea. Adibidez, Pohjonen eta lankideek (2001) bederatzi hilabeteko aurrez-aurreko ariketa fisikoko esku-hartzea egin zuten zaintzaileetan, eta balorazioak urte betera (esku-hartzea bukatu eta hiru hilabete ondoren) eta bost urtera egin zituzten. Urte beteko balorazioetan behatutako onura batzuk bost urtera mantendu ziren arren (gorputzeko gantz-ehunekoa, enborreko gihar flexoreen erresistentzia dinamikoa, eta lan egiteko gaitasuna), beste zenbait aldagaietan urte betera behatutako onurak desagertu egin ziren bost urtera (gorputz pisua, beheko gorputz-adarretako erresistentzia dinamikoa, enborreko hedatzaileen indar isometriko maximoa, eta oxigeno kontsumo maximoa). Ildo berean, zaintzaileetan burututako beste aurrez-aurreko ariketa fisikoko esku-hartze batean, Horneij eta lankideek (2001) 12 eta 18 hilabetera egin zituzten balorazioak. 12 hilabetera behatutako hobekuntza batzuk 18 hilabetera mantendu ziren arren (min lunbarraren interferentzia lanarekin eta/edo aisialdiko jardurekin eta lankideekin erlazioa), 12 hilabetera behatutako hobekuntza gehienak ez ziren 18 hilabetera mantendu (sorbaldako mina, lepo-sorbaldako minaren hedapena, lanean hautemandako esfortzu fisikoa, eta lanak eragindako estimulazio maila). Datu hauek iradokitzen dute ariketa fisikoa era jarraituan mantentzea garrantzitsua izan daitekeela onurak luzaroan mantentzeko. Horretarako, programa gainbegiratuaren iraupena luzatzea izango litzateke aukera bat, lantokian era iraunkorrean mantentzen den zerbitzua sortuz, soilik aldi baterako eskainiko den produktua erabili beharrean. Beste aukera bat langileen jarraipen autonomoa handitzeko estrategia eraginkorrak identifikatu

eta aplikatzea izango litzateke. Zentzu honetan, min lunbarra duten pertsonetan etxean era autonomoan egindako ariketa fisikoarekiko atxikipen handiagoa lortzeko, badirudi osasun profesionalaren nolabaiteko gainbegiratze eta kontaktua beharrezkoa direla. Besteak beste, partaideek osasun profesionalarekin komunikatzeko aukera edukitzea, osasun profesionalak laguntza, *feedback* eta ariketa egiteko abisuak ematea eta motibazioa sustatzea, edo erregularitasunez jarraipen eta monitorizazioak antolatzea ariketaren jarraipen autonomo hobea lortzeko ezaugarri garrantzitsuak izan daitezke (Beinart eta lank., 2013; Escolar-Reina eta lank., 2010; McLeod eta lank., 2023; Palazzo eta lank., 2016; Saner eta lank., 2018). Hau guztia partaideen behar eta helburu pertsonalak kontuan edukiz egin beharko litzateke gainera (McLeod eta lank., 2023), eta gainbegiratzea lortzeko bideokonferentzia sistemak eta, orokorrean, teknologia berriak, baliabide lagungarriak izan daitezke (McLeod eta lank., 2023; Palazzo eta lank., 2016).

Profesionalaren partaideekiko gainbegiratze eta harremana bermatuz ariketa fisikoaren jarraipen autonomoa sustatzeko esku-hartze interesgarria modalitate “hibridoa” izan liteke: ariketa gainbegiratu eta autonomoaren arteko konbinazioa, alegia. Hau da, nahiz eta ariketa fisikoko programa autonomoa izan (langileek haien lantoki edo etxean haien kabuz eginga, adibidez), noizean behin osasun profesional batek gainbegiratuak saioak antolatzea, hain zuzen ere. Erregularitasunez egindako saio gainbegiratu hauek taldekoak izatea interesgarria izango litzateke, langileak lantokian egokitutako gune batean elkartuz edota bakoitza bere etxetik bideokonferentzia saio batera konektatuz, esaterako. Modalitate hibrido hau epe luzean ekonomikoki bideragarria izan liteke, osasun profesionalaren gainbegiratzeak dakarren kostua murrizten delako. Aldi berean, eraginkortasuna mantendu lezake, noizbehinkako saio gainbegiratuak partaideen atxikipen egokia lortzen badute. Dena den, laneko esparruan burututako ariketa fisikoaren modalitate hibrido hau etorkizuneko ikerketetan aztertzea komenigarria izango litzateke, batez ere kostu-eraginkortasun ikuspuntu batetik. Izan ere, ariketa fisikoko programa bat benetako lan-ingurune zehatz batean aplikagarria den erabakitze garrantzitsua da kostu ekonomiko eta eraginkortasunaren arteko oreka ezagutzea. Ildo horretan, azpimarratzekoa da tesi honetako esku-hartze gainbegiratuarekiko  $\geq 50\%$ ko atxikipena izan zuten partaideen baja egunak era adierazgarrian murriztu egin zirela 48 asteko epean. Honek langileen ongizateari begira onura pertsonalak eragiteaz gain, enpresa eta gizartearentzat ere aurrezpen ekonomikoa eragin dezake. Dena den, zentzu honetan aitortu beharra dago tesi honetan ez dela analisi ekonomikorik egin oraindik, esku-hartzea aurrera eramateak eragin dituen gastuak alde batetik eta, laneko baja, minaren lanarekiko interferentzia

negatibo eta sendagaien erabileraren murrizketak eragin dituen aurrezpenak bestetik alderatuz. Honen harira, Kolu eta lankideek (2023) min lunbarra zuten osasun langileetan (zaintzaileak barne) egindako ausazko entsegu kliniko bateko emaitzak argitaratu dituzte duela gutxi. Entsegu honetan sei hilabeteko iraupeneko hiru esku-hartze alderatu zituzten kontrol talde batekin: (1) ariketa fisikoa, (2) min lunbarraren inguruko hezkuntza, eta (3) ariketa + hezkuntza konbinaturik. Partaide guztien jarraipena bi urtera egin zuten (esku-hartze garaia bukatu eta 18 hilabete ondoren). Besteak beste, bi urte horietan zehar talde bakoitzeko partaideek min lunbarrarekin lotutako sortutako gastuak konparatu zituzten (esku-hartzeak, absentismoak eta osasun arretak eragindako gastuak batuta). Orohar, ikusi zuten ariketa eta hezkuntza konbinatu zituen taldeko partaideek sortu zituztela batez besteko kosturik baxuenak (484€), beste taldeetako batez besteko gastuak nabarmen handiagoak izan ziren bitartean (613€, 671€, eta 948€ kontrol, ariketa, eta hezkuntza taldeetan, hurrenez hurren) (Kolu eta lank., 2023).

Zaintzaileak osasun egokiarekin eta, posible den heinean, minik gabe mantentzeko ariketa fisikoaren garrantzia agerikoa dirudien arren, zenbaitetan zaila izan daiteke langileak eta haien enplegataileak honen inguruan konbentzitzea. Izan ere, sarritan pentsa dezakete haien egunerokotasunean egiten duten lanaren eskakizun fisiko altuek ariketa fisikoaren funtzioa bete dezaketela, eta hortaz ez dela beharrezkoa lan esparrutik kanpo ariketa gehigarria egitea. Baina, zoritxarrez, gaur egungo ebidentzia zientifikoan oinarrituta, badirudi orokorrean lanean eta aisialdian egindako jarduera fisikoa kontrako osasun parametroekin erlazionatu daitezkeela. Gertaera honi jarduera fisikoaren paradoxa deitzen zaio, normalean literatura zientifikoan *physical activity paradox* bezala ezagutua ingelesez (Holtermann eta lank., 2018). Esaterako, 100,000 pertsonatik gora era prospektiboan jarraitu zituen ikerketa batean, aisialdian egindako jarduera fisikoa kontrako gertakari kardiobaskular eta heriotza pairatzeko arrisku baxuagoarekin erlazionatzen zela behatu zuten bitartean, lanean egindako jarduera fisikoa arrisku altuagoarekin erlazionatzen zela ondorioztatu zuten (Holtermann eta lank., 2021). Ildo berean, 650,000 langile baino gehiagoren datuak barneratu zituen meta-analisi batean, topatu zuten nahiz eta aisialdian burututako jarduera fisikoa gaixotasun kardiobaskularragatiko hilkortasun arrisku baxuagoarekin lotu, lanean egindako jarduera fisikoak ez zuela erlazio hau adierazten (Cillekens eta lank., 2022). Aisialdiko eta laneko jarduera fisikoaren osasunarekiko erlazio kontrajarri posible hauek azaltzeko arrazoiak guztiz ezagunak ez diren arren, zenbait argudio proposatu izan dira gertaera hau ulertarazteko (Holtermann eta lank., 2018). Besteak beste, lanorduetan burututako jarduera fisikoaren inguruan aipatu izan da

osasunari begira intentsitate baxuegia eta iraupen luzeegia izaten duela, langilearen jarduera fisikoarekiko kontrol minimoarekin eta berreskurapen tarte laburregiekin gainera. Izan ere, orokorrean osasunerako onurak lortzeko beharrezko jarduera fisikoaren ezaugarriak kontrakoak izaten dira: intentsitate ertain-kementsukoa, kontrolatua, eta beharrezko berreskurapen epeak errespetatuz. Bestalde, jakina da laneko jarduera fisikoak egun osoan zeharreko batez besteko bihotz maiztasuna eta odol presioa goratu eta inflamazio mailak igotzen dituela, ondorioz arrisku kardiobaskularra areagotuz (Holtermann eta lank., 2018).

Osasun orokorrean ez ezik, jarduera fisikoaren paradoxa hau langileen min muskuloeskeletikoan ere gertatu daitekeela iradokitzen duten ebidentziak daude. Esaterako, berrikuspen sistematiko batean, batez ere “lepo-urdineko” langileak barneratu zituen (ingelesez *blue-collar workers*, eskari fisiko altuko eskuzko lanak egiten dituztenak), ondorioztatu zuten lanean denbora luzeagoz eserita egoteak min lunbar eta zerbikala pairatzeko arriskua murrizten zuela (Øverås eta lank., 2020). Hala ere, berrikuspen honetako egileek aitortu zuten haien aurkikuntzak kontuz interpretatu behar zirela, erlazioak ahulak zirelako eta ikerketak murrizak eta akats metodologikoekin gainera. Osasun eta eraikuntza arloetako langileak barneratu zituen beste ikerketa prospektibo batean, nahiz eta estatistikoki adierazgarria ez izan, Merkus eta lankideek (2022) behatu zuten aisialdiko jarduera fisikoa babesgarria eta lanekoa arrisku faktorea zirela min muskuloeskeletikoa (bederatzi gorputz ataletako min intentsitatearen batura) garatzeko. Azkenik, Danimarkako 553 zaintzaile barneratu zituen beste ikerketa prospektibo batean, Neupane eta lankideek (2020) aurkitu zuten lanorduetan zehar jarduera fisiko maila altuagoa edukitzeak min “multi-lokalizatua” (aldibereko mina gorputz atal desberdinetan) garatzeko arriskua handitzen zuela.

Osasun orokor eta min muskuloeskeletikoarekin ez ezik, jarduera fisikoaren paradoxa laneko absentismoarekin ere lotzen duten zenbait ikerketa argitaratu dira. Esaterako, Holtermann eta lankideek (2012) 7,000 langiletik gorako laginarekin egindako ikerketa prospektiboan, ikusi zuten aisialdiko jarduera fisikoa babesgarria eta lanekoa arrisku faktorea zirela epe luzeko baja edukitzeko. Hala ere, ikerketa honetako muga bat jarduera fisikoa neurtzeko galdetegien erabilera izan zen, hauek langileek hautemandako datu subjektiboetan oinarritzen direlako, datu objektiboak erabili beharrean. Zentzu honetan, antzeko diseinua jarraitu duten beste ikerketa berriagoetan, langile kohorte handien jarraipen prospektiboak eginez baina jarduera fisikoa neurtzeko azelerometriari oinarritutako datu objektiboak erabiliz, baieztatu egin da aisialdiko jarduera fisikoa



absentismo arrisku baxuagoarekin eta lanekoa altuagoarekin erlazionatzen direla (Gupta eta lank., 2020; Ketels eta lank., 2023).

Jarduera fisikoaren paradoxa hau bereziki garrantzitsua da zaintzaileen moduko populazioetan, non lanaren eskaera fisikoak altuak diren. Alde batetik, aurreko lerroetan azaldu den bezala ezagunak direlako laneko jarduera fisikoaren erlazioak osasun, min eta absentismoarekin lotutako gertakari negatiboekin. Eta bestetik, zaintzaileen moduko lanbideetan ohikoa izaten delako lanetik kanpo ariketa fisiko gehigarriak ez egitea, lanean egindako jarduera fisikoa nahikoa dela pentsatu edota lanak eragindako nekea dela eta, aisialdian ariketa egiteko energiarik ez dutelako. Adibidez, Nooijen eta lankideek (2018) behatu zuten lanbide sedentarioetatik fisikoki aktiboak diren lanbideetara igarotzen diren langileek aisialdian ariketa fisiko gutxiago eginez konpentsatzen dutela. Horregatik, funtsezkoa dirudi zentzu honetan zaintzaileak eta haien enplegatzaileak hezitzea, lan jardueretatik kanpo ariketa fisiko egituratua praktikatzeak duen garrantzia azalduz. Hala ere, zaintzaileei mezu hau transmititzerako orduan nolabaiteko leuntasunarekin egitea komenigarria izan liteke, langileak haien osasun egoeraren arduradun bakarrak balira bezala tratatu gabe, eta haiek errudun sentiarazi gabe. Izan ere, zaintzaile batzuek zenbait arrazoi direla medio (lanak eragindako nekea, osasunaren inguruko ezjakintasuna, lanetik kanpoko ardurak, edo baliabide ekonomikoak, besteak beste) haien kabuz ariketa fisikoa egiteko zailtasunak izan ditzakete. Era berean, zenbait langilek pentsatuko dute ariketa fisikoko programak eskaintzea enpresaren ardura izango dela. Adibidez, logikoa dirudi pentsatzea suhiltzaileen moduko beste lanbide batzuetan (non gaitasun fisiko egokia mantentzea ezinbestekoa den) lanorduetan zehar fisikoki prestatzeko aukera duten bezala, zaintzaileen moduko sektoreetan ere aukera hori eskaini beharko litzatekeela. Bestetik, zenbait enplegatzailek argudiatuko dute fisikoki sasoi onean mantentzea zaintzaileen ardura pertsonala dela. Horrez gain, beste zenbait dilema egon daitezke zentzu honetan; esaterako, zaintzaile moduan lan egiteko ariketaren bitartez fisikoki prestatzea derrigorrezkoa edo hautazkoa izan beharko litzatekeen edo, prestatzea fisiko horri dagokionez, zaintzaileek era pribatuan ordaindua, enpresak finantzatua edota aurrekontu publikoek bermatutakoa izan beharko litzatekeen. Orohar, esan daiteke nahiz eta ezarpenarekin lotutako zenbait gauza oraindik eztabaidatu eta erabakitzearen dauden arren, zaintzaileetan ariketa fisikoa erregulartasunez sustatzearen onurak nahiko frogatuak daudela.

Laneko jarduera fisikoarekin erlazionatutako osasun parametro kaltegarriak aipatu diren bezala, badaude ebidentzia batzuk lanorduetan zeharreko jarrera sedentarioaren

arriskuak iradokitzen dituztenak. Adibidez, Jordakieva eta lankideen (2023) literaturaren berrikuspenean, aurkitu zuten lanorduetan bai intentsitate altuko jarduera fisikoak eta bai jarrera sedentarioak langileen hantura sistemikoa handitu eta arrazoi kardiobaskular eta minbiziarekin lotutako hilkortasun arriskua areagotzen zutela. Honen harira, duela urte batzuk zenbait egile *Goldilocks* printzipioa proposatzen hasi ziren, langileen osasuna sustatzeko lanorduetan zehar egindako jarduera fisiko “egokia” bilatzearen garrantzia defendatzen duena, sedentarismoa ekidinez baina, aldi berean, gehiegizko jarduera fisikoa egiten ez dela bermatuz (Holtermann eta lank., 2019; Straker eta lank., 2018). Printzipio hau “hiru hartzen” ipuinean oinarritzen da, non protagonistak (*Goldilocks* edo, euskaraz, “begi urdin”) hiru hartzetako bakoitzaren ahi, aulki eta oheak frogatzen dituen, batzuk beroegi/handiegigogorregiak, beste batzuk hotzegi/txikiegi/bigunegiak, eta azken batzuk justu “egokiak” aurkituz bere beharrentzat. Lan esparruan aplikatuta, *Goldilocks* printzipioak lanorduetako jarduera fisikoa moldatzea bilatzen du, langileen osasun beharrentzako jarduera justu “egokia” lortzeko helburuarekin. Printzipio honen defendatzaileen arabera, bere indarguneetako bat da “lantokiko ariketa fisikoaren paradigmaren” mugei aurre egiteko gaitasuna izan dezakeela. Izan ere, paradigma honen arabera, lantokiko ariketa fisikoko esku-hartzeek zenbait abantaila izan ditzaketen arren, muga batzuk ere eduki dezaketela argudiatu izan da (Holtermann eta lank., 2019). Adibidez, muga bezala proposatu izan da lantokian ariketa fisikoa egiten emandako denbora ez dela emankorra, langileak ez daudelako haien zereginak aurrera eramaten. Gainera, normalean lantokiko ariketa fisikoko programetan parte-hartzea hautazkoa izaten da, langilearen motibazio pertsonalaren arabera, eta horregatik partaidetza baxua izaten da sarritan. Bukatzeko, ohikoa izaten da lantokian egindako ariketa fisikoko programetan osasun egoera hobean dauden langileek parte hartzea, eta zenbaitetan ariketa hori egiteko behar handiena duten pertsonak ez dira murgiltzen (Waters eta lank., 2011), ingelesez *healthy worker effect* bezala ezagutzen den gertaerarekin lotuta dagoena (Eisen eta lank., 2006). *Goldilocks* printzipioak muga hauek gainditzeko ezaugarriak dituela esan liteke. Izan ere, lanorduen bitartean langileen jarduera fisikoa moldatzean oinarritzen denez, ez da denbora emankorrik galtzen eta langile guztietan eragiteko ahalmena dauka. Printzipio honen arabera, eskaera fisiko altuak dituzten lanbideetan nolabait eskaera horiek murrizten saiatu beharko litzateke langileen osasun egokia bermatzeko. Adibidez, azken urteetan zenbait egilek proposatu izan dute langileen (batez ere adin ertainekoak eta nagusiak) eskakizun fisikoak murrizteak eragin positiboak izan ditzakeela absentismo, presentismo, eta desgaitasunaren moduko aldagaietan (Bláfoss eta lank., 2023; López-Bueno eta lank., 2023; Pedersen eta lank., 2022). Etxeko zainketa

zerbitzuetan aritzen diren zaintzaileetan ere, Liaset eta lankideek (2023) *Goldilocks* printzipioa zelan aplikatu daitekeen aztertu zuten duela gutxi. Laburbilduz, lanaren emankortasuna mantenduz langileen osasuna sustatzeko, zaintzaileen artean eskaera fisiko maila desberdinetako zerbitzuak eta etxeetara heltzeko garraio modalitateak era parekatuagoan banatu zitezkeela ondorioztatu zuten (Liaset eta lank., 2023). Zentzu honetan, komenigarria izango litzateke etorkizunean esku-hartzeen bitartezko ikerketak abian jartzea, horrelako neurriek zaintzaileen osasunean eduki dezaketen eragina aztertzeke. Zaintzaileetan egindako beste ikerketa batean, Stevens eta lankideek (2018) behatu zuten osagai anitzeko esku-hartze baten ondoren, lanean hautemandako esfortzu fisikoaren murrizketa zela min lunbarraren hobekuntza azaltzen zuen faktore bakarra. Aurkikuntza hau “bitartekaritza analisi” baten bitartez lortu zuten (ingelesez, *mediation analysis*), esku-hartze baten eraginak zer faktorek azaltzen dituzten aztertzea baimentzen duena (Lee eta lank., 2019), eta bereziki baliagarria izan daitekeena esploratzeko ariketa fisikoan oinarritutako esku-hartzeek zergatik hobetzen duten min lunbarra. Izan ere, ariketa fisikoak min lunbarra murrizteko mekanismoak ezagutzea ikerketa zientifikoan proposatzen diren erronketako bat da. Gaur egun ebidentzia gutxi dago oraindik zentzu horretan, eta mekanismo horien inguruko ezagupena handitzeak garrantzi handia duela esan daiteke, min lunbarraren abordatzean eraginkorragoak izatea baimendu lezake eta.

Ikuspuntu biomekaniko batetik, argudiatu izan da sistema muskuloeskeletikoaren egitura eta funtzioan hobekuntzak, eta bereziki indar muskularraren irabaziak, ariketa fisikoak eragindako minaren murrizketa azaldu dezaketela (Vaegter eta Jones, 2020). Hala ere, literatura zientifikoan eztabaida dago zentzu horretan. Izan ere, Steiger eta lankideen (2012) berrikuspen sistematikoan, ondorioztatu zuten ariketa fisikoan oinarritutako esku-hartzeen ondorengo min lunbarraren hobekuntzak ez zeudela funtzio muskuloeskeletikoaren hobekuntzekin (mugikortasuna, indar eta erresistentzia muskularra) lotuta. Aldiz, Prat-Lluri eta lankideek (2023) duela gutxi argitaratutako meta-analisi batean, ondorioztatu zuten ariketa fisikoko esku-hartzeetan aldaka edo/eta enborreko mugikortasunaren irabaziak min lunbarraren eta desgaitasunaren hobekuntza handiagoekin erlazionatuta zeudela. Ildo berean, Wun eta lankideen (2021) literaturaren berrikuspenean, behatu zuten ariketa fisikoko entsegu klinikoetan mekanismo neuromuskularrak eta, zehazki, indar muskularraren irabaziak, zirela min lunbarraren hobekuntzak azaltzeko proposatzen ziren arrazoirik ohikoenak. Sorbaldako mina duten pertsonetan ere, indar muskularraren hobekuntza da pazienteengandik gehienetan minaren murrizketa azaltzeko mekanismo bezala hautematen den arrazoa, hobekuntza

psiko-emozionalekin batera (Powell eta lank., 2023). Hain zuzen ere, mekanismo psikosozialak dira, neuromuskularren ondoren, ariketa fisikoaren min lunbarraren gaineko hobekuntzak azaltzeko gehienetan proposatzen direnak (Wun eta lank., 2021). Besteak beste, mugimenduarekiko beldurraren murrizketa eta minari aurre egiteko norberaren gaitasunean konfiantza handiagotua (ingelesez, *self-efficacy*) dira gehiagotan aipatzen direnak. Ikuspuntu biologiko batetik, ariketa fisikoak minaren murrizketa eragiteko mekanismoak erabat ulertzen ez diren arren, badirudi sistema opioide endogenoaren aktibazioak funtzio garrantzitsua duela. Hala ere, argudiatu izan da sistema endokanabinoide, serotonergiko, immune, eta nerbioso autonomoak ere garrantzia izan dezaketela (Rice eta lank., 2019). Bestalde, mekanismo hauetaz gain, ezin da baztertu ariketa fisikoak nolabaiteko plazebo eragina ere edukitzea min lunbarra murrizterako orduan. Adibidez, Vaegter eta lankideek (2020) egindako ikerketa batean, behatu zuten ariketa fisikoa egin aurretik emandako informazioak ondorengo minaren aldaketan eragina zuela. Izan ere, ikerketako partaideei ariketaren inguruko informazio negatiboa helarazten zitzairenean (hau da, nolabait ulertaraztea ariketak mina sor dezakeela), ariketak eragin hiperalgesikoa zuen. Aldiz, helarazitako informazio hori neutro edo positiboa zenean, ariketak eragin hipoalgesikoa zuen (Vaegter eta lank., 2020). Hortaz, posible izan daiteke partaideen espektatibek ere ariketa fisikoaren min lunbarraren gaineko eraginak modulatzeko. Zentzu honetan, Miller eta lankideen meta-analisan (2022) ondorioztatu zuten min lunbarra murrizteko ariketa fisikoa kontrol egoerak baino hobea izan arren, nolabaiteko ebidentzia zegoela iradokiz ariketa fisikoa ez dela ariketa fisikoan oinarritzen ez diren beste plazebo tratamendu batzuk (adibidez, Omega 3 pilula) baino eraginkorragoa min lunbarra tratatzerako orduan.

Ariketa fisikoaren bidezko min lunbarraren hobekuntza azaltzeko mekanismoak aztertzeaz gain, garrantzitsua da ere ezagutzea zein faktorek (ingelesez, *effect modifiers*) baldintzatzen duten ariketa fisikoaren eraginkortasuna minaren murrizketan. Zentzu honetan, Hayden eta lankideen (2020) meta-analisan, zenbait faktore identifikatu zituzten ariketa fisikoaren bitartez min lunbarra murrizteko eraginkortasuna baldintzatu dezaketenak. Hain zuzen ere, behatu zuten lanean eskaera fisiko altuak ez edukitzea, minarentzako sendagaiak erabiltzea eta gorputz masa indize baxua izatea eraginkortasun handiagoarekin lotzen zirela (Hayden eta lank., 2020). Orokorrean, esan daiteke gaur egungo literatura zientifikoan, jada eztabaida ez dela hainbeste ea ariketa fisikoak min lunbarra murrizten duen edo ez, baizik eta zein ariketa fisiko motak funtzionatzen duen hobeto eta zein pertsonatan. Horretarako, ezinbestekoa dirudi min lunbarraren etiologiari

buruzko eta ariketa fisikoaren mina murrizteko mekanismoen inguruko ezagutza handitzea. Izan ere, literatura zientifikoan ariketa fisikoaren bidez min lunbarra gutxitzeko mekanismo ugari proposatzen diren arren, oraindik oso gutxi daude metodologia egokiekkin eta era sendoan frogatuta. Honek agerian uzten du oraindik gutxi dakigula zentzu horretan, eta ariketa fisikoaren bidezko min lunbarraren maneian hobekuntza tarte handia dagoela. Garrantzitsua dirudi, besteak beste, identifikatzea min lunbarra duten zein pertsonen erantzuten duten hobeto ariketa modalitate bakoitzarekiko (ingelesetik eratorritako terminoak erabilia, nortzuk diren *responder* eta *non-responder*, alegia). Zentzu honetan ezagutza handitzeak ariketa fisikoa modu eraginkorragoan indibidualizatzea baimenduko luke. Horretarako, beharrezkoa dirudi aurretik aipatutako bitartekaritza analisiak egitea eta *effect modifier* deiturikoak identifikatzea, oraindik tesi honetako datuekin egitear dagoena.

Tesi honetako indargune batzuk aurretik aipatu diren arren, esan daiteke orokorrean sendotasunik nabariena online formatuaren erabilerak dakarren berritasuna dela. Izan ere, online modalitateak egungo beharrei aurre egiten die, batez ere COVID-19ko pandemia ondoren agerian geratu zirenak. Bai online balorazio zein esku-hartzean bideragarritasun eta onargarritasun egokiak frogatu dira, eta honek logistiko zein ekonomikoki abantailatsua izan daitekeen alternatiba eskainiko du etorkizunean, distantzia fisiko interpersonalarekin bateragarria dena gainera. Tesi honetan proposaturiko online baliabideak bereziki erabilgarriak izango dira erabiltzaileetara heltzeko zailtasunak (adibidez, urrutiko eremuetan bizi diren pertsonak) edo ezintasuna (adibidez, osasun arrazoiengatik sarbide mugak) daudenean. Bestalde, azpimarratu beharra dago tesi honetan garatutako ikerketa guztiak berritzaileak izan direla era batean edo bestean. Izan ere, behaketa-ikerketa prospektiboa lehenengoa izan da bizkarreko minean osasun mental eta bizitasunaren eragina aztertu duena osasun langileen kohorte handi batean; funtzio muskularreko proben baliozkotzea lehenengoa izan da pertsona heldu osasuntsuetan bideokonferentzia sinkronoaren bitartez egina; eta ariketa fisikoko esku-hartzea lehenengoa izan da bideokonferentzia sinkrono eta taldeko formatuan burututakoa min muskuloeskeletikoaren maneiorako. Gainera, ikerketa guztietan laginaren tamaina egokiak erabili dira. Behaketa ikerketa-prospektiboan ia 2,000 langileko kohorte handiak hartu zuen parte, proben baliozkotzean gidetan proposatutako gutxieneko partaide kopurua bermatu zen, eta esku-hartzean laginaren tamainaren kalkuluaren arabera ezarritako zaintzaileak barneratu ziren. Azkenik, ikerketa guztiek metodologia zientifikoki egokiak bete dituzte. Esaterako, behaketa-ikerketak diseinu

prospektiboa izan zuen, jarraipen epe luzearekin, eta zenbait nahaste aldagaiekiko kontrol zorrotza aplikatuz; proben baliozkotzean *test-retest* eta *inter-rater* fidagarritasun erlatibo eta absolutuak aztertu ziren, zenbait bideragarritasun aldagaiekin batera; eta esku-hartzearen eraginak aztertzeko ausazko entsegu kontrolatua erabili zen, aztertzaile eta datuen analisia egiteko arduradunen itsutasuna bermatuz eta epe luzeko aldaketak 48. asteko balorazioaren bitartez analizatuz.

Hala ere, muga batzuk ere onartu behar dira. Adibidez, behaketa-ikerketak prospektiboari dagokionez, aipatu beharra dago osasun langileetan egin zela, zehazki zaintzaileetan egin beharrean, hasierako helburua zena. Gainera, erantzunik eza eta oroimenarekin lotutako alborapenen presentzia (ingelesez, *non-response* eta *recall bias*, hurrenez hurren), sarritan galdetegiaren oinarritutako ikerketen berezko ezaugarria den heinean, ezin da alde batera utzi (Cheung eta lank., 2017; Jones eta lank., 2013). Proben baliozkotzean ere, aitortu behar da partaide gehienak bideokonferentzia sistemak erabiltzera eta probetan erabilitako mugimenduen antzeko indar ariketak egitera ohituta zeudela, behatutako fidagarritasun eta bideragarritasun altuetan nolabait eragin lezakeena. Azkenik, esku-hartzearen inguruan, onartu behar da langileen parte-hartze baxua aurkikuntzak orokortzerako orduan muga bat izan daitekeela eta, zaintzaileen ezaugarri zehatzak direla eta, emaitzak ez liratekeela zuzenean beste populazio batzuetara aplikatu beharko. Gainera, kontuan izan behar da bigarren mailako aldagaiei dagokienez ez dela beharrezko lagin tamainaren kalkulurik egin, eta beraz agian horietan behatutako emaitzak ez dira ikerketako aldagai nagusiko aurkikuntzak bezain fidagarriak.

Hau guztia kontuan edukita, esan daiteke etorkizunean tesi honetako gaiarekin lotutako zenbait ikerketa abian jartzea interesgarria izango litzatekeela. Adibidez, komenigarria izango litzateke min lunbarrarentzako arrisku faktoreen detekziorako behaketa-ikerketak prospektiboak burutzea Euskal Autonomia Erkidegoko zaintzaileetan. Bideokonferentzia bidezko proben inguruan, gaitasun fisikoaren beste zenbait esparru aztertzeko probak eta beste zenbait populazio zehatzetan fokatuak baliozkotzean daude oraindik. Esku-hartzeari dagokionez, tesi honetako datuekin zenbait analisi gehigarri egin daitezke oraindik. Besteak beste, interesgarria izango litzateke aurretik aipatutako bitartekaritza analisi eta *effect modifier* deiturikoen identifikazioa burutzea, analisi ekonomikoa egitea, edota jarraipen autonomoan zehar egindako ariketa fisikoan oinarritutako *per-protocol* edo antzeko analisiak egitea, behin esku-hartze gainbegiratu bukatzean egindako ariketak epe luzeko emaitzetan duen eragina aztertzeko. Horrez gain, etorkizunean zaintzaileen min lunbarrarentzako ariketa fisikoan oinarritutako ausazko entsegu kontrolatu berriak

abiatzea komenigarria izango litzateke; esaterako: tesi honetako esku-hartze berdina edo antzekoa baina eskala handian/orokortuan izan dezakeen ezarpena aztertuz, modalitate gainbegiratua eta autonomia tartekatzen dituen formatu “hibridoa”, eta lanorduetan zehar edo kanpo eta online edo aurrez-aurre egindako esku-hartzeen arteko konparazioak. Ariketa fisikoaz gain, interesgarria izango litzateke ere lantokiko ariketa fisikoaren paradigmarekin lotutako mugei aurre egiteko *Goldilocks* printzipioan oinarritutako esku-hartzeen eraginak aztertzea. Gainera, entsegu berri horiek diseinatzerakoan komenigarria izango litzateke kostu-eraginkortasun erlazioaren analisi ekonomikoa barneratzea.

## 6. Ondorioak

---



Tesi honen ondorioak hurrengo lerroetan deskribatuko dira:

1. Danimarkan osasun langileekin egindako ikerketa prospektiboaren arabera, osasun mental ona eta bizitasun altua zuten langileekin alderatuz, osasun mental ertaina eta bizitasun baxu/ertaina zutenek, hurrenez hurren, urte betera bizkarreko minaren intentsitatea handitzeko arrisku altuagoa zuten maila lunbar, toraziko zein zerbikalean. Hortaz, osasun mentala eta bizitasuna osasun langileen bizkarreko minaren prebentzioan kontuan hartzeko faktoreak izan daitezke.
2. *5-repetition sit-to-stand*, *kneeling push-up* eta *Shirado-Ito trunk flexor endurance* probak bideokonferentzia bitartez egitea bideragarria eta fidagarria da. Honek funtzio muskularra urrunetik baloratzeko tresna eskaintzen du, logistiko eta ekonomikoki abantailatsua eta distantzia fisiko interpertsonalarekin bateragarria izan daitekeena.
3. Bideokonferentzia bidez gainbegiratutako ariketa fisikoko esku-hartzea zaintzaileen min lunbarra murrizteko eraginkorra izan zen. Honek lan esparruan eta minaren maneian ariketa fisikoa egiteko modalitate bideragarri alternatiboa eskaintzen du.
4. Bigarren mailako aldagaiei dagokienez, esku-hartzeak zaintzaileen esku/eskumuturretako mina murriztu eta goiko gorputz-adarretako funtzio muskularra hobetu zituen ere. Honek zaintzaileen ongizatea hobetzen lagundu lezake, hala nola haien lana segurtasun eta eraginkortasun handiagoarekin egitea baimenduz.
5. Horrez gain, esku-hartzearekiko  $\geq 50\%$ ko atxikipena izan zuten zaintzaileetan, hobekuntza gehigarriak behatu ziren parametro psikoafektiboetan, sendagai hipnotiko/antsiolitikoaren kontsumoan eta funtzio muskularrean. Honek ariketa fisikoaren dosi altuagoak onura gehigarriekin lotuta egon daitezkeela iradoki dezake.
6. Esku-hartze gainbegiratuaren ondoren frogatutako min lunbarren hobekuntzak ez ziren 48 astera mantendu, zaintzaileei ariketa fisikoa egiten jarraitzea gomendatu zitzaien arren. Honen arrazoia partaideetan behatutako ariketaren jarraipen autonomo baxua izan liteke. Hortaz, zaintzaileek haien kabuz ariketa egiten jarraitzeko estrategia eraginkorrak identifikatzea garrantzitsua izan liteke, min lunbarrean onurak epe luzean iraunarazteko.

7. Bigarren mailako aldagaiei dagokienez, 48 astera zaintzaileen zerbikaletako minaren lanarekiko interferentzian eta sendagai hipnotiko/antsiolitikoaren kontsumoan onurak behatu ziren. Ordea, eragin kaltegarria behatu zen lanarekin lotutako errealizazio pertsonalean. Eragin kaltegarri hau zaintzaileek haien lantokian ariketa fisikoko programan parte hartzeko aukera galdu izanagatik etor liteke. Hau horrela izatekotan, ariketa fisikoko programak era iraunkorrean eskaintzearen garrantzia iradoki lezake, zaintzaileen lanarekiko errealizazioa mantentzeko.
8. Horrez gain, esku-hartze gainbegiratuarekiko  $\geq 50\%$ ko atxikipena izan zuten zaintzaileetan, baja egunak murriztu ziren 48 asteko epean. Honek langileen ongizateari begira onura pertsonalak eragiten ditu, eta zaintzen duten pertsonetan, lan egiten duten enpresan eta gizartean eragin positiboa izan lezake.
9. Behatutako emaitzetan oinarrituta, komenigarria dirudi zaintzaileei tesi honetan proposatzen den moduko ariketa fisikoko esku-hartzeak era iraunkorrean eskaintzea. Gainera, garrantzitsua dirudi partaidetza eta atxikipen handienak lortzeko estrategia eraginkorrak eta epe luzean bideragarriak izan daitezkeen esku-hartzeak identifikatzea, ariketa fisikotik eratorritako onura ahalik eta handienak bilatzeko.

# 7. Bibliografia

---

Aburuz, S., Bulatova, N., Twalbeh, M., eta Gazawi, M. (2009). The validity and reliability of the Arabic version of the EQ-5D: A study from Jordan. *Annals of Saudi Medicine*, 29(4), 304–308.

ACSM. (2018). Guidelines for exercise testing and prescription, 10<sup>th</sup> ed.; Wolters Kluwer: Philadelphia, PA, USA.

Agnus Tom, A., Rajkumar, E., John, R., eta Joshua George, A. (2022). Determinants of quality of life in individuals with chronic low back pain: A systematic review. *Health Psychology and Behavioral Medicine*, 10(1), 124–144.

Al Amer, H. S. (2020). Low back pain prevalence and risk factors among health workers in Saudi Arabia: A systematic review and meta-analysis. *Journal of Occupational Health*, 62(1), e12155.

Albornoz-Cabello, M., Barrios-Quinta, C. J., Barrios-Quinta, A. M., Escobio-Prieto, I., Cardero-Durán, M. de los A., eta Espejo-Antunez, L. (2021). effectiveness of tele-prescription of therapeutic physical exercise in patellofemoral pain syndrome during the COVID-19 pandemic. *International Journal of Environmental Research and Public Health*, 18(3), 1048.

Amiri, S. (2023). Exercise training and depression and anxiety in musculoskeletal pain patients: A meta-analysis of randomized control trials. *Neuropsychiatry*, 37(2), 88–100.

Amiri, S., eta Behnezhad, S. (2020). Sleep disturbances and back pain: Systematic review and meta-analysis. *Neuropsychiatry*, 34(2), 74–84.

Amiri, S., Behnezhad, S., eta Azad, E. (2020). Back pain and depressive symptoms: A systematic review and meta-analysis. *International Journal of Psychiatry in Medicine*, 91217420913001.

Andersen, L. L., Bay, H., eta Rugulies, R. (2023). Study design of National Surveillance of the Work Environment of Employees in Denmark (NASWEED): Prospective cohort with register follow-up. *Scandinavian Journal of Public Health*, 14034948231182022.

Andersen, L. L., Burdorf, A., Fallentin, N., Persson, R., Jakobsen, M. D., Mortensen, O. S., Clausen, T., eta Holtermann, A. (2014). Patient transfers and assistive devices: Prospective cohort study on the risk for occupational back injury among healthcare workers. *Scandinavian Journal of Work, Environment & Health*, 40(1), 74–81.

Andersen, L. L., Clausen, T., Burr, H., eta Holtermann, A. (2012). Threshold of musculoskeletal pain intensity for increased risk of long-term sickness absence among female healthcare workers in eldercare. *PLoS One*, 7(7), e41287.

Andersen, L. L., Clausen, T., Mortensen, O. S., Burr, H., eta Holtermann, A. (2012). A prospective cohort study on musculoskeletal risk factors for long-term sickness absence among healthcare workers in eldercare. *International Archives of Occupational and Environmental Health*, 85(6), 615–622.

Andersen, L. L., Saervoll, C. A., Mortensen, O. S., Poulsen, O. M., Hannerz, H., eta Zebis, M. K. (2011). Effectiveness of small daily amounts of progressive resistance training for frequent neck/shoulder pain: Randomised controlled trial. *Pain*, 152(2), 440–446.

Andersen, L. L., Vinstrup, J., Calatayud, J., López-Bueno, R., Clausen, T., eta Manniche, C. (2023). Analgesics and ASH medications in workers increase the risk of disability pension and mortality: Prospective cohort. *European Journal of Public Health*, ckad064.

Andersen, L. L., Vinstrup, J., Villadsen, E., Jay, K., eta Jakobsen, M. D. (2019). Physical and psychosocial work environmental risk factors for back injury among healthcare workers: Prospective cohort study. *International Journal of Environmental Research and Public Health*, 16(22), 4528.

Atkinson, G., eta Nevill, A. M. (1998). Statistical methods for assessing measurement error (reliability) in variables relevant to sports medicine. *Sports Medicine*, 26(4), 217–238.

Baicker, K., Cutler, D., eta Song, Z. (2010). Workplace wellness programs can generate savings. *Health Affairs*, 29(2), 304–311.

Baldwin, J. N., McKay, M. J., Burns, J., Hiller, C. E., Nightingale, E. J., eta Moloney, N. (2018). What are the similarities and differences between healthy people with and without pain? *Scandinavian Journal of Pain*, 18(1), 39–47.

Baldwin, J. N., McKay, M. J., Hiller, C. E., Moloney, N., Nightingale, E. J., eta Burns, J. (2017). Relationship between physical performance and self-reported function in healthy individuals across the lifespan. *Musculoskeletal Science and Practice*, 30, 10–17.

Baldwin, J. N., McKay, M. J., Moloney, N., Hiller, C. E., Nightingale, E. J., Burns, J., eta 1000 Norms Project Consortium. (2017). Reference values and factors associated with musculoskeletal symptoms in healthy adolescents and adults. *Musculoskeletal Science & Practice*, 29, 99–107.

Bardin, L. D., King, P., eta Maher, C. G. (2017). Diagnostic triage for low back pain: A practical approach for primary care. *The Medical Journal of Australia*, 206(6), 268–273.

Baxter, G. D., Chapple, C., Ellis, R., Hill, J., Liu, L., Mani, R., Reid, D., Stokes, T., eta Tumilty, S. (2020). Six things you need to know about low back pain. *Journal of Primary Health Care*, 12(3), 195–198.

Beaton, D. E., Hogg-Johnson, S., eta Bombardier, C. (1997). Evaluating changes in health status: Reliability and responsiveness of five generic health status measures in workers with musculoskeletal disorders. *Journal of Clinical Epidemiology*, 50(1), 79–93.

Beinart, N. A., Goodchild, C. E., Weinman, J. A., Ayis, S., eta Godfrey, E. L. (2013). Individual and intervention-related factors associated with adherence to home exercise in chronic low back pain: A systematic review. *The Spine Journal*, 13(12), 1940–1950.

Bernal, D., Campos-Serna, J., Tobias, A., Vargas-Prada, S., Benavides, F. G., eta Serra, C. (2015). Work-related psychosocial risk factors and musculoskeletal disorders in hospital nurses and nursing aides: A systematic review and meta-analysis. *International Journal of Nursing Studies*, 52(2), 635–648.

Bird, M. L., Peel, F., Schmidt, M., Fini, N. A., Ramage, E., Sakakibara, B. M., ... eta English, C. (2022). Mobility-focused physical outcome measures over telecommunication technology (Zoom): Intra and interrater reliability trial. *JMIR rehabilitation and assistive technologies*, 9(3), e38101.

Bischoff, L. L., Otto, A.-K., Hold, C., eta Wollesen, B. (2019). The effect of physical activity interventions on occupational stress for health personnel: A systematic review. *International Journal of Nursing Studies*, 97, 94–104.

Bizkaiko Foru Aldundia. (2022). Comienza la formación para la profesionalización de 465 trabajadoras de residencias de Bizkaia. Retrieved December 26, 2023, from <https://www.bizkaia.eus/es/web/comunicacion/noticias/-/news/detailView/22450>

Bjorner, J. B., Thunedborg, K., Kristensen, T. S., Modvig, J., eta Bech, P. (1998). The Danish SF-36 Health Survey: Translation and preliminary validity studies. *Journal of Clinical Epidemiology*, 51(11), 991–999.

Bláfoss, R., Skovlund, S. V., Skals, S., Sundstrup, E., López-Bueno, R., Calatayud, J., eta Andersen, L. L. (2023). Duration and intensity of occupational lifting and risk of long-term sickness absence: Prospective cohort study with register follow-up among 45 000 workers. *Scandinavian Journal of Work, Environment & Health*, 49(4), 283–292.

Bláfoss, R., Vinstrup, J., Skovlund, S. V., López-Bueno, R., Calatayud, J., Clausen, T., eta Andersen, L. L. (2021). Musculoskeletal pain intensity in different body regions and risk of disability pension among female eldercare workers: Prospective cohort study with 11-year register follow-up. *BMC Musculoskeletal Disorders*, 22(1), 771.

Blanco-Donoso, L. M., Moreno-Jiménez, J., Amutio, A., Gallego-Alberto, L., Moreno-Jiménez, B., eta Garrosa, E. (2021). Stressors, job resources, fear of contagion, and secondary traumatic stress among nursing home workers in face of the COVID-19: The case of Spain. *Journal of Applied Gerontology*, 40(3), 244–256.

BLS. (2018). Back injuries prominent in work-related musculoskeletal disorder cases in 2016. Retrieved December 27, 2023, from <https://www.bls.gov/opub/ted/2018/back-injuries-prominent-in-work-related-musculoskeletal-disorder-cases-in-2016.htm>

BOE. (2008). Real Decreto 34/2008, de 18 de enero, por el que se regulan los certificados de profesionalidad. Retrieved December 26, 2023, from <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2008-1628>

BOE. (2022). Resolución de 28 de julio de 2022, de la Secretaría de Estado de Derechos Sociales, por la que se publica el Acuerdo del Consejo Territorial de Servicios Sociales y del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia, sobre criterios comunes de acreditación y calidad de los centros y servicios del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia. Retrieved December 26, 2023, from [https://www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2022-13580](https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2022-13580)

Bonin-Guillaume, S., Durand, A. C., Yahi, F., Curiel-Berruyer, M., Lacroix, O., Cretel, E., ... eta Gentile, S. (2015). Predictive factors for early unplanned rehospitalization of older adults after an ED visit: role of the caregiver burden. *Aging Clinical and Experimental Research*, 27, 883-891.

Borg, G. (1982). A category scale with ratio properties for intermodal and interindividual comparisons. *Psychophysical Judgment and the Process of Perception*, 25–34.

Borg, G. (1990). Psychophysical scaling with applications in physical work and the perception of exertion. *Scandinavian Journal of Work, Environment & Health*, 16, 55–58.

Borisovskaya, A., Chmelik, E., eta Karnik, A. (2020). Exercise and chronic pain. *Advances in Experimental Medicine and Biology*, 1228, 233–253.

Boutron, I., Altman, D. G., Moher, D., Schulz, K. F., Ravaud, P., eta CONSORT NPT Group. (2017). CONSORT statement for randomized trials of nonpharmacologic treatments: A 2017 update and a CONSORT extension for nonpharmacologic trial abstracts. *Annals of Internal Medicine*, 167(1), 40–47.

Bragg, E., eta Hansen, J. C. (2010). A revelation of numbers: Will America's eldercare workforce be ready to care for an aging America?. *Generations*, 34(4), 11-19.

Brazier, J. E., Harper, R., Jones, N. M., O’Cathain, A., Thomas, K. J., Usherwood, T., eta Westlake, L. (1992). Validating the SF-36 health survey questionnaire: New outcome measure for primary care. *British Medical Journal*, 305(6846), 160–164.

Brouwer, W., Kroeze, W., Crutzen, R., de Nooijer, J., de Vries, N. K., Brug, J., eta Oenema, A. (2011). Which intervention characteristics are related to more exposure to internet-delivered healthy lifestyle promotion interventions? A systematic review. *Journal of Medical Internet Research*, 13(1), e2.

Bruln, C., Gerdle, B., Granlund, B., Höög, J., Knutson, A., eta Sundelin, G. (1998). Physical and psychosocial work-related risk factors associated with musculoskeletal symptoms among home care personnel. *Scandinavian Journal of Caring Sciences*, 12(2), 104–110.

Buchbinder, R., van Tulder, M., Öberg, B., Costa, L. M., Woolf, A., Schoene, M., ... eta Turner, J. A. (2018). Low back pain: a call for action. *Lancet*, 391(10137), 2384-2388.

Bull, F. C., Al-Ansari, S. S., Biddle, S., Borodulin, K., Buman, M. P., Cardon, G., ... eta Willumsen, J. F. (2020). World Health Organization 2020 guidelines on physical activity and sedentary behaviour. *British Journal of Sports Medicine*, 54(24), 1451-1462.

Burdorf, A., eta Jansen, J. P. (2006). Predicting the long term course of low back pain and its consequences for sickness absence and associated work disability. *Occupational and Environmental Medicine*, 63(8), 522–529.

Burke, S., Carron, A., Eys, M., Ntoumanis, N., eta Estabrooks, P. (2006). Group versus individual approach? A meta-analysis of the effectiveness of interventions to promote physical activity. *Journal of Sport and Exercise Psychology*, 2, 19–35.

Chamberlain, S. A., Gruneir, A., Hoben, M., Squires, J. E., Cummings, G. G., eta Estabrooks, C. A. (2017). Influence of organizational context on nursing home staff burnout: A cross-sectional survey of care aides in Western Canada. *International Journal of Nursing Studies*, 71, 60–69.

Chan, A. W., Tetzlaff, J. M., Altman, D. G., Laupacis, A., Gøtzsche, P. C., Krleža-Jerić, K., ... eta Moher, D. (2013). SPIRIT 2013 statement: defining standard protocol items for clinical trials. *Annals of Internal Medicine*, 158(3), 200-207.

Chang, V., Hiller, C., Keast, E., Nicholas, P., Su, M., eta Hale, L. (2013). Musculoskeletal disorders in support workers in the aged care sector. *Physical Therapy Reviews*, 18(3), 185–206.

Cheng, L. J., Tan, R. L.-Y., eta Luo, N. (2021). Measurement properties of the EQ VAS around the globe: A systematic review and meta-regression analysis. *Value in Health*, 24(8), 1223–1233.

Cheung, K. L., Ten Klooster, P. M., Smit, C., de Vries, H., eta Pieterse, M. E. (2017). The impact of non-response bias due to sampling in public health studies: A comparison of voluntary versus mandatory recruitment in a Dutch national survey on adolescent health. *BMC Public Health*, 17(1), 276.

Cheung, K., Szeto, G., Lai, G. K. B., eta Ching, S. S. Y. (2018). Prevalence of and factors associated with work-related musculoskeletal symptoms in nursing assistants working in nursing homes. *International Journal of Environmental Research and Public Health*, 15(2), 265.

Chow, L. S., Gerszten, R. E., Taylor, J. M., Pedersen, B. K., Van Praag, H., Trappe, S., ... eta Snyder, M. P. (2022). Exerkines in health, resilience and disease. *Nature Reviews Endocrinology*, 18(5), 273-289.

Christensen, J. R., Larsen, C. M., eta Kolind, M. I. (2020). Managers attitude towards implementing workplace health promotion programmes to employees in eldercare: A cross-sectional study. *Public Health in Practice*, 1, 100049.

Chu, A. H. Y., Koh, D., Moy, F. M., eta Müller-Riemenschneider, F. (2014). Do workplace physical activity interventions improve mental health outcomes? *Occupational Medicine*, 64(4), 235–245.

Cillekens, B., Huysmans, M. A., Holtermann, A., van Mechelen, W., Straker, L., Krause, N., ... eta Coenen, P. (2022). Physical activity at work may not be health enhancing. A systematic review with meta-analysis on the association between occupational physical activity and cardiovascular disease mortality covering 23 studies with 655 892 participants. *Scandinavian Journal of Work, Environment & Health*, 48(2), 86.

Clausen, T., Pihl-Thingvad, J., Villadsen, E., eta Andersen, L. L. (2023). Acts of offensive behaviour and risk of disability pension in Danish female eldercare workers: Prospective cohort with 11-year register follow-up. *Scandinavian Journal of Public Health*, 14034948231185942.

Contopoulos-loannidis, D. G., Karvouni, A., Kouri, I., eta Ioannidis, J. P. A. (2009). Reporting and interpretation of SF-36 outcomes in randomised trials: Systematic review. *British Medical Journal*, 338, a3006.

Cooper, S. L., Carleton, H. L., Chamberlain, S. A., Cummings, G. G., Bambrick, W., eta Estabrooks, C. A. (2016). Burnout in the nursing home health care aide: A systematic review. *Burnout Research*, 3(3), 76–87.

Costa, R. R. G., Dorneles, J. R., Veloso, J. H., Gonçalves, C. W., eta Neto, F. R. (2021). Synchronous and asynchronous tele-exercise during the coronavirus disease 2019 pandemic: Comparisons of implementation and training load in individuals with spinal cord injury. *Journal of Telemedicine and Telecare*, 29(4), 308-317.

Curtis, R. G., Ryan, J. C., Edney, S. M., eta Maher, C. A. (2020). Can Instagram be used to deliver an evidence-based exercise program for young women? A process evaluation. *BMC Public Health*, 20(1), 1506.



da C Menezes Costa, L., Maher, C. G., Hancock, M. J., McAuley, J. H., Herbert, R. D., eta Costa, L. O. P. (2012). The prognosis of acute and persistent low-back pain: A meta-analysis. *CMAJ: Canadian Medical Association Journal*, 184(11), E613-624.

Davis, K. G., eta Kotowski, S. E. (2015). Prevalence of musculoskeletal disorders for nurses in hospitals, long-term care facilities, and home health care: A comprehensive review. *Human Factors*, 57(5), 754-792.

Dionne, C. E., Dunn, K. M., Croft, P. R., Nachemson, A. L., Buchbinder, R., Walker, B. F., ... eta Von Korff, M. (2008). A consensus approach toward the standardization of back pain definitions for use in prevalence studies. *Spine*, 33(1), 95-103.

Du, J., Zhang, L., Xu, C., eta Qiao, J. (2021). Relationship between the exposure to occupation-related psychosocial and physical exertion and upper body musculoskeletal diseases in hospital nurses: A Systematic Review and meta-analysis. *Asian Nursing Research*, 15(3), 163-173.

Dworkin, R. H., Turk, D. C., McDermott, M. P., Peirce-Sandner, S., Burke, L. B., Cowan, P., ... eta Sampaio, C. (2009). Interpreting the clinical importance of group differences in chronic pain clinical trials: IMMPACT recommendations. *Pain*, 146(3), 238-244.

Eisen, E. A., Picciotto, S., eta Robins, J. M. (2006). Healthy worker effect; Encyclopedia of Environmetrics: John Wiley & Sons, Ltd, 3, 1-4.

EITB. (2023). Bizkaiko erresidentzietako langileek hitzarmena berritzea lortu dute, 68 greba egunen ondotik. Retrieved December 26, 2023, from <https://www.eitb.eus/eu/albisteak/ekonomia/osoa/9211472/bizkaiko-erresidentzietako-langileek-hitzarmena-berritzea-lortu-dute-68-greba-egunen-ondotik/>

El Fassi, M., Bocquet, V., Majery, N., Lair, M. L., Couffignal, S., eta Mairiaux, P. (2013). Work ability assessment in a worker population: Comparison and determinants of work ability index and work ability score. *BMC Public Health*, 13, 305.

Elder, A. J. S., Scott, W. S., Kluge, M. A., eta Elder, C. L. (2016). CyberEx internet-based group exercise for rural older adults: A pilot study. *Activities, Adaptation & Aging*, 40(2), 107-124.

Elfering, A., Grebner, S., Semmer, N. K., eta Gerber, H. (2002). Time control, catecholamines and back pain among young nurses. *Scandinavian Journal of Work, Environment & Health*, 28(6), 386-393.

Eriksen, W., Bruusgaard, D., eta Knardahl, S. (2004). Work factors as predictors of intense or disabling low back pain; A prospective study of nurses' aides. *Occupational and Environmental Medicine*, 61(5), 398-404.

Escolar-Reina, P., Medina-Mirapeix, F., Gascón-Cánovas, J. J., Montilla-Herrador, J., Jimeno-Serrano, F. J., de Oliveira Sousa, S. L., ... eta Lomas-Vega, R. (2010). How do care-provider and home exercise program characteristics affect patient adherence in chronic neck and back pain: A qualitative study. *BMC Health Services Research*, 10(1), 1-8.

Espin, A. (2020). Factores asociados al dolor lumbar y estado psicoafectivo de las auxiliares de geriatría en residencias de mayores. *Archivo digital docencia investigación (ADDI) UPV/EHU*.

Espin, A., García-García, J., Latorre Erezuma, U., Aiestaran, M., Irazusta, J., eta Rodriguez-Larrad, A. (2022). Videoconference-based physical performance tests: reliability and feasibility study. *International Journal of Environmental Research and Public Health*, 19(12), 7109.

Espin, A., Irazusta, J., Segovia Celaya, I., Mosquera Lajas, Á., González-Templado, V., eta Rodriguez-Larrad, A. (2023). Effects of a videoconference-based therapeutic exercise intervention on the musculoskeletal pain of eldercare workers: protocol for the ReViEEW randomized controlled trial. *BMC Musculoskeletal Disorders*, 24(1), 463.

EUSTAT. (2023a). Índice sintético de fecundidad y edad media a la maternidad en la C.A. de Euskadi por rango de nacimiento, territorio histórico y comarca, según año. 1976-2022. Retrieved December 26, 2023, from [https://www.eustat.eus/elementos/ele0021600/indice-sintetico-de-fecundidad-y-edad-media-a-la-maternidad-en-la-ca-de-euskadi-por-rango-de-nacimiento-territorio-historico-y-comarca-segun-ano/tbl0021670\\_c.html](https://www.eustat.eus/elementos/ele0021600/indice-sintetico-de-fecundidad-y-edad-media-a-la-maternidad-en-la-ca-de-euskadi-por-rango-de-nacimiento-territorio-historico-y-comarca-segun-ano/tbl0021670_c.html)

EUSTAT. (2023b). La población de la C.A. de Euskadi aumenta en 5.096 personas en el primer semestre de 2022. Retrieved December 26, 2023, from [https://www.eustat.eus/elementos/La-poblacion-de-la-CA-de-Euskadi-aumenta-en-5096-personas-en-el-primer-semester-de-2022/not0021048\\_c.html#:~:text=En%20julio%20de%202022%2C%20la,23%2C9%25%20en%20Bizkaia](https://www.eustat.eus/elementos/La-poblacion-de-la-CA-de-Euskadi-aumenta-en-5096-personas-en-el-primer-semester-de-2022/not0021048_c.html#:~:text=En%20julio%20de%202022%2C%20la,23%2C9%25%20en%20Bizkaia)

Ewert, T., Limm, H., Wessels, T., Rackwitz, B., von Garnier, K., Freumuth, R., eta Stucki, G. (2009). The comparative effectiveness of a multimodal program versus exercise alone for the secondary prevention of chronic low back pain and disability. *PM & R*, 1(9), 798–808.

Faber, A., Giver, H., Strøyer, J., eta Hannerz, H. (2010). Are low back pain and low physical capacity risk indicators for dropout among recently qualified eldercare workers? A follow-up study. *Scandinavian Journal of Public Health*, 38(8), 810–816.

Feng, C. K., Chen, M. L., eta Mao, I. F. (2007). Prevalence of and risk factors for different measures of low back pain among female nursing aides in Taiwanese nursing homes. *BMC Musculoskeletal Disorders*, 8, 1-9.

Fernández-Rodríguez, R., Álvarez-Bueno, C., Cavero-Redondo, I., Torres-Costoso, A., Pozuelo-Carrascosa, D. P., Reina-Gutiérrez, S., ... eta Martínez-Vizcaíno, V. (2022). Best exercise options for reducing pain and disability in adults with chronic low back pain: pilates, strength, core-based, and mind-body. a network meta-analysis. *Journal of Orthopaedic & Sports Physical Therapy*, 52(8), 505-521.

Fiabane, E., Dordoni, P., eta Argentero, P. (2016). Subjective and objective indicators of job stress and burnout in a residential home for the elderly. *Giornale Italiano Di Medicina Del Lavoro Ed Ergonomia*, 38(1), 42–49.

Firth, J., Solmi, M., Wootton, R. E., Vancampfort, D., Schuch, F. B., Hoare, E., ... eta Stubbs, B. (2020). A meta-review of “lifestyle psychiatry”: the role of exercise, smoking, diet and sleep in the prevention and treatment of mental disorders. *World Psychiatry*, 19(3), 360-380.

Fleckenstein, J., Floessel, P., Engel, T., Krempel, L., Stoll, J., Behrens, M., eta Niederer, D. (2022). Individualized exercise in chronic non-specific low back pain: A systematic review with meta-analysis on the effects of exercise alone or in combination with psychological interventions on pain and disability. *The Journal of Pain*, 23(11), 1856–1873.

Franzosa, E., Tsui, E. K., eta Baron, S. (2019). ‘Who’s caring for us?’: understanding and addressing the effects of emotional labor on home health aides’ well-being. *The Gerontologist*, 59(6), 1055–1064.

Freitag, S., Fincke-Junod, I., Seddouki, R., Dulon, M., Hermanns, I., Kersten, J. F., Larsson, T. J., eta Nienhaus, A. (2012). Frequent bending—An underestimated burden in nursing professions. *The Annals of Occupational Hygiene*, 56(6), 697–707.

Gao, Z., eta Wang, R. (2022). Application of e-health programs in physical activity and health promotion. *Journal of Sport and Health Science*, 11(2), 131–132.

GBD. (2018). Global, regional, and national incidence, prevalence, and years lived with disability for 354 diseases and injuries for 195 countries and territories, 1990-2017: A systematic analysis for the Global Burden of Disease Study 2017. *Lancet*, 392(10159), 1789–1858.

Geiger-Brown, J., Muntaner, C., Lipscomb, J., eta Trinkoff, A. (2004). Demanding work schedules and mental health in nursing assistants working in nursing homes. *Work & Stress*, 18(4), 292–304.

Geneen, L. J., Moore, R. A., Clarke, C., Martin, D., Colvin, L. A., eta Smith, B. H. (2017). Physical activity and exercise for chronic pain in adults: An overview of Cochrane reviews. *The Cochrane Database of Systematic Reviews*, 4(4), CD011279.

Gianola, S., Barger, S., Del Castillo, G., Corbetta, D., Turolla, A., Andreano, A., ... eta Castellini, G. (2022). Effectiveness of treatments for acute and subacute mechanical non-specific low back pain: a systematic review with network meta-analysis. *British Journal of Sports Medicine*, 56(1), 41-50.

Gold, J. E., Punnett, L., Gore, R. J., eta ProCare Research Team. (2017). Predictors of low back pain in nursing home workers after implementation of a safe resident handling programme. *Occupational and Environmental Medicine*, 74(6), 389–395.

Goldberg, D., Bridges, K., Duncan-Jones, P., eta Grayson, D. (1988). Detecting anxiety and depression in general medical settings. *British Medical Journal*, 297(6653), 897–899.

Gómez-Redondo, P., Marín, V., Leal-Martín, J., Ruiz-Moreno, C., Giráldez-Costas, V., Urdiola, P., ... eta Mañas, A. (2022). Association between physical activity guidelines and sedentary time with workers’ health-related quality of life in a Spanish multinational company. *International Journal of Environmental Research and Public Health*, 19(11), 6592.

Gonzalez-Gerez, J. J., Bernal-Utrera, C., Anarte-Lazo, E., Garcia-Vidal, J. A., Botella-Rico, J. M., eta Rodriguez-Blanco, C. (2020). Therapeutic pulmonary telerehabilitation protocol for patients affected by COVID-19, confined to their homes: Study protocol for a randomized controlled trial. *Trials*, 21(1), 588.

Gordon, B. R., McDowell, C. P., Hallgren, M., Meyer, J. D., Lyons, M., eta Herring, M. P. (2018). Association of Efficacy of resistance exercise training with depressive symptoms: Meta-analysis and meta-regression analysis of randomized clinical trials. *JAMA Psychiatry*, 75(6), 566–576.

Granet, J., Peyrusqué, E., Ruiz, F., Buckinx, F., Abdelkader, L. B., Dang-Vu, T. T., ... eta Aubertin-Leheudre, M. (2023). Web-based physical activity interventions are feasible and beneficial solutions to prevent physical and mental health declines in community-dwelling older adults during isolation periods. *The Journals of Gerontology: Series A*, 78(3), 535-544.

Grimani, A., Aboagye, E., eta Kwak, L. (2019). The effectiveness of workplace nutrition and physical activity interventions in improving productivity, work performance and workability: A systematic review. *BMC Public Health*, 19(1), 1676.

Grona, S. L., Bath, B., Busch, A., Rotter, T., Trask, C., eta Harrison, E. (2018). Use of videoconferencing for physical therapy in people with musculoskeletal conditions: A systematic review. *Journal of Telemedicine and Telecare*, 24(5), 341-355.

